

13

Soziologiazko Euskal Koadernoak Cuadernos Sociológicos Vascos

2003

Gaztetxoak eta Aisialdia Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)

*Kontxesi Berrio-Otxoa
Jone Miren Hernández
Zesar Martínez*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

PRESIDENCIA

GAZTETXOAK ETA AISIALDIA: Etorkizuna aurreikusten (2001-2002)

Kontxesi Berrio-Otxoa
Jone Miren Hernández
Zesar Martínez

2003

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA
Azterlan eta Lege Araubide Zuzendaritza
Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA
Dirección de Estudios y Régimen Jurídico
Gabinete de Prospección Sociológica

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2003

OTROS NÚMEROS DE ESTA COLECCIÓN

1. **La actitud emprendedora en la CAPV**
Kualitate Lantaldea
2. **Institucionalización política y reencantamiento de la socialidad. Las transformaciones en el mundo nacionalista**
Begoña Abad, Javier Cerrato, Gabriel Gatti, Iñaki Martínez de Albeniz, Alfonso Pérez-Agote, Benjamín Tejerina
3. **La cultura del trabajo y la actitud emprendedora en el ámbito profesional de la CAPV**
Miguel Ayerbe, Esther Buenetxea
4. **La población vasca ante el periodo de tregua de ETA 1998-1999**
Gabinete de Prospección Sociológica
5. **Ikastola edo eskola publikoa: euskal nazionalismoaren hautua**
Txoli Mateos
6. **Análisis postelectoral de Elecciones Autonómicas 2001**
Gabinete de Prospección Sociológica
Belén Castro Iñigo, Miguel Angel García Montoya, Amaya Zárraga Castro
7. **Acción colectiva y sociedad de movimientos. El movimiento antimilitarista contemporáneo en el País Vasco-Navarro**
Jesus Casquete
8. **El sector de la Cooperación al Desarrollo en la CAPV en el bienio 1999-2000**
Varios autores
9. **Euskal eskolaren muin eta mamiaren bila: ikerkuntza-prestakuntza prozesu bat**
Maitte Arandia, Idoia Fernández, Pilar Ruiz de Gauna, José Luis Marañón, Juanjo Gómez
10. **La familia en la CAPV – 1997**
Kualitate Lantaldea
11. **La familia en la CAPV - 2002**
Gabinete de Prospección Sociológica
12. **El Concierto Económico Vasco: historia y renovación. Las valoraciones de la población de la C.A.P.V. al respecto**
Varios autores

Edición:	1ª. septiembre 2003
Tirada:	500 ejemplares
©	Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Presidencia
Edita:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotocomposición e impresión:	Flash Composition, S.L. Alda. Rekalde, n.º 6 - 48009 Bilbao
I.S.S.N.:	1575-7005
D.L.:	BI-2394-03

AURKIBIDEA

	Orr.
0. SARRERA. IKERKETAREN AURKEZPEN OROKORRA	7
0.1. Ikerketaren objektua eta helburu orokorrak	7
0.2. Ikerketaren planteamendu metodologikoa eta konpromiso epistemologikoa	10
0.3. Ikerketa txostenaren egitura	15
1. LANILDOEN AURKEZPENA ETA AUTONOMIAREN ARDATZA: ANALISIAREN FUNTSEZKO EUSKARRIAK	17
1.1. Azterketaren lanildoak eta beraien egituraketa autonomiaren ardatzean	17
1.2. Autonomiaren ardatzaren azalpena: autonomia versus heteronomia	24
1.3. Lanildoen egituraketa: Guneen aurkezpena	27
1.3.1. Gune konpartituak	28
1.3.2. Gune monitorizatuak	42
1.3.3. Gune birziklatuak	52
1.3.4. Berezko guneak	56
2. AISIALDIAREN BIZIPENA ETA GAZTE IZATEA	71
2.1. Gaztetxoak eta aisialdia: elementu definitzaileak	71
2.2. Aisialdiko bizipenak eta balioak	72
2.3. Aisialdia eta gazte identitatearen eraketa	78
2.4. Aisialdia eta bereizketa prozesuak	81
2.4.1. Helduekiko eta gazteekiko tentsioak (autonomia eta mimetismoa)	82
2.4.2. Gaztetxoen arteko bereizketak: gazte izateko erak: generoa, ingurunea eta gazte kulturak	84
3. GOGOETAK ETA PROPOSAMENAK: ESKU-HARTZE SOZIALA ETA INSTITUZIONALAK GAZTETXOEN AISIALDIAN	99
3.1. Gazteei buruzko irudikapen soziala	99
3.2. Gaztetxoen aisialdiaren dinamizazioa eta optimizazioa	101
4. BIBLIOGRAFIA	107

Sarrera. Ikerketaren aurkezpen orokorra

0.1. Ikerketaren objektua eta helburu orokorrak

Etorkizuna Aurreikusten izenarekin 1993an abiatutako aldizkako ikerketa-bildumaren bidetik, Euskadiko Autonomia Erkidegoko (aurrerantzean EAE) egungo gaztetxoaren errealitatearen azterketa egitea eskatu zitzaionean lantalde honi, nerabeen berri osatua jasotzekotan neska-mutilentzako beraientzako garrantzitsua den bizitzaren arloari heldu beharra argi ikusi genuen, eta ikuspegi horretatik abiatu genuen txosten honetan aurkezten dugun EAEko gaztetxoaren aisialdiari buruzko ikerketa. Gainera, etorkizuneko gizartean gero eta garrantzitsuagoa izango den aisialdiaren esparruari aldiro-aldiroko azterketa iraunkorrak egitea interesgarritzat jotzen genuen.

Ezbairik gabe, gure gizartean denbora libre garrantzi handiko denbora da gazteenzat. Izan ere, ikasketekin edo bestelako betebeharrekin okupatuta ez dagoen denbora izanik, aukera ematen die gazte-garaian oso premiazkoa den beharrian bati erantzuteko: norberaren subjektibitatea garatzea eta modu librean adieraztea. Horrela, eskoletatik eta gainontzeko eginbeharretatik kanpo gelditzen zaien denbora libre bezala definituta aisialdia, aisialdiko denbora horretan bere harremanak, zaletasunak eta betenahiak lantzeko aukera dute. Seguru asko, aisialdi momentu horiek euren barneko nahi, balio eta desioak adierazteko aukera bezala ikusten dituzte; aukera gauzatua edo frustratua izango dena, inguruan topatzen edo sortzen dituzten harreman, jarduera eta eskaintzen arabera.

Nolanahi ere, nerabeen aisialdia aztertzeke orduan, gazteen kolektiboa oso kolektibo heterogenoa dela kontuan hartuz abiatu ginen; adin-tartea, generoa, bizitokia, familiaren maila ekonomikoa edota ingurunearen erreferente etnolinguistikoa dira, besteak beste, kontuan hartutako aldagai garrantzitsu batzuk.

Gaztetxoaren aisialdiarena esparru zabala denez, eta lotura anitzak dituen gazteen bizitzaren esparru ezberdinekin, lehenik eta behin, aztergaiaren barnean lehentasunezko lanildoak eta helburuak definitzeari ekin genion, segidan agertzen ditugunak:

—1— **Gaztetxoan aisialdiko harremanak; euren artean zein inguruko agente ezberdinekin** izeneko lanildoan, gaztetxoan denbora librean parte hartzen duten agente ezberdinen mapa osatzea eta irudikatzea ezarri genuen helburu, aktore ezberdin horiek dituzten harremanen inguruan ahalik eta informazio biltzeko asmotan

—2— **Gaztetxoan aisialdirako espazio berriak** izeneko lanildoan kokatuta, aisialdiko espazioen mudantza nabarmentzea ere garrantzitsua iruditu zitzaigun. Euskal Herriko herri eta hirietan lurralde-antolamendu eta hirigintza mailan izandako aldaketak bat datoz gizarte mailan izandako hainbat aldaketekin. Horietako zenbait aisialdiaren inguruan garatutako nahi eta behar berriei erantzuteko sortu dira; gure gizartean agaztetxoak barne, noskiæ aisialdiko eskaera berriak sortu ditugu, eta horri erantzunez, aisialdiko hornitzaileek æpublikoak nahiz pribatuakæ erai-kuntza, espazio eta eskaintza ezberdinak garatu izan dituzte. Aisialdiko eskaintza horien artean polikiroldegiak, kultur etxeak, gaztelekuak nahiz merkataritza-gune handiak kontuan hartu beharko lirakeke, besteak beste, baita gazteek beraiek bilatzen dituzten espazio pribatuagoak ere. Aisialdiko eskaintza horretan, edota aisialdirako azpiegitura eta hiri-espazioetan, EAEko gaztetxoan aisialdia non gauzatzen den ezagutzea zen, beraz, ikerketa honen beste helburuetariko bat.

—3— **Aisialdiaren inguruko gazteen jarduerak, zaletasunak eta kontsumo-joerak.** Aisialdiari lotuta agertzen diren harremanak eta espazioak aipatu ondoren, denbora librean gazteek aukeratzen dituzten jarduerak, garatzen dituzten zaletasunak eta dituzten kontsumo-joerak hirugarren interes-gune bezala hartu genuen.

Ikuspuntu horretatik, pentsatzekoa da aisialdiari lotuak agertzen diren harreman eta espazio berrien agerpenak, ekintza eta jarduera berriak ekarri dituela. Horien artean, batzuk guraso eta hezitzaileen kezka piztu dituzte æalkohola edo beste drogen kontsumoarekin lotuak daudenak edo gehiegizko indibidualismo eta kontsumismoarekinæ. Beste batzuk, aldiz, gizartearen onarpen zabala lortu dute ækirolak izan duen zabalkundea, esate baterako.

—4— **Gaztetxoek aisialdiaren inguruan dituzten erreferenteak eta betenabiak.** Aurreko hiru lan-ildoak aisialdiaren inguruko errealitatea ezagutzera eta osatzera zuzenduta baldin bazeuden, azkenengo helburuak nahi, balio eta desioen mundua aztertzea zuen lehentasunezko jomuga. Horretarako gaztetxoek aisialdiaren bitartez adierazten dituzten erreferente eta nahien azterketa egitea beharrezko ikusten genuen. Azken finean, gaztetxoek aukeratzen dituzten aisialdiko harremanak, espazioak eta jarduerak zein pentsamolde, desio eta nahien arabera garatzen dituzten konprenitzea zeukan ikerketa honek bere oinarrian.

Hona artekoa era soilagoan eta laburragoan esanda, bi dira erantzun nahiko genituzkeen galdera nagusiak. Alde batetik, gure jakinahia da egungo nerabeentzako **zer den, nola ulertzen duten eta nola bizi duten aisialdia**. Bestalde, beraien **aisialdiaren bizipenean zein balio eta espektatiba** adierazten dituzten arakatu nahiko luke ikerketa honek.

Helburu orokorrak


1. Nerabeen bizipenen sakoneko azterketa



2. Gaztetxoen balio, espektatiba eta aisialdiaren ulerkeran sakontzea

Jakinahi horiei erantzuna eman nahia ikerketaren bi helburu orokorren eskutik dator. Lehen helburu orokorra litzateke, Euskadiko Autonomia Erkidegoko nerabeen aisialdiko bizipenen sakoneko azterketa egitea, aisialdiko harremanei, espazioei zein jarduerari dagokienean; bigarrena litzateke gaztetxoen balio, espektatiba eta aisialdiaren ulerkeran sakontzea.

Aipatutako helburuak betetze aldera, eta ikerketaren lanildoer jarraiki, behinik behin harremanei, espazioei eta jarduerari dagokienean, azterketarako eremu ezberdinak taxutu genituen. Harremanen lanildoer jorrazteko, familia barnean, lagun taldean eta agente instituzionalen baitan (ikastetxea, aisialdi taldea,...) aisialdian gertatzen diren harremanei erreparatuz. Espazioaren lanildoari dagokionean, etxeko espazioa, kalekoa, gaueko espazio-denbora, gaztelekuetakoa eta merkataritza guneetakoa miatu dugu. Azkenik, jardueren lanildoaren arabera, antolatutako jarduerak (kirola, aisialdi talde hezitzaileak eta bestelakoak) eta antolatugabeko jarduerak bereizi ditugu (kalea eta lagun taldea), aisialdi jardueren aniztasuna aztertzeke asmoz.

Ikerketaren lanildoak

0.2 Ikerketaren planteamendu metodologikoa eta konpromiso epistemologikoa

Arestian aipatu bezala, ikerketa honen helburu orokorra 14-16 urte tartean dauden gaztetxoan aisialdiko bizipena aztertzea da; horrela, aisialdiaren bitartez gaztetxoak adierazten ari diren nahiak, pentsamoldeak eta balioak konprenitzea bilatzen dugu. Gaztetxoan erreferentzia sinbolikoak kokatu ditugu, beraz, azterketaren erdigunean (euren kezka, lehentasunak, ilusioak,...); izan ere, beste aktore sozialen kasuan bezala, gaztetxoan jokaerak ulertu ezinik ibiliko gara nola bizi diren, zer sentitzen duten, euren ingurune soziala nola antzematen duten, eta ingurune horretaz zer pentsatzen duten ulertzen saiatzen ez bagara.

Bizipen eta erreferentzia sinboliko horietara hurbiltzeko, ezinbestekoa izan dugu planteamendu metodologiko kualitatiboa; horrela, elkarrizketa pertsonalak eta eztabaida taldeak erabili ditugu, eta teknika horiekin zein beste teknika berezituarekin (behaketa zuzena eta kontraste bilerak), gaztetxoengana eta gaztetxoekin lan egiten dutenengana hurbiltzea eta hartu-eman zuzenak edukitzea bilatu dugu. Estrategia metodologiko horrek ematen duen gertutasunetik, nerabeen jokaerak eurentzat (nerabeentzat) nolako signifkazioa duten konprenitzen ahalgindu gara.

Ikerketa-planteamendu kualitatibo honek, ikerketaren xedeekiko egokitasuna bilatzeaz gain, lotua dago geure ondorengo kezka epistemologiko honekin: gazteei buruzko ikerketak eta, ondorioz, gazteen inguruan sortzen diren irudi soziologikoak eta jakintza zientifikoak, gazteenganako behar besteko ahalegin enpatikorik egin gabe burutzen direla pentsatzen dugu. Hutsune horrek sortzen du, geure irudiko, gazteen irudikapen sinplifikatzailea eta deskontestualizatu eta, ondorioz, gehiegizko homogenizazioa eta alarmismoa. Gure ustez, gazteetaz hitz egitea gizarteaz hitz egitea da; hau da, gazteen munduak biltzen ditu bere baitan gizarteak bere osotasunean biltzen dituen dibertsitate, konplexutasun eta argi/ilun berdinak. "Gaztedia" bezalako kontzeptuak erabiltzeak dibertsitate eta konplexutasun hori begi-bistik galtzera bultzatzen gaitu, eta kategoria horretan sartzen ditugu kualitatiboki eta sozialki oso ezberdinak diren errealitateak eta aktoreak.

Gazteen inguruko ikerketetan bereziki kezka garria iruditzen zaigu joera hori, izan ere, gaztea izatea zerbait biologiko-naturala izateaz gain, zerbait soziala da, denboran eta espazioan aldakorra den konstrukzio kulturala, alegia. Bere signifkazioa, beraz, oso lotua egongo da geure gizartearen gainerako signifkazio sozialekin eta instituzio sozialekin; gazteak garenean, trantsiziozko baldintzapen sozial batean gaude, trantsizioa helduaren integrazio sozialerantz. Horrela, gaztaroan, burutu gabe dago gizartearen instituzio produktiboetan eta erreproduktiboetan (lan-merkatua, etxebizitza, kontsumoa, amatasuna/aitatasuna,...) egiten dugun integrazioa; eta,

integrazio horren ibilbidean, zailtasun edo erraztasun gehiago izango ditugu instituzio horien permeabilitatearen arabera -instituzio horien sarbideen malgutasunaren arabera-, eta geure bestelako baldintzapen sozialen arabera (sexua, maila sozio-ekonomikoa, kapitala kulturala, harreman-sareak,...).

Gazteak, beraz, transitorioa den dependentziazko egoeran daude, hau da, egitura eta kultura hegemonikoan integrazio-bidean dauden aktore sozialak dira (modu prekarioan eta gatazkatsuan, edo modu erraz eta armonikoan). Ezin aztertu, hortaz, gazteen kulturak eta jokamoldeak modu isolatuan eta homogeneoan, gainerako instituzio eta egitura sozialetan (familia, hezkuntza, lana, aisialdia, kontsumoa, komunikabideak eta indarrean dauden integrazio-ereduak,...) dauden joerak eta integziorako zailtasunak kontuan hartu barik.

Bestaldetik, gazteen inguruko azterketetan, hurbilpen konprentsiiboak eta egiturazkoak ez egiteaz gain, ez da agerikoa egiten ere ikerketak norentzako, zein ikuspegi-tik eta zertarako egiten diren. Horrela, askotan, gizartean dominanteak diren balio eta ikuspegi ideologikoetatik burutzen dira; hau da, helduen gizartean onartuak dauden eta arau dominanteak diren planteamendu eta jokabideetatik. Azken batean, ikuspegi ideologiko eta baloratibo batetik irakurtzen dira gazteen jokamoldeak, eta hautu edo konpromiso baloratibo hori (bere inplikazio ideologiko-politikoekin) agerikoa izan barik ezkutukoa da, askotan babestua edo mozorrotua jakintza zientifikoaren balizko objektibotasunarekin.

Guzti horren ondorioa izaten da gazteen aisialdia epaitzea ezkutuan mantentzen den ikuspuntu moralista eta desbiazionista batetik (jokaera onartuak eta jokaera desbideratuak edo asozialak bereiztuz), testuinguru sozialak sortzen dituzten zailtasunak eta kontraesanak kontuan hartu barik; eta, ondorioz, konprentzio integrala eragozten dituzten estereotipo estigmatzaileak proiektatuz. Azkenik, irudikapen horietatik eratortzen diren proposamenak eta ondorio sozio-politikoak lotuak izaten dira kontrol soziala areagotzearekin, berandu baino lehen desbideraturik kontsideratzen diren gazteak arau dominantea lerrotu daitezten.

Zentzu horretan, guk agerian jarri nahi ditugu ikerketa honen sakoneko helburuak, hau da, gaztetxoaren inguruko azterketa hau norentzako eta zertarako egiten dugun. Beste era batera esanda, zein konpromiso epistemologikoa hartzen dugun. Izan ere, jakitun gara edozein azterketa sozialek errealitate horren irakurketa bat sortzen duela eta irakurketa hori errealitate horren parte bat gehiago bihurtu daitekeela; hau da, azterketa edo irakurketa horrek bere ondorioak izan ditzakeela maila ezberdinetan: gaztetxoaren irudi sozialean, eurekiko jarreretan, gazteen arloan lan egiten duten agenteen estrategietan (hezitzaileak, aisialdiko taldeak, politika instituzionalak,...). Ikerlariek nahita edo nahi gabe ikerketak bere ondorio sozialak eta politikoak sor ditzake eta, gure ikuspegi epistemologikotik, hori ere bada ikerlarien ardura.

Arestian aipatu bezala, *“Gaztetxoak eta aisialdia: etorkizuna aurreikusten”* izeneko ikerketak, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen eskariari erantzuten dio. Hain zuzen ere, kabinete horrek *“Gaztediaren Behatokia”* izeneko foroan -agente sozialak eta instituzionalak biltzen dituen foroa- duen partaidetza dela eta, 14-16 urteko gaztetxoen edo nerabeen balio eta pentsamoldeei buruzko ikerketa baten beharra planteatzen digu. Kabinetearentzat eta Gaztediaren Behatokiarentzat, horietatik ditugu, beraz, *“norentzakoak”*. *“Zertarakoei”* dagokienez, ikerketa-taldea osatzen dugun kideok, haur eta nerabeen aisialdiari buruz egindako aurreko ikerketa bati jarraipena emateko aukera ikusi genuen eta, aldi berean, gure lan-taldeari jarraipena emateko aukera ere, geure ibilbide profesionalean beste urrats bat emateko abagunea, beraz. Helburu edo *“zertarako”* hauekin batera, erronka moduan ikusi genuen ere gazteen inguruko azterketetan eta balioen inguruko ikerketetan dagoen hutsune kualitatibo eta konprentsiboari aurre egitea. Eta, horrekin loturik, neska-mutilen kezka, lehentasunak eta nahiak, gazteen arloan lan egiten duten agenteengana (agente sozialak zein instituzionalak) hurbiltzeko aukera. Horretarako ikusten genuen interesgarria gaztetxoen aisialdiari buruzko azterketa bat egitea, hain zuzen ere, arloan ari diren agenteei errealitate horren hurbilpen kualitatiboa eta enpatikoa eskaintzeko; horrela, errealitate horren subjektuen konprentsiotan sakonduz, euren lana eta esku-hartzea subjektu hartzaileei (nerabeei) egokitutako lana izatea bultzatzeko.

Azken batean, esfortzuak norabide berdinean ipini ahal izateko, ezinbestekoa da diagnostikoak eta helburuak hurbiltzeko ahalegina, eta horretarako funtsezkoa dugu subjektu hartzaileen eta beste agenteen konprentsiotan sakontzea. Izan ere, arlo berean -gazteak eta aisialdia- elkarbizitzen ari diren aktoreek (gaztetxoak, aisialdiko taldeak, kale hezitzaileak, irakasleak, gazte teknikariak eta gazte sailtako arduradun politikoak), puntu ezberdinetatik lan egiten ari direlako, askotan ikuspuntu ezberdinetatik eta erreferente ezberdinekin ikusten dituzte subjektu hartzaileak zein beste agenteen lana. Distantziak, batzutan, handiak dira eta inkonprentsiotakoak ere. Ikerketa honen beste zertarako bat litzateke, beraz, gaztetxoen aisialdiaren hobekuntza eta optimizazioaren helburua geure eginez, arloan ari diren agenteen arteko distantziak hurbiltzea eta, batez ere, nerabeen kezka, bizi baldintza eta pentsamoldeen berri ematea, horien arabera esku-hartze sozialak eta instituzionalak errazteko.

Azkenik aipatzea enpatian oinarritzen den ikuspegi konprentsibo horrek ez gaituela zertan eraman behar gaztetxoen jokaera eta pentsamolde guztiekin sinpatizatzea eta ontzat ematera; gureak ez du izan nahi jarrera sinpatiko-justifikatzailea baizik eta enpatiko-subjektibatzailea, hau da, gaztetxoak subjektu aktibo bezala aztertzea euren arteko dibertsitatea eta baldintza sozialen konplexutasuna begi-bistatik galdu gabe.

Azaldu berri dugun ariketa konprentsiboa egitekotan, planteamendu metodologiko kualitatiboari heltzea ezinbestekoa genuen, eta bide horretatik, gaztetxoen aisialdia-

ren errealitate anitzari buruzko informazioa biltzeko hainbat teknika kualitatibo erabili ditugu, teknika ezberdinen bitartez sortutako informazio bildumaren analisiari ekiteko ondoren.

Ikerketa abiatzeaz bat, nerabeen eta haien aisialdiari buruzko jatorri eta jakintzarlaro ezberdinetako lan eta dokumentuak landu genituen; ikerketa aurrera joan ahala ere, aurrez sortutako bibliografia eta dokumentazioaren azterketa egiten jardun dugun lana izan da. Soziologiaren, antropologiaren zein psikologiaren ikuspegitik egindako azterlanak errebisatuz gaztetxoeren errealitate konplexuan murgiltzen joatea, ondorengo informazio bilketa taxutzea eta analisisia aberastea genituen helburu.

Aztergaia genuen sujetu eta lurraldera etorriz, Euskadiko Autonomia Erkidego-ko gaztetxoak alegia, beraien aisialdiaren berri jasotzeko sakoneko elkarrizketak eta eztabaida taldeak erabili ditugu. Sakoneko elkarrizketak gaztetxoeren aisialdian adituak zein arituak diren pertsonekin izan ditugu. Soslai ezberdinekoak izan dira elkarrizketatutako pertsonak, baina denak gaztetxoeren eta haien aisialdiarekin harreman estua dutenak. Hartara, Deustuko modulo psikosozialeko psikologoa, Zarautzko gaztelekuko begiralea eta elizaren esparruko aisialdi talde hezitzaileetako begirale bezala aritu izanaz gain, egun, talde ezberdinen koordinatzaile lez Euskadiko Gazteria Kontseiluan eta gazteentzako informazio bulego batean ari diren pertsonak izan dira elkarrizketatu ditugunak. Beraiek lagundu digute ikerketaren testuingurua osatzen eta oinarritzko diagnostikoa prestatzen.

Aitzitik, gaztetxoekin egindako eztabaida taldeak izan dira gure ariketa konprentsi-
boan urrats sendoena, beraien mundura urreratzeko aukera eta era ezberdineko informazioa eskaini baitigute gaztetxoek. Getxoaldean, Gernikan, Bilbon, Gasteizen (bi), Tolosan eta Donostian (Aisialdi taldea Nafarroako Uriz herrian zegoenez udalekutan, bertan egin genuen taldea) egindako zazpi eztabaida taldeen bidez, gaztetxoeren aisialdiari buruzko oinarritzko informazioa jasotzeaz gain, gazteen aisialdirako gune garrantzitsuak bereiztu, eta bakoitzaren pisua eta ezaugarriak detektatu genituen ere, lurralde ezberdinen artean joera ezberdinak antzeman ote zitezkeen arakatur. Gaztetxoeren zortzikoteak osatzerakoan aintzat hartu ditugun aldagaiak izan dira: ikastetxe mota (ikastetxe pribatuak eta publikoak, institutuak, ikastolak), zonaldearen maila sozioekonomikoa, gaztetxoeren hizkuntz soslai eta generoa. Gainera, bereziki interesgarria irudituta, lagun kuadrila bereko kideekin osatu genuen eztabaida talde bat eta udalekutan zeuden aisialdi talde bateko 14-16 urteko neska mutilekin beste bat.

Sakoneko elkarrizketetaz eta eztabaida taldeetat gain, gaztetxoeren aisialdiko hiru gune ezberdinen behaketa eta azterketa zehatza egin da ikerketa honetan zehar, bertatik bertara gune horietako aktoreak eta beraien arteko harremanak eta dinamikak jasoaz, aisialdiaren errealitatearen dibertsitatea eta konplexutasuna era osa-

Ikerketaren planteamendu metodologikoa

**** Metodologia kualitatiboa ****

*** Teknikak:

- Sakoneko elkarrizketak

4

- Eztabaida taldeak

7

Gaztetxoak

- Azterlan monografikoak

3 Elkarrizketak: 8
Taldeak: 7

Altza (Donostia): Auzoa
Gasteiz: Aisialdi antolatua
Getxo: Ikastetxeko eskolaz kanpokoak

- Kontraste eta analisi bilerak

2

Begiraleak/Monitoreak
 Ais. taldeetako arduraduradunak
 Ais. Programen arduraduradunak
 Kale hezitzaileak
 Gaztetxoak
 Orientatzaileak/Irakasleak

tuagoan geureganatzeko asmoz. Esan bezala, hiru izan dira azterketa monografikoak. Bata, Getxoko ikastetxe batean, eskolaz kanpo aisialdirako eskaintza sendoa eta haren baitako harremanak aztertzeko helburuarekin. Bestea, Gasteizen, Taugres eta Alaves taldeen baitako, Gizarte Etxeen baitako eta asteburuetarako aisialdi programa berezien baitako (Gauekoak programa) gaztetxoentzako aisialdi antolatua azterketa sakona egiteko asmoz, bereziki, antolatutako aisialdi jardueren inguruan gaztetxoengan sortzen den pertzepzioa, dinamikak eta bizipenak arakatzeko xedearekin. Azkena, Donostiako Altza auzoan, bertatik bertara aisialdirako baliabideen, guneen eta dinamiken, zein beraien bilakaeraren berri jasotzea bertako agente eta gaztetxoen ikuspuntutik. Hiru ikerketa fokalizatu hauetan ugariak izan dira oso elkarrizketak, eztabaida taldeak eta bertatik bertarako behaketak; besteak beste, begirale eta entrenatzaileekin, irakasle eta orientatzaileekin, kale hezitzaile eta gazte teknikariek, eta noski, gaztetxoekin bildu eta luze-zabal mintzatu gara ikerketa monografiko hauetan zehar.

Azkenik, beharrezko informazioa behin bilduta genuela eta haren analisisa ere burutua genuela, kontrasterako bi bilera egin ditugu. Gazteen aisialdian arituak edota jakitunak direnekin egindako bilera hauen helburua, ikerketaren ondorio nagusiak beraiei aurkeztea, eta osatutako diagnosiaren elementu nagusiak beraiekin kontrastatzea eta osatzea izan da. Lehenengo analisi eta kontraste bileran kale hezitzaileak, begiraleak eta tabernariak parte hartu zuen; bigarreanean, gurasoak, irakasleak, orientatzaileak eta aisialdi taldeetako koordinatzaileak parte hartu zuten.

0.3 *Ikerketa txostenaren egitura*

Gaztetxoan aisialdiaz egindako ikerketaren berri ematen da esku artean duzun dokumentuan. Ikerketaren aurkezpen orokorra behin eginda, aipatu azterlanaren edukia hiru ataletan egituratua aurkezten dugu.

Lehenengo atalean, ikertaldeak jorratutako lanildoak eta autonomiaren ardatza aurkezten dira, analisiaren funtsezko euskarriak izan baitira biak. Lehendabiziko atalean, lanildoak, eta autonomiaren ardatza aurkezteaz gain, lanildoak autonomiaren ardatzean nola egituratzen diren azalduz, aisialdirako guneez ezberdinen berri ematen da, guneez konpartituak, monitorizatuak, birziklatuak eta berezko guneez, hain zuzen ere.

Bigarren atalean, aisialdiaren bizipena eta gazte izatea deitutakoan, gaztetxoan aisialdiaren elementu definitzaileak agertzen dira, eta haien harira, gaztetxoek aisialdian dituzten bizipenen eta balioen inguruko analisia. Aipatutako analisiarekin batera, bertan aztergai da aisialdiaren eta gazte identitatearen eraketaren arteko harremana; azkenik, aisialdian helduekiko zein beste gaztetxoekiko gertatzen diren bereizketa prozesuak ere bigarren atal honetan lantzen dira.

Hirugarren eta azken atala, ikerketaren emaitzen harira egindako gogoeten eta proposamenen atala da; zehatzago esanda, gaztetxoan aisialdian esku-hartze sozialaren eta instituzionalaren inguruan egindako gogoetak eta proposamenak dira bertan jasotzen direnak; lehenik, gazteei buruz hedatua dagoen irudikapen soziala aurkezten da, eta haren segidan, ikerketa honen egileek gaztetxoan aisialdiaren dinamizazioarako eta optimizazioarako orientabideak agertzen dituzte.

1. *Lanildoen aurkezpena eta autonomia ardatza: analisiaren funtsezko euskarriak*

1.1 *Azterketaren lanildoak eta beraien egituraketa autonomiaren ardatzean*

Modu laburrean izan baldin bada ere, ikerketa proiektua definitzeko eta, bereziki, informazio bilketa bideratzeko garaian funtsezkoak izan diren lanildoak –harremanak, espazioa eta jarduerak, alegia– jada sarreran aipatu ditugu. Halere, informazioaren analisisan eta ondorioen zehaztepenean lanildoek zedarritutako bidea erabakiorra izan denez, horien egituraketa prozesuan sakontzea merezi duelakoan gaude. Hori dela eta, euskarri izan diren elementu horien jatorria eta ikerketan zehar eman dituen fruituen berri eman nahi da atal honetan. Bertan harremanak, espazioa eta jardueren inguruko kezkak lanildo bilakatu ondoren, ikerketak horien inguruan zer nolako garapena izan duen azalduko dugu.


Bilakaera hori ulertzeko, prozesua bi maila ezberdinetan kokatua ikustea lagungarria dela uste dugu. **Alde batetik, plano orokorrari eta azalekoari erreparatzeko beharra ikusten dugu.** Horrela, laburki bada ere, ikerketaren inguruko ikuspuntu eta estrategiak egokituz nola joan diren ikusi ahal izango dugu. **Bestetik, ikerketaren ibilbidean elementu ezberdinen arteko elkarketa eta moldaketa nola suertatu den azaltzea komenigarria deritzogu.** Azken prozesu hau behar beharrezkotzat jotzen dugu, izan ere analisiari eta ondorioei heltzeko euskarri kontzeptuala eta analitikoa –tresna aztertzailea hain zuen ere– eman baitugu. Aipatu euskarri hori autonomiaren ardatza bezala izendatu dugu.

A. Lanildoen inguruko ikuspegi orokorra

Txosten honen sarreran aipatu dugun moduan, gaztetxoan aisialdiaren azterketari heltzeko garaian hiru galdera nagusi hartu genituen abiapuntutzat. Era laburrean, gaztetxoek beraien denbora libre NOREKIN? NON? eta ZERTAN? ematen duten jakin nahi genuen. Galdera horien inguruko erantzunak eta azalpenak nerabeen mundu-ikuskeran eta balioetan sakontzeko lagungarriak izango zirela pentsatu genuen.

Antzeman daitekeenez, itaun horien atzean gaztetxoan aisialdiarekin lotura duten harremanak, tokiak eta jarduerak ziren kezkak, hirurak ere denbora librearen gara-

penean funtsezkoak suertatzen baitira. Halere, hiru elementu hauek aisialdian duten berezko zentralitateagatik aipagarriak izateaz gain, ikerketa bera egituratzeko eskaintzen zuten aukerarengatik azpimarratu beharrekoak iruditzen zaizkigu. Gure ustez, lanildo bakoitzak esparru zehatz bat definitzen eta zedarritzen du, bertan zenbait elementu eta aldagai elkartzuz. Horren ondorioz, lanildo bakoitza definitzeak *barremanak*, *espazioak* eta *jarduerak* gaztetxoan aisialdian dituzten ezau-garrietan eta berezitasunetan sakontzea suposatzen du, eta bide horretatik jo du ikerketak hasieratik.



Hori dela eta, diseinu metodologikoa eta informazio bilketarako planteamenduari ekinez, ikerketa hiru lanildoen inguruan gorpuzten joan da, bakoitzean parte hartzen diuten agenteak, dinamikak eta aldagaietan sakonduz.

Esate baterako, *harremanen lanildoari* so eginez, ondorengo kezkek eta galderak izan dira -besteak beste- informazio bilketa bideratu dutenak:

- Non eta zeren arabera osatzen dituzte gaztetxoek euren arteko harremanak?
- Nolakoak dira gaztetxoek arteko harremanak? Nola definitzen eta baloratzen dituzte? Zer bilatzen eta zer aurkitzen dute harreman horietan?
- Lagunenak ez diren aisialdiko harremanak, zeintzuk dira? Helduen mundua nola ikusten dute? Haiekin dituzten harremanak nolakoak dira? Nola baloratzen dituzte? Gaztetxoentzat garrantzitsuak al dira harreman horiek aisialdian?

Espazioari dagokionez, lanildo hori bideratu dituzten itaunak horrelakoak izan dira:

- Denbora librean zeintzuk dira gustuko tokiak gaztetxoentzat (publikoak, pribatuak, bakarrik egotekoak, taldeka egotekoak,...)?
- Zeren arabera aukeratzen dituzte eta zergaitik daude gustura? Zer aurkitzen dute? Gaztetxoentzat sortutako espazioak (gaztetxeak, gaztelekuak, gazte bulegoak,...), gustukoak al dira? Zertarako? Zergaitik (ez) daude gustura?
- Zeintzuk dira modan dauden tokiak? Nolakoak dira? Zer dute erakargarri?

Azkenik, gaztetxoek aisialdian *jarduerek duten esanahiaz* eta edukiaz arduratu gara, ondoko galderak kokatu ditugularik kezken oinarrian:

- Zer dute gustuko egitea denbora librean? Zeintzuk dira astebarruko eta asteburuko aisialdiko jarduerarik gustukoak? Zer dute erakargarri?
- Nola ikusten dute alkohola, tabakoa edo beste drogen kontsumoa? Zeintzuk dira horien inguruko usteak eta esperientziak?
- Gaztetxoentzat antolatutako aisialdiko jarduerak: Zeintzuk ezagutzen dituzte? Nola baloratzen dituzte? Nolako da erakargarria egiten zaien aisialdiko eskaintza?

Planteatutakoez gain, hiru lanildoen gainean zenbait *galdera komun* irudikatu genituen. Horiek nerabeen aisialdiaren inguruko egungo adierazpenak ulertzeko eta etorkizunerako bidea aurreikusteko garrantzitsuak zirela uste genuen.

Aisialdiko harremanei, jardueri eta espazioei dagokienez, egiten dutenak asebetetzen dituzte? Zer utziko lukete? Zer egiteko? Egin nahiko luketena egiteko ze mugak dituzte?

- Eta aukerak? Zer beharko lukete?
- Gaztetxoek heterogenotasuna kontuan izanda, aisialdiaren inguruko aldagai, erreferente eta betenahien arabera tipologia egin liteke? Ze aldagaien arabera (herria/hiria, ikastetxea, sexua, maila sozio-ekonomikoa, talde antolatuetan parte-hartzea...)?

Galdera multzo honen inguruan egituratu ziren nagusiki eztabaida taldeak, baita elkarriketak eta gainontzeko ikerketa teknikak ere. Handik ateratako informazioa izan zen analisirako funtsezko materiala. Ikuspuntu horretatik, lanildo bakoitzak bere dinamika eta trataera berezia izan badu ere, batak bestarekin duen lotura estua kontuan izan da beti. Hori dela eta, lanildo bakoitzaren berezitasunak azalartzea ikerketaren hasierako estrategia egokia gertatu bazen ere, analisia garatzeko orduan elkarren arteko eragina eta erlazioa bilatzeari lehentasuna eman zitzaion. Hori ikerketaren garapenean beste aurrerapausoa izan zen, hiru lanildoak esparru autonomotzak hartu izate-tik egitura bereko zutabetzat jotzera eramán gintuen eta. Egitura hori gatzetxoen aisialdia ulertzeko sostengu nahikoa izan zitekela jakinda, horren berezitasunak eta ezaugarriak zeintzuk ziren jakitea bilakatu zen ondorengo kezka.

B. Lanildoen egituraketa autonomiaren ardatzaren inguruan


Kezka hori abiapuntu izanik, eta lanildo bakoitzaren inguruan informazioa bildu eta aztertu ondoren, analisirako beharrezkoa genuen eskemaren zertzeladak definituz joan ginen. Eskema horren erdigunean lanildoen arteko zubi lanak egiten zituen *autonomiaren ardatza* kokatzen zen, bere baitan harremanak, espazioak eta jarduerak batzen dituen zenbait aldagai bilduz. *Autonomiaren ardatzak* gatzetxoen aisialdian protagonismoa duten harremanen, espazioen eta jardueren esanahia bideratzen zituela ikusita, elementu horretan bereziki sakontzea erabaki genuen. Horren ondorioz, geroztik azterketa bera eta ondorioen garapena bideratu duen eskema nagusia osatu genuen autonomiaren ardatzean kokatutako aisialdiko *guneak* funtsezko elementu bihurtu direlarik.

Oinarrizko hiru galdera planteatuta (aisialdia, NOREKIN?, NON? eta ZERTAN?), lanildoen garapenari ekin zitzaion. Handik ateratako ondorioek *autonomiaren ardatza* definitzera eta irudikatzen eraman gintuzten, horren inguruan sortutako aisialdiko *guneen* sailkapena ikerketaren helburu eta betebeharrak nagusiei heltzeko lagungarria izango zelakoan. Ondorioz, gatzetxoen aisialdian sakontzeko asmoz eta *autonomiaren ardatza* erdigunean kokatu ondoren, lau aisialdiko *gune* ezberdin zehaztea erabaki genuen: *gune konpartituak*, *gune monitorizatuak*, *gune birziklatuak* eta *berezko guneak*. Gune horietako bakoitzak gatzetxoek beraien aisialdia gozamenaz eta autonomiaz bizitzeko era ezberdinetako aukerak ematen dituela kontuan hartu behar da.

Gune bakoitzaren inguruan txosten honetan zehar sakontasunez ariko garela jakinda, momentuz, bakoitzaren ezaugarriak zehaztea baino aisialdiko *guneen sailkapena* berak zein osagai eta berezitasun jasotzen dituen azaltzea komenigarri deritzogu. Horren bitartez, ikerketaren ibilbidean elementu ezberdinen arteko elkarketa eta moldaketa nola suertatu den argitu ahal izango dugu. Prozesu honetan bi alderdi izan dira protagonista: batetik, aipatutako *autonomiaren ardatzaren osaketa*. Bestetik, ardatz horren inguruan garatzen diren *bi indar edo tentsore*: bat harre-

manei dagokiena, bestea jardueri dagokiena. Azkenik, ardatz eta tentsoreen artean sortutako dinamikaren eraginez aisialdiko *guneak* egituratu ahal izan ditugu, bertan aisialdirako harremanei, espazioei eta jardueri dagozkien ezaugarri nagusiak integratuz.

Irudian azaldu nahi izan dugun moduan, *autonomiaren ardatzak* gaztetxoek aisialdia ulertzeko bizkar-hezurra da. Ardatzak *heteronomia* edo dependentzia du



mutur bateko punta; bestean *autonomia* kontzeptua kokatzen da. Hori dela eta, gaztetxoek *autonomia* muturrean kokatzen dituzten harreman, espazio eta jarduerak bere aisialdian gogoz bizi izaten dituztenak dira. Aldiz *heteronomia* edo dependentzi muturrean irudikatzen dituztenak, gehienek, ekidin nahi izaten dituztenak dira. Planteamendu honen ildotik, harremanei eta jardueri tentsoreen papera

eman nahi izan diegu, biek heteronomiaruntz edota autonomiaruntz abiatzen diren zenbait elementu jasotzen baitituzte. Espazioa ordea, tentsio horien bilgune kontsideratu izan dugu, aisialdiko *guneen* izana eta izaera isladatzen eta gorpuzten duena.

Tentsoreen azalpenarekin hasita, eta harremani erreparatuz, gaztetxoek beraien aisialdian helduekiko dituzten loturek dependentzi sentazioa sortarazten die. Horregatik beraietatik ihes egiteko bidea bilatzen saiatzen dira. Gaztetxoek ustez, helduak beraien aisialdian parte hartzeak erabakimena, kontrola eta boterea ezartzeko aukera suposatzen du gehienetan, eta horregatik saihesten dituzte harreman horiek. Jokaera horren islada ditugu aditu batek egungo gaztetxoek aisialdiaren inguruko joerak definitzeko garaian erabilitako hitzak:

“(Buscan) juntarse, que no les vea ningún adulto, que no les vean”

(Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa. Deustu).

“ellos quieren tener una caseta donde juntarse, que no entre ningún adulto, que no les vea nadie.”

(Elkarrizketa. Aisialdi talde hezitzaileetako koordinatzailea eta begiralea. Gasteiz).

Helduekiko harremanak heteronomia edo dependentziaruntz jotzen duen indarra baldin bada, gaztetxoek beraien arteko talde harremanetan tentsore horri aurka egiteko modua bilatzen dute. Bertan helduekiko autonomia aurkitzen dute, askatasunerako espazio bat irudikatuz. Gaztetxoek hitzetan eta irudietan taldeak hartzen duen zentralitate hain nabarmena izanik, taldea berak aisialdirako espazio bat osatzen duela esan daiteke. Horregatik, askotan zer, zertan edo non ematen duten aisialdia erantzuteko garaian *taldea* bera kokatzen dute erreferentzia nagusitzat, horrek *lagunen arteko* harremanen garapena, espazioa eta jarduerak elkartzeko gaitasuna duela adieraziz. Ideia horren adierazle ezinhobea begirale baten hitzetan dugu:

“Lagunak dira beraien (gaztetxoek) bizitza eta bidea.”

(Elkarrizketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz).

Harremanak aztertuta, autonomiaren ardatzaren inguruan topatu izan dugun bigarren tentsorea *jarduerena* da. Hori ere aipatutako bi indar nagusien artean gauzatu-tuko litzateke. Lehenengoak heteronomiaruntz joko luke, bertan helduek zehaztutako, finkatutako eta araututako jarduerak protagonista izanik. Hori horrela izanda, gaztetxoek betebeharrekin, disziplinarekin eta konpromisoarekin lotzen dituzte jarduera horiek, izan ere, gehienak eredu adultzentrikoari¹ jarraiki diseinatutakoak

¹ Konzeptu hau *-adultozentrikoarena* alegia- Joan Pallarés eta Carles Feixak erabiltzen duten gisara erabali nahi izan dugu guk ere. Egile hauek azaldutakoaren hariria, eredu *adultozentrikoa* helduen ikuspuntu, nahi edo behar ezberdinetatik diseinatutakoa litzateke, erdian gaztetxoek nahiak edo balioak baino gurasoena edo nagusiek dituztenak kokatuz. Konzeptu honen inguruan azalpen gehiago behar izanez gero, *ikus*: Feixa, Carles (2000): “Espacios e itinerarios para el ocio juvenil nocturno”. *Estudios de Juventud*, 50.

baitira. Beraien nahi eta desioetatik sortutakoak ez diren neurrian, horiei muzin egi-tea dute helburu, albora uzte hori autonomiaruntz abiatzeko beste aurrerapausua izanik beraientzat. Gurasoek edo helduek agindutako jardueraz beteta dituzte haur-tzaroko aisialdiaren inguruko oroimenak, eta, ondorioz, garai hori atzean uzteko nahiak ezinbesteko baldintza dakar: beraiek egin nahi dutena egin ahal izatea. Horrela adierazten zuen, hain zuen ere, ikerketan parte hartu duen gaztetxo batek:

“Abora buscas lo que quieres hacer y lo haces”.

(Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa).

Nahi eta desio horrek bultzatuta gaztetxoek beraien berezko jarduerak gauzatu ahal izateari garrantzi berezia ematen diote, aukera horretan beraien sormena eta jarduteko erak garatzeko bidea irudikatzen baitute. Lorpen horretan ere taldeak berebiziko papera beteko luke, lagun taldea elkargune propioa eraikitzeke abia-puntua bailitzateke. Lagunek, koadrila berak, jarduerak pentsatzeko, planifikatzeko eta garatzeko tokia eta unea eskaintzen dute. Horregatik izaten dira hain garrantzi-tsuak koadrilan egiten diren gauzak, eta koadrilak egiten dituen gauzak.

“Koadrilan badituzu leku batzuk joateko eta gauza batzuk egiteko”.

(Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredu. Gernika)

“Es un poco como si la cuadrilla sería el medio para hacer lo que yo quie-ro ¿no?”.

(Elkarrizketa. Aisialdi talde hezitzaileetako koordinatzailea eta begiralea. Gasteiz).

Ondorioz, koadrilan eta lagunaren artean egindakoa autonomia sentsazioekin lotzen dute nerabeek; helduek markatutako jarduera ereduetatik urruntze prozesuarekin, hain zuzen ere.

Gure eredu aztertzailearen azalpena bukatzeko, *autonomia* ardatzaren inguruan aipatutako harreman eta jardueren uztartzea zein den ikusita, indar eta tentsio horiek sortutako eremuan espazioa nola txertatzen eta egituratzen den aztertu behar genuen. Horretarako espazioa, harremanekin eta jarduerekin batera irudika-tzea pentsatu genuen, beti ere aldagai horrek *guneen* definizioan eta osatze proze-suan izan duen pisua nabarmenduz. Horrela, gaztetxoek beraiek aisialdiari buruz hitzegiteko garaian espazioari, eremu fisikoari eman izan dioten garrantzia isladatu-ta geldituko litzateke. Ideia horri helduz, hasieran espazio konpartituak, espazio monitorizatuak, espazio birziklatuak eta berezko espazioak izendatu genituenak, aisialdiko *gune* bilakatu ziren harreman eta jardueren aldagaiekin elkartu ondoren. *Gune* horietan biltzen dira beraz, gaztetxoek aisialdia definitzeko oinarrizko ele-mentuak, *autonomiaren ardatzaren* inguruan aisialdiko *guneek* hartzen duten kokapena *autonomia/heteronomiaren* polaritateari loturik agertuz. Orain arte azpimarratu dugunari begiratzen badiogu, kokapen prozesu horretan harremanek

eta jarduerak berebiziko rola betetzen dute, tentsore horien norantzak aisialdiko *guneen ardatzarekiko* harremana zeharo baldintzen baitu.

Gauzak horrela *espazio/gune konpartituak* deitu izan dugun kategoria helduekiko harreman estuengatik eta jarduera *adultozentrikoen* ereduengatik baldintzaturata egongo litzateke, *autonomiaren ardatzean* heteronomiaruntz gehien jotzen duen aisialdiko *gunea* izanik. Mutur horretara gehien hurbiltzen den bigarren aisialdiko gunea *espazio/gune monitorizatuak* dira. Aldiz, autonomiaruntz jotzen dutenak *espazio/gune birziklatuak* eta *berezkoak* bezala izendatu ditugunak izango lirateke, batean eta bestean gaztetxoek garatzen dituzten harreman mota eta jarduera ereduak nerabeen grina eta nahietatik gertuago kokatzen direlarik. Hori kontuan hartuz eta gaztetxoek hitzak eta adierei begiratzen badiegu, *berezko gune* horiek aisialdirako espazioa eta erreferente desiragarrienak direla esan daiteke, bertan gustoko jarduerak eta beharrezkotzat jotzen dituzten harremanak garatzeko aukera sentitzen baitute.

Ikerketak beraz, ikuspuntu estatiko baten ordean, planteamendu dinamikoa izan du beti iparrorratz. Hori dela eta, orain artekoa laburbiltzeko, haseran planteatutako galderak (aisialdia NOREKIN? NON? eta ZERTAN?) azterketaren norabide eta lantresna bilakatu ziren. Beste hitz batzutan esanda, HARREMANEN, ESPAZIOEN eta JARDUEREN lanildoak zehazteko aukera eman ziguten. Eta guzti honek analisirako eta ondorioen zehaztapenerako beharrezkoa zen eskema kontzeptuala definitzeko bidea eskaini zigun gerora. Eraketa eta definizio prozesu horren emaitzek osatzen dute txosten honen mamia, eta bertan gaztetxoek aisialdiaren inguruan osatutako *guneen* ezaugarriak protagonismoa eskuratzen dute. Aipatu den bezala, aisialdiko *gune* horiek sailkatzeko prozesuan harremanek, espazioek eta jarduerak *autonomiaren ardatzaren* inguruan sortutako dinamika eta tentsioak erdigunea osatzen dute. Hori dela eta, *autonomiaren ardatza* eta *aisialdiko guneen* antolaketa zertan gauzatzen bistaratzea litzateke datozen orrialdeetako helburua, beraiei erreparatzea ezinbestekoak jotzen baititugu nerabeek aisialdia bera definitzeko, eta aisialdiaren inguruko bizipenak eta esperientziak irudikatzeko eta azaltzeko.

1.2 Autonomia ardatzaren azalpena: autonomia versus heteronomia

Hona bitartean aurreratu bezala, informazioaren bilketan aurrera egin ahala, gaztetxoek aisialdiko harremanetan, espazioetan zein jardueretan etengabe azaltzen zitzaigun elementu esanguratsu bat: autonomiaren bilaketa. Hau da, gaztetxoek oso modu ezberdinean irudikatzen dituzte aisialdian dituzten harremanak, espazioak eta jarduerak baldin eta helduekiko dependienteak diren edo independenteak diren. Horrela, zenbat eta autonomoagoak izan lotuagoak ikusten dituzte euren

benetako aisialdiarekin; aldiz, zenbat eta heteronomoagoak irudikatu, orduan eta aisialdikoak ez diren beste erreferente batzuekin erlazionatzeko joera gehiago.

Bizipen-modu hori interpretatzeko orduan, beste autore askok egiten duten bezala, nerabetasuna eta gaztetasuna definitzeko funtsezkoa den plateamendua erabiliko dugu; hau da, nerabetasunean abiatzen da heldutasunera daraman trantsizio prozesua, hots, haurtzaroaren erabateko dependentziatik helduaren independentziara eta integrazio sozial autonomora daraman prozesua. Nerabetasunean biziki garrantzitsua bihurtzen da norbera nor den -identitate pertsonala- eta ingurune sozialean zein toki duen bilatzea.

Trantsizio prozesu hori historikoki eta kulturalki nahiko konstantea izateak, ez du esan nahi, aldiz, prozesu horrek ez duenik baldintzatzaile espezifikorik momentu historiko eta testuinguru sozio-kultural bakoitzean. Izan ere, gizartearen funtsezko instituzioetan (familia, hezkuntza, lan-merkatua, kontsumoa, komunikabideak eta teknologia berriak, administrazioa eta politika,...) jasandako aldaketek bere biziko eragina dute integrazio prozesu horretan. Aurrerago helduko diogu, beraz, hausnarketa horri: egungo nerabe eta gazteek nolako baldintzatzaile orokorrak dituzten gero eta luzeagoa bihurtzen ari den trantsizio horretan, integrazio sozial autonomora doan prozesu horretan. Atal honetan, aldiz, gaztetxoan aisialdiko bizipenak *continuum* bezala definitu dugun autonomiaren ardatzaren arabera interpretatuko ditugula interesatzen zaigu azpimarratzea. Eta, beraien aisialdiko harremanak, espazioak eta jarduerak ardatz horretan kokatu ditugun aisialdiko lau kategoria edo aisialdiko gunetan aztertuko ditugula: gunek konpartituak, gunek monitorizatuak, gunek birziklatuak eta berezko gunek. Ikus dezagun, zehaztasun gehiagoz, gunek hauen definizioa eta kokapena autonomiaren ardatzean.


1.2. Autonomiaren ardatzaren azalpena (1)



AUTONOMIAREN ardatza

- Gaztetxoan aisialdiaren egituraketa eta bizipena azaltzeko ezinbesteko euskarria
- Beraien aisialdiaren definizioa hezurmamitzen duena
- Gaztetxoan balio eta nahiak konprenitzeko ezinbestekoa

Esan bezala, 14-16 urteko gaztetxoek euren denbora librean dituzten jardun ezberdinei ematen dieten esanahia edo betekizunak azaldu ahal izateko eta, hortaz, euren aisialdiaren bizipena ulertzeko, ezinbestekoa iruditzen zaigu *continuum* bat irudikatzea -autonomiaren ardatza deitu duguna-, zeinean mutur batean aisialdiko gune heteronomoak aurkitzen ditugun eta beste muturrean gune autonomoak. Autonomiaren ardatza tresna aztertzaile gisa definitzen dugu, azterketarako lagungarria izan nahi duen tresna gisa, alegia. Halaber, bere baitan kokatuko dugun sailkapena eta kategorizazioa ideala da, ez erreala; errealitatean aurkitzen dugun dibertsitatea eta konplexutasuna askoz handiagoa da izan. Izan ere, logika aztertzaile baten arabera kategoria idealak definitzeak dibertsitatea eta konplexutasuna ordenatzen eta interpretatzen laguntzen digu. Errealitatean, aldiz, ez dago, seguru asko, kategoria baten ezaugarri guzti-guztiak beteko dituzten aisialdiko gunerik. Ikus dezagun, prebentzio edo zuhurtasun horrekin, nola definitu ditugun muturrak autonomiaren ardatzean: aisialdiko gune heteronomoak eta aisialdiko gune autonomoak.



Aisialdirako gune heteronomoak, espazio ordenatuak eta disziplinatuenak dira, normalean helduen gidaritzapean daudenak. Gaztetxoei emanda datorkie espazio horien antolaketa zein funtzionamendua, helduen esku dago bertan egitekoak antolatzea eta bideratzea. Gune horietan, gaztetxoek helduen (gurasoak, irakasleak, langileak,...) gainbegirapean daude, funtzionamendurako arau zehatzak daude eta jokoak (zer egin daiteke eta zer ez) oso definituak eta aurreikusteko modukoak dira. Aisialdiko gune autonomoak, ordea, espazio desnormatizatuak eta informalak dira, adierazpen libreagoa ahalbidetzen dutenak. Helduen begiradapean ez dauden guneak dira eta, zentzu horretan, kontrol soziala ez da nagusiki kanpotik ezarritakoa baizik eta erreferentziako taldearen baitan sortzen dena. Antolaketa eta


funtzionamendua gaztetxoek esku dago; hartara, gune autonomoetan gaztetxoak auto-antolatzeke eta auto-arautzeke joera daukate.

Bi mutur horiek definitzen duten ardatza eta tartean, beti ere *continuum* gisa, definituko ditugun kategoriak –gune konpartituak, gune monitorizatuak, gune birziklatuak eta berezko guneak– ezinbesteko euskarria iruditzen zaigu gaztetxoek aisialdiaren bizipena ulertzeko; hain zuzen ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, autonomiaren bilaketa delako beraien aisialdiaren definizioa hezurramitzen duena. Era berean, gaztetxoek lehentasunak, balioak eta nahiak konprenitzeko, autonomiaren ardatza oso erreferentzia lagungarria delakoan gaude.

Ikus dezagun, segidan, ardatzean irudikatu ditugun lau gune edo kategoria horietako bakoitzak zein aisialdiko agente eta jarduera barne-hartzen dituen.

1.3. Lanildoen egituraketa: Guneen aurkezpena

Autonomia-ardatzaren bi muturrak –heteronomiarena eta autonomiarena– erreferentzia bezala hartuta, ondorengo sailkapen honen arabera sailkatu ditugu gaztetxoentzat eragin eta signifikazio ezberdina dituzten aisialdiko guneak:



Arestian aipatu bezala, gune horien sailkapena baliabide aztertzaile bezala erabiliko dugu; izan ere, kategorizazio horrek bidea eman baitigu kategoria bakoitzean dauden aisialdiko guneak gaztetxoek nolako elementuekin signifikatzen dituzten ulertzeko -zer erlazionatzen duten gune bakoitzarekin- eta, horren arabera, nolakoak diren gune ezberdin horietan dituzten bizipenak. Azkenik, azterketa horretatik ondorioztatu ahal izango dugu, batetik, gaztetxoek nola definitzen duten aisialdia; eta, bestetik, zein balio, erreferente eta pentsamoldeetatik baloratzen dituzten aisialdiko gune horiek.

Azter dezagun, beraz, banan-banan, aisialdiko gune bakoitza gaztetxoek begi eta bizipenen arabera.

1.3.1. Gune Konpartituak

Gune konpartituen kategorian aisialdirako ondorengo gune hauek sailkatu ditugu: etxean eta familiaren baitan dagoen aisialdia; ikastetxeetan antolatzen diren aisialdirako eskolaz kanpoko jarduerak; gaztetxoek denbora librean erabiltzen dituzten gune instituzionalak: kiroldegiak, liburutegiak, kultur-etxeak eta gizarte-etxeak; eta, azkenik, kontsumorako gune berriak ere (merkataritza-zentruak eta ziberrak edo gune informatikoak).

Gune horiek guztiak elementu bereizgarriak badituzte ere, gaztetxoek irudikapenaren ikuspegitik badituzte ezaugarri bateratu batzuk ere. Jarraian aztertuko ditugun ezaugarri horiek dira, hain zuzen ere, gune konpartituen kategoria gorpuzten dutenak.

Lehenengo eta behin, beste adinekoekin elkartzen duten guneak dira, normalean helduekin batera (guraso, irakasle, teknikari, langile, beste adineko gazteak...) konpartitu beharreko aisialdiko denbora, espazioa, eta jarduera; gune hauetan ez dago, beraz, adin-tarte honetan asko baloratzen den elementu bat: helduen presentziarik gabe, bakarka edo taldeka euren kasa egotea:

“A veces sólo en casa se está muy bien.... si está vacía. Llegas, comes lo que quieres, haces lo que quieres, nadie te dice nada...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoak, A ereduak; kuadrila berekoak. Gasteiz).

“Este local antes era nuestra lonja, ahora no es lo mismo, no podemos fumar; no tenemos intimidad, antes podíamos hacer lo que queríamos” (Eztabaida taldea. Gazte-leku elkarterko lokalean; kuadrila berekoak. Bilbo).

Hortaz, mugaturik ez sentitzea eta “arauak etengabe ipintzen dituzten horiengandik” urruntzea gauza garrantzitsua kontsideratzen dute; pribatutasuna, intimitatea, protagonismoa euren izatea, horixe bilatzen dute, nahiz eta, “A veces...” horrek

1.3.1. Gune konpartituak (1)

Gune konpartituak

Etxea eta familia / Kiroldegia eta liburutegia,
Ikastetxeko eskolaz kanpokoak / Kontsumo-guneak

- Helduekin konpartitu beharreko aisialdiko espazioak eta denborak: ez da “euren aisialdia” (mugaturik: erabakimena, protagonismoa...)
- Ez dago euren identifikazio-ikurren arabera signifikatzeko aukerarik. Emanda datorkien horretan moldatu eta integratu behar dira.
- Arauak jarraitzearekin eta kontrolatuta egotearekin erlazonaturikoak; arauak jarraitzea ez dute aisialditzat hartzen.
- Helduen neurrirako mundua; nolabaiteko kontinuitatea, ez dago hausturarik, bereizteko aukerarik. Harreman kontraesankorrak.

adierazten duen moduan, bizipen hori kontraesankorra izan. Batzutan, urruntzea eta distantzia hartzea beharrezkoa ikusten dute euren askatasun pertsonala sentitzeko eta esperimintatzeko, baina beste askotan, aurrerago ikusiko dugun bezala, helduen presentzia behar dute euren kezkak eta zalantzak entzunak eta bideratuak izan daitezen.

Bestaldetik, gune konpartituetan gaztetxoek signifikatzen duten bigarren elementu bat da helduen esku egotea zer egin eta nola egin:

“Gurasoekin? Txangoak, toki politak ikusi, bazkariak.... Toki politak baina eurentzako, eb!” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredia. Gernika)

“Tampoco se puede hacer muchas cosas con los padres, sólo lo que les gusta a ellos” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredia. Leioa)

Zentzu horretan gurasoekin, irakasleekin edo begiraleekin egiten den aisialdia ez dute kontsideratzen “euren aisialdia”; lotuagoa ikusten dute betebeharrak familiarrekin

edo sozialekin hautu pertsonalarekin baino. Izan ere, kontrolatuta egotearekin eta arauak jarraitzearekin erlazionatzen dute aisialdi hori eta, ondorioz, denbora libre hori ez dute erabateko askatasunez bizitzen. Are gehiago, helduek esaten dutena egin behar duten neurrian eta haiekin batera egin behar duten neurrian, zaintzapean sentitzen dira, haurtzaroan bezala. Eta, azkeneko hau da, seguru asko, nerabe-

1.3.1. Gune konpartituak (2):

Etxea eta familia, ikastetxeko eskolaz kanpokoak, Kirolegia eta liburutegia, Kontsumo-guneak

Beste adinekoekin
elkartzen duten
guneak

- Helduen munduaren araberakoak: pribatutasunik ez, mugaturik sentitzen dira helduen presentziagatik. Ez dute “euren aisialdia” kontsideratzen.
- Harreman kontraesankorrak: urruntzea, distantzia (euren eremu pertsonala bereizteko) eta hurbiltzea, konfidentzia (kezkak eta zalantzak bideratzeko).

**Gune
Konpartituak**

- “A veces sólo en casa se está muy bien... si está vacía. Llegas, comes lo quieres, haces lo que quieres, nadie te dice nada...”
- “Tampoco se pueden hacer muchas cosas con los padres, sólo lo que les gusta a ellos”
- “Gurasoekin? Txangoak, toki politak ikusi, bazkariak..., toki politak baina eurentzako”
- “Esto antes era una lonja, ahora no es lo mismo, no podemos fumar, no tenemos intimidad, antes podíamos hacer lo que queríamos”.
- “Juntarse... que no entre ningún adulto, que no les vean”.

Helduen kultura
eta balio
dominanteak
adierazten dituzten
guneak

- Isladaten dute ingurune sozial hurbilean (gurasoak, gurasoen lagunak, auzoa...) indarrean dauden helduen rutinak, aurreikuspenak, harremanetarako konbentzioak.
- Gune formalagoak diren neurrian (eskola, liburutegia,...) ez dago euren lehentasun eta nortasunaren arabera signifikatzeko aukera. Integratu eta moldatu beharra.
- Helduengandik eta beste gazte-taldeengandik bereizteko aukera gutxiago.

tasunaren joera nagusienetarikoa bat: dagoeneko haurra ez zarela demostratzea (besteak eta norbere buruari), euren aginduetara ez zaudela azpimarratzea.

Gune konpartituetan gaztetxoek sumatzen duten hirugarren elementu definitzaile bat helduen kultura eta balio dominanteak adieraztea da. Ingurune sozial hurbilean (gurasoak, gurasoen lagunak, auzokideak, eskola, herriko edo auzoko liburutegia, kiroldegia,...) indarrean dauden helduen errutinak, konbentzioak eta aurreikuspenak antzematen dituzte. Gogorra egiten zaie helduen konbentziotan integratu beharra eta euren aurreikuspenei erantzun/moldatu beharra.

“Okerrena da euren (gurasoen) lagunekaz joan beharra. Eta beti berdin, nik ordainduko dut, ez nik, ez nik, ordu erdi bolan” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredia. Gernika)

Horrela, espazio formalagoak diren neurrian (eskola, kiroldegia, liburutegia, kultur-etxea) ez dute ikusten euren adierazpideekin, ikurrekin eta nortasun-adierazleekin signifikatzeko aukerarik (musika, estetika, erreferentziazko pertsonaiak,...)². Horrela, aurrerago ikusiko dugun bezala eta beste aisialdiko guneekin alderaturik, helduengandik edo beste gazte-taldeengandik bereizteko aukerak txikiagoak dira aisialdiko gune konpartituetan.

Arestian aipatu bezala, gune konpartituetan aisialdiko jarduerak helduen gainbegiraketa duten jarduera ordenatuak eta arautuak dira; ez dago, beraz, euren dibertsio-eredua sortzeko modurik; hau da, euren artean egotea kanpotik ezarritako arauak jarraitu gabe, kontrolik gabe. Hain zuzen ere, konbentzioetatik barre egitea eta arauarekin esperimendatzea, transgreditzea: zentzugabekeriak esatea eta lagunei ziriak sartzea barre egiteko (mutilen artean bereziki), ezusteko gauza debekatuak esatea edo egitea, haurtzaroan debekatua izan dutenarekin probatzea (erretzea, edatea, pelikula pornoak ikustea,...), eta egunerokoarekin hausten duten gauzak egitea.

“Lo mejor? Estar con los amigos y reírte, reírte de algo o de alguien, pero te ríes” (Eztabaida taldea. Gazte-leku elkartereko lokalean. kuadrila berekoak. Bilbo)

“Hacer el gamba para echarse unas risas” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoak, A eredia; kuadrila berekoak. Gasteiz).

“Lagunekin egiten dituzun gauzak gurasoek ezin duzu...” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredia. Gernika)

“Lo divertido es el desfase, ¡Qué caña!” (Elkarrizketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz)

² Beraien gela izan daiteke salbuespen bakarra: euren eremua den neurrian nahi duten ikurrekin apaintzen dute, askotan etengabeko tira-biran gurasoekin.

Esan genezake, informalidade, esperimentazio eta transgrezio giro horretan nolabaiteko haustura bilatzen dutela eguneroko errutina arautu eta errepikakorrekiko. Helduekin konpartitzeko diren aisialdiko guneetan, aldiz, haustura baino kontinuitatea aurkitzen dute eta, horrexegatik, aisialdiko gune horiek ez diete gogobetetzen euren aisialdirako.

Gune konpartituetaz gaztetxoek egiten duten irudikapen orokorra deskribatu eta gero, ikus dezagun orain gaztetxoek nola antzematen duten, aisialdirako gune beza-

1.3.1. Gune konpartituak (3): Etxea eta familia, ikastetxeko eskolaz kanpokoak, Kirolegia eta liburutegia, Kontsumo-guneak

Jarduera arautuak
eta disziplinuak
bultzatzen dituzten
guneak

- Helduen gainbegiraketa duten jarduera ordenatuak dira. Erabakimena eta progagonismoa ez da eurena: jokaerak oso definituak eta aurreikuspenen menpean.
- Haurtzaroan bezala, helduek esaten dutena egin behar dute, zaintzapean sentitzen dira: ordena eta arauak aisialdiaren antonimoak dira.
- Ez dago sortzerik gaztetetasunaren dibertsio-eredua: esperimentatu, transgreditu, egunerokoarekin hausten duten gauza berriak, intentsuak, ezustekoak.

**Gune
Konpartituak**

- “El tiempo libre... el tiempo en que... haces cosas que te gustan, fuera del colegio. Estar con los amigos en la calle” “Lo mejor? Estar con los amigos y reírte, reírte de algo o de alguien, de lo que sea, pero te ries”.
- “Aisialdia garrantzitsua da estresa ez eukitzeko, lasaitzeko, burua despejatzeko, deskantsatzeko” “el fin de semana es al revés de la semana y te pilla con muchas ganas”.
- “... hay muchas cosas para pasar el tiempo, pero pocas para divertirse...”.

Helduen kontrola
eta kudeaketa
duten guneak

- Ezin gozatu onenarekin: euren artean egotea kanpotik ezarritako arauak jarraitu gabe, kontrolik gabe: ziriak, zentzugabekeriak, barreak, erre, edan,...
- Helduen neurrirako mundua; nolabaiteko kontinuitatea, ez dago hausturarik, urruntzeko eta bereizteko aukerarik.

la, kategoria honen barruan sartu ditugun aisialdiko gune bakoitza: etxea eta familia; ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerak; liburutegiak, kiroldegiak eta kultur-etxeak; eta, merkataritza-zentruak eta ziberrak.

Etxea eta familia

Etxea eta familiari dagokienez, azterketa monografiko sakona eskatuko lukeen gaia izanda –familiaren instituzioan azken urteotan jazotzen ari diren aldaketak ez baitira nolanhikoak– ikerketa honetan, aisialdiari dagokion aspektu batzuk aipatuko ditugu. Oro har, gaztetxoek, etxean egotea jarduera indibidualekin erlazionatzen dute: beraien gelan egotea musika entzuten, etxeko lanak egiten, ordenagailuan, telebista ikusten,... Irakasle eta begiraleen ustez, egun, gaztetxoak etxean daudenean denbora gehiago daude bakarrik, aita zein ama lanean edo bes-telako jardueretan ari direlako; horrela, ohetik altxatzen direnean bakarrik egotea, edo bazkalorduan bazkaria prestatua edukitzea eta bakarrik bazkaltzea, lanbide liberaletan ari diren gurasoen familietan gero eta hedatuagoa omen dagoen joera da. Horrela, kasu horietan, gaztetxoen esku geratzen da denboraren antolaketa eta, beraz, autonomia eta askatasun gehiagorik antolatzen dituzte eguneroko errutinak. Horrexegatik, behar bada, gaztetxoek ez digute kezka edo kexa berezirik adierazi horren inguruan; ez dute uste denbora gutxi pasatzen dutenik gurasoekin, ezta gutxiago ere.

Gurasoak eta seme-alabak, beraz, denbora gutxiago elkarrekin. Horrela, telefono mugikorren bidezko etengabeko komunikazioa, gurasoak erabiltzen ari diren jarraipen modu berria dirudi; aurrez aurreko komunikazioan sumatu daitekeen beherakada kuantitatibo hori, guraso eta seme-alaben arteko erlazioetan nolako eragin kualitatiboa daukan, azterketa sakonagoa eskatzen duen gaia da, zalantzarik gabe. Izan ere, irakasle eta kale hezitzaileen ustez, gatazkak sortzen dituzten gaztetxoengan edo arrisku-portaeretan ari direnengan, sumatu daiteke aitaren, amaren edo irakaslearen irudiak, irudi erreferentzial moduan, ez daukala pisu askorik, eta gero eta distantzia gehiago dagoela lagun-taldearen edo komunikabideen beste irudien erreferentzialtasuna eta gertuko helduen erreferentzialtasunaren artean. Dena den, esan bezala, guzti honek duen eragin kualitatiboak hurbilpen eta azterketa zehatzagoa eskatzen du, zeren giza erlazioetan dagoen komunikazioa eta konfiantza, zalantzarik gabe, eguneroko elkarbizitzaren eta hurbiltasunaren emaitza ere bada. Zentzu horretan, alferrik izaten da konfidentziazko elkartruke pertsonala sortu nahi izatea, denbora, momentu eta esperientzia nahikorik partekatzen ez direnean; baina, beste aldetik, denbora gehiago elkarrekin pasatzeak ez du ziurtatzen komunikazioaren zubia sortzen asmatzea. Gaia are zailagoa da adin-tarte honetan: nola interpretatu daiteke gurasoen zentraltasun-eza, bilakaera pertsonalaren egin beharreko haustura gisa, ala gaurko bizimoduarekin lotua dagoen urrutitasun afektibo eta komunikazio faltaren adierazle bezala? Erantzunak, seguru asko, bietatik izango du.

Esan bezala, guk elkarrizketaturiko gaztetxoek ez dute insatisfakziorik adierazten gurasoekiko harremanetan. Are gehiago, betiko tira-birak egonda ere -etxera joateko ordua, ikasketak, etxeko elkarbizitzaren gatazka txikiak,...-, gaztetxoek gurasoekin harreman onak dituztela baieztatzen dute behin eta berriro, larritasun edo kezka berezirik ez datorkie hortik. Ikus dezagun, adibide gisa, eztabaida-talde batean gai honen inguruan gaztetxoek egin zuten irudikapena:

“- ...esto que estáis diciendo que tus padres te dicen esto lo otro, los deberes..., pero en líneas generales la relación que tenéis con vuestros padres...

- ...buena...

- ...yo muy buena...

- ...buena, buena...

- ...es que si no tienes buena relación con tus padres..., es que vives con ellos todos los días...(barreak) (algara)...pero la mayoría bien, por mucho que digan es que mis padres..

- ...pero, ¿habría cosas que estarían mejor si fueran de otra manera...?

- ...claro...

- ...sí, porque yo por ejemplo con mi madre estoy venga a discutir..

- ...yo siempre..., si estoy solo con mi madre estoy discutiendo todo el día...

- ...eso es típico..

- ...y me llevo muy bien con ella pero...

- ...yo también...

- ...es que ella no cede, aunque tenga yo razón, no cede..., yo soy así aunque ella diga que me calle yo le voy a decir algo porque sé que no tiene razón, como ella tampoco va a ceder..., me arrepiento pero no me puedo callar porque soy así y entonces tengo que responder.

- ...y..., entonces, si estáis muchas veces discutiendo porque decís que os lleváis bien...

- ...porque sí...

- ...es que es normal, eso es chorrada...

- ...igual empiezas a discutir y tienes una semana que estás discutiendo con ella, y luego pues pides perdón o pide perdón y...

- ...no es discutir de cabrearte con tus padres, de no hablarte, es una discusión por una chorrada (...)
- ...o sea, son cosas sin importancia, digamos...
- ...sí, son cosas que pasan porque tienen que pasar
- ...hay veces que igual..., pues si estás discutiendo con ella le dices pues no sé que no sé cuanto..., en cambio pues si estas bien con ella estas bien con ella, y ocurre eso, hasta que te enfadas con ella...
- ...de chorradas discutes pero de las cosas importantes te llevas bien...
- ...yo sí...
- ...sí...
- ...sí...
- ...también...
- ...con mi padre no...
- ...también es la edad porque ahora discutes con ellos lo que tienes que hacer, sí ahora te dicen que hagas algo que no hacías, “pues no, no lo voy a hacer”, y entonces te pones a discutir..., pero es eso que nosotros no cedemos...
- ...y luego como sales a la calle cuando quieres ya, como si te hubieses olvidado y sigues igual..., igual son muchas al cabo del día pero...
- ...pero que no llevan a nada...
- ...vosotros ¿también?, ¿os lleváis bien con...?
- ...sí...
- ...¿con vuestros padres aunque discutáis..., ¿discutís mucho?
- ...¡hombre!, por el mando a veces en la sala...(risas)...porque uno quiere ver una cosa...”

(Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredua. Leioa)

Gainerako eztabaida-talde eta elkarrizketetan ere antzeko irudikapena egin dute gaztetxoek. Deigarria egiten zaigu adierazten duten pragmatismoa gurasoekiko harreman horietan; hau da, ondo konpontzen dira, alde batetik, haiekin bizi behar dutelako eta eurekiko dependentzia dutelako “...es que si no tienes buena relación con tus padres..., es que vives con ellos todos los días...”, “Yo mientras me compren

ropa y comida no tengo ningun problema y ellos se sienten útiles” (Eztabaida taldea. Lagun-taldea Errekaldeko Gazte-leku elkartean. Bilbao.); eta, bestaldetik, garrantziko gauzetan galtzekoak dituztelako:

“...no es discutir de cabrearte con tus padres, de no hablarte, es una discusión por una chorrada” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

“...de chorradas discutes pero de las cosas importantes te llevas bien...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

Dena den, kezkatzen dituen eta gurasoekin tentsioa sortzen duena haiekin harreman helduagoak sortzea da. Hau da, gurasoekiko harremanetan haurtzaroko zaintza babeslea eta harreman asimetrikoa aldatzea:

“Te ven como pequeño cuando les cambias eso yo creo que ya...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijioso, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

“También es la edad porque ahora discutes con ellos lo que tienes que hacer” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

“...sí, son cosas que pasan porque tienen que pasar” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

Harreman helduagoak sortzeko ahalegin horretan bereziki jasangaitzak egiten zaizkie sermoi moduko monologoak edota galdeketa kutsuko solasaldiak: “que les coman la oreja, que les rallen” (Elkarrizketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz); zentzu horretan, sentitzen duten beharra da entzuteko gauza izango den solaskidea edukitzea zenbait momentutan, hau da, euren kezkek eta zalantzak epaitu barik entzuteko eta bideratzeko gaitasuna izango duen pertsona heldua:

“Yo cuando voy a cenar no quiero que me hablen quiero que me escuchen, pero con los padres es imposible siempre te contestan desde el punto de vista del padre o familiar...”

- ... yo hablo de todo menos de mis problemas. Mis problemas o me los como yo o se los voy contando a mis amigos o ... Si tuviese un hermano que me ..., pues se los pudiese exponer y todo, pero me saca siete u ocho años y ...

- ... ¿y por qué no hablamos de nuestros problemas con ellos? ...

- ... porque no te entienden ...

- ... ¿habéis probado? ...

- ... sí, sí, ...

- ... sí, yo sí que he probado a hablar con ellos, pero es que mis padres son muy así. Por ejemplo, no ... no le gusta que yo esté saliendo con un chico, y entonces yo no voy a ir dónde mi madre y le voy a contar: "ama, es que tengo un problema con él" ...

- ... mi madre es que con el tema de los chicos es que ...

- ... y luego encima es que, lo que más me fastidia es que no entiendan eso y luego te salte: "joye!, tu si dejas de ser virgen me lo cuentas y tal!" Y yo le salto: "A ver, para que te voy a contar eso si me vas a matar, si no me vas a entender" ...

- ... juy!, a mi madre no le digas eso ...

- ... escuchemos a Rober y a ... querías decir algo ...

- ... Roberto, tu creo que decías que hablabas con más normalidad con tu madre y con tus hermanas y ...

-... no, con mis hermanas nada, sólo a discutir. Mi madre, cuando nota que me pasa algo pues le suelo contar, pero es con mi padre que le suelo contar, que él sí que me ayuda, él sí que me entiende. O sea, ..."

(Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

Ikusi bezala, nerabeen artean askotariko egoerak eta kasuak daude, eta ez dira gutxi gurasoekin eta familia giroan gustora egonda, asteburuko eta oporraldiko planak etxeoekin egiten dituztenak. Bestaldetik, ez dira gutxi ere etxeo giroan komunikatzeko zailtasunak dituztenak; batzutan, euren kezka komunikatzeko eta entzuzko izateko premia, etxeoak ez diren beste helduekin asetzeko aukera aurkitzen dute, aisialdiko edo gazte-lekuetako begiraleekin, adibidez:

"... no sé, es que como que nos entienden más... les puedes contar lo que quieras, ya te va a entender, aunque sea más mayor te sabe dar la respuesta que tu te esperabas..." (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

"Ikusi behar dute gai horietaz berarekin bitz egiteko gauza zarela, entzuteko gauza zarela, sermoia botatzeaz aparte, behar den momentuan presente egoteko eta entzuteko gauza zarela; baina ez bazaude prest momentu horretan galtzen duzu aukera. Batzutan, oso galduta daude eta asko eskertzen dute norbait komunikatzeko, behar dute, sentitzen dira oso bakarrik hainbeste inkognita eta gauza berrien aurrean, eta orduan bilatzen zaituzte, nik batzutan "complejo de confesionario" daukat. Holakoetan zu hor egoteko behar handia daukate, heldu bat baina ulertu dezakeena, zubia jarri eta baita muga ere, biak behar dituzte"

(Elkarrizketa. Gazte-lekuko begiralea. Zarautz).

Ikastetxeko eskolaz kanpoko jarduerak

Gune konpartituen baitan sailkatu dugun bigarren aisialdiko gunea ikastetxea da, zehazkiago, **ikastetxeetan antolatzen diren eskolaz kanpoko jarduerak**. Gaztetxoek betebeharra erlazionatzen dute ikastetxearekin; notak, ardurak eta kontrolatua egotea, hain zuzen ere. Ikastetxea eurentzat denbora librearen antonimoa da. Zentzu horretan, aisialdiko gune bezala, gainditzeko zailak diren mugak ditu ikastetxeak.

“En el tiempo libre haces cosas que te gustan. Fuera del colegio. Estar con los amigos en la calle” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

Horrela, kirol-txapelketak, irteerak, ekintza kulturalak eta horrelakoen aurrean badago alde aurretiko errezelo, nagitasun eta ezkortasun moduko bat. Seguru asko, alde aurretik eurentzako programatutako edozein ekintzaren aurrean erakusten dutena, are gehiago jardueraren antolatzailea ikastetxea bada edo ikasketekin erlazionatzen dituzten irakasleak badira. Hain zuzen ere, hasierako errezelo eta erakargarritasun falta hori, batzutan, irakasle-arduradunen grina eta interesa kutsakorrarekin gainditzen dute: *“zerbait antolatzen baduzu, hasierako ezkortasuna gaindituz gero, ematen diezun neurrian erantzuten dute”* (Elkarrizketa. Institutuko irakaslea. Getxo)

Ikastetxearen antolaketa eta funtzionamenduari dagokionez, derrigorrezko hezkuntza 16 urtera arte luzatu zuen erreforma abiatu zenetik, badago gure lanaren adin-tarteari zuzenean eragin dion aldaketa esanguratsua. Lehen, 14 urterekin inflexio-puntu bat zegoen, lanbide heziketa edo institutoaren arteko hautua egin eta, batean edo bestean, funtzionamendu malguagoa eta helduagoa zeukan ikastetxe batean integratzen ziren. Orain, aldiz, 16 urtera arte berdin jarraitzen dute, 15 eta 16 urtekin eskolako funtzionamendu-arauekin jarraitzen dute (atsedenaldian ikastetxetik ezin atera, patioetan ezin erre, greba deialdietan ezin bozkatu,...).

“Orain eskolako funtzionamenduaren arauak 16 urtera arte eraman dituzte. Hori kostatzen zaie pilo bat, kartzela batean sentitzen dira” (Elkarrizketa. Gazte-lekuko begiralea. Zarautz).

Beste aldetik, ikasketak 16 urtera arte luzatzea derrigorrez, gaztetxo batzuei oso zaila egiten zaie, gogorra egiten zaie maila horretara ailegatzea; eta neska-mutil horiekin, irakasleek zein aisialdiko begiraleek harreman korapilatsuak izaten dituzte. Azkenik, gaztetxoekin lan egiten duten zenbait begiraleren ustez, formakuntzaren exigentzia eta presioa areagotzen ari da gazteentzat, gero eta handiagoa da. Horrela ikasketak, etxeko lanak, akademiak eta bestelako ekintza formatiboak aste barruko lan-dinamika estresantea sortarazten die. Hori zein puntura arte den horrela eta nolako harremana izan dezakeen aisialdia oso modu intentsoan eta deskontrolatuan bizi nahi izatearekin, azterketan gehiago sakontzea eskatuko luke. Guk gaztetxoekin egin ditugun elkarrizketa eta eztabaida taldeetan antzeman duguna

da gaztetxoek bere egiten dutela estresaren diskurtso bat, astebarruko lana elementu negatiboekin irudikatzen duena (presioa, kezka, nekea,...) eta asteburua idealizatzeko joera duena. Irratia eta beste komunikabideen bitartez etengabe berregiten diren estereotipoetan, astelehena egun iluna eta gogorra da, eta, beste muturrean, ostirala zein larunbata egun zoragarriak (emozioa, jaia, parranda,...). Errealitatea horrela izanda edo errealitatearen irakurketa sozial bat izanda, dirudenez, lana eta satisfakzioa ezkon ezinak bihurtzen ari zaizkigu, eta zoriontsuak izateko denbora libre itxaron beharra dago; ikus dezagun nola antzematen duten gaztetxoek aisialdiaren bizipena baldintzatzen dituzten irudikapen hauek: *“El tiempo libre es un deseo porque toda la gente esta esperando a que llegue siempre, todo el mundo esperando el verano, currando todo el año para esperar el tiempo libre en vacaciones. Toda la gente aborrra para disfrutar del tiempo libre, no sé...”* (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

Muturrera eramanda, astebarruko asteburura iristeko pasa behar den gurutzebidea da:

“Aisialdia zertarako? Estresa ez eukitzeko, deskantsatzeko, burua despejatzeko, golferiatan urteteko...” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredu. Gernika)

“- Lo mejor es el viernes porque tienes toda la alegría...”

- No lo mejor es el sábado.

- El domingo ya estas pensando que el lunes tienes que ir a clase, no hay mucho que hacer; no haces nada especial...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

“Oso markatua dute asteburua, ostiral arratsaldean daude subidoi ikaragarriarekin, alteratuak daude, ¡desfogue! Larunbata boom-a da” (Elkarriketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz)

Horrela, idealizazio horren eraginez, denbora librearen inguruan sortzen den espektatiba soziala, bereziki gazteentzat, ondo pasatzea eta dibertitzea da: *“Si no te lo pasa bien es como marginarte”* (Eztabaida taldea/Monografikoa. Aisialdi talde bateko partaideak. Donostia). Baina ondo pasatzea ez da soilik gustora egotea norbaitekin edo zerbait egiten, hori denbora pasatzea da; ondo pasatzeak intentsoagoa izan behar duela dirudi: barrea, algara, jaia, euforia, ebazioa, gauza zirrargarriak, emozionanteak, nobedosoak, egunerokotasunetik apartekoak, beste emozio eta bizipenak sortarazten dituztenak. Horrexegatik ere, gaztetxoek aisialdiaren inguruan etengabe adierazten duten kezka ez aspertzearena da; aisialdian, askotan, gauza berdinak egiten dituzte beti, eta hori aspergarria egiten zaie; ez badago ezer nobedoso eta emozionantea ezin esan dibertitzen ari direla eta ondo pasatzen ari direla. Alkohola eta beste drogen erabilera, seguru asko, dibertsio-eredu sozial hori

lortzeko bitarteko gisa ulertu daiteke; hau da, eguneroko errutinatik -modu aspergarri eta insatisfactorio batez irudikatuta- aparte dauden bizipenak eta emozioak edukitzeko bitarteko gisa: “alkoholaren efektua... nik uste dut beti laguntzen duela” (Eztabaida taldea. Aisialdi Taldea, Urizko udalekutan. Donostia). Aurrerago helduko diogu, modu osatuagoan, gaztetzok aisialdiaz egiten duen irudikapen eta definizioari, ikus ditzagun lehenago gune konpartitu bezala aztertu ditugun beste aisialdiko gune batzuk.

1.3.1. Gune konpartituak (4)

- “Te ven como pequeño, cuando les cambias esto yo creo que ya...”
- “... es la edad, ahora discutes con ellos lo que tienes que hacer”
- “No quiero que me digan, quiero que me escuchen”.

Etxea eta familia

- Familiarekin egotea ia obligazio moduan hartzen dute, aisialdia gurasoen presentzarik gabe lagunarteko denbora da.
- Gurasoekiko harremanetan, haurtzaroko zaintza babeslea eta harreman asimetrikoa aldatzea bilatzen dute.

- “... haces cosas que te gustan, fuera del colegio. Estar con los amigos en la calle”.
- “Zerbait antolatzen baduzu, hasierako ezkortasuna gaindituz gero, ematen diezun neurrian erantzuten dute”.

Ikastetxeko eskolaz kanpokoak

- Ikastetxea betebeharra da: notak, ardura eta kontrolatua egotea.
- Eskolaz kanpoko jardueretik errezeloa eta ezkortasuna. Konpromiso iraunkorra eskatzen duten neurrian, paso.

Gune konpartituak

- Toki irekiak eta erosoak.
- Informalagoak, euren kasa ibiltzeko aukera: kanpoaldean, joan-etorriak...
- Betebeharra eta aisiaren arteko zubia sortzeko aukera.

Liburutegia, kiroldegia

“mientras estudias estás con los demás, aparte de hacer lo que tienes que hacer, estas a tu aire”
“no a estudiar... están calentitos, es público y abierto”.

- Gune irekiak, informalak, estimulanteak; ordutegi zabalak, asteburuak barne.
- Toki entretenigarriak, beti dago zerbait ikusteko edo egiteko (dendak, makinak, zinema, bolera, McDonalds...)
- Teknologia berriekin (bideo-joko berri etengabeak, txat, e-mail,...) kolektiboki disfrutatzeko aukera.

Merkataritza-zentruak, ziberrak

“Solo hay tiendas y bares, si quieres pasártelo bien, a Garbera, pues, por hacer algo”
“típico sitio donde siempre tienes algo que hacer”

Gune instituzionalak: liburutegiak, kiroldegiak, kultur-etxeak

Gune konpartituen baitan ere sailkatu ditugu instituzio publikoek eskaintzen duten ondorengo aisialdiko azpiegitura hauek: kiroldegiak, liburutegiak, kultur-etxeak eta gizarte-etxeak. Gune hauen baitan egon daitezkeen gaztetxoentzako eskaintza edo aisialdirako zerbitzu espezifikoak (gazte-lekuak, egitasmo berezituak,...) gure sailkapenaren hurrengo kategoriaren baitan aztertuko ditugu, gune monitorizatuen baitan, alegia. Hurrengo lerroetan, beraz, liburutegia, kultur-etxea edo kiroldegia, gaztetxoek, beste edozein adinetako pertsonekin batera, erabiltzen duten aisialdirako azpiegitura gisa aztertuko dugu; eta, labur bada ere, deskribatuko dugu gaztetxoek nolako erabilera eta sinifikazioa atxikitzen dieten.

Lehenengo eta behin, aisialdirako gune bezala dituzten abantailak beraien sarrera irekia eta dituzten baliabideak dira. Toki publikoak eta irekiak dira eta euren erabilera eta funtzionamendua nahiko eroso eta malgua izaten da, aukera ematen die kanpoaldean egoteko edo nahi dutenean sartu eta irteteko (askotan etengabeko joan-etorriak), aparteko azalpenik eman behar izan gabe.

“Mientras estudias estas con los demás, aparte de hacer lo que tienes que hacer, estas a tu aire” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoak, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz)

Sarrera libre eta erosotasuna azpimarratzen dugu, kontuan hartu behar dugulako 14-16 adin-tarte honetan, tabernak ez direla oraindik egunerokoan elkartzeko eta egoteko erreferentzia, eta espazio eta lokalei dagokienez nolabaiteko hutsunea sentitzen dutela, horrexegatik adin-tarte honetan jazotzen den espazio birziklapena (kalea, arkupeak, aparteko tokiak,...) *“No tenemos donde estar, no tenemos donde ir; no somos niños para estar en el parque.”* (Eztabaida taldea. Institutua, D eredu. Getxo).

Gaztetxoek ikuspegitik azpiegitura edo zerbitzu publiko horiek denbora pasatzeko aukerak eta jarduerak eskaintzen dituzte, baina ez dira dibertziarako guneak. Ikastetxearekin konparatuta, euren kasa egoteko aukera gehiago eskaintzen dute eta, liburutegi edo kultur-etxearen kasuetan, ikastea eta aldi berean lagunekin egotea ahalbideratzen dute; baina, bertan egin beharrekoak beti izango dute testuinguru formala eta arautua. Horrexegatik, liburutegia edo gizarte-etxea erabiltzen dutenean, beraien irudikapenean, bertan egiten dutena denbora-pasa da, ez “euren aisialdia”.

“En Vitoria hay muchas cosas para pasar el tiempo pero pocas para divertirse, en el centro cívico pasas el tiempo pero no te diviertes” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoak, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz)

Aurrerago ere, gaztetxoei zuzendutako aisialdiko eskaintza espezifikoak aztertuko dugunean (Gaztelekuak, aisialdiko taldeak, gaueko programak,...), berriro aztertuko dugu denbora-pasa eta dibertziaren arteko ezberdinketa zorrotz eta esanguratsu hori.

Merkataritza-zentruak eta ziberrak

Azkenik, gune konpartituen kategoriaren barruan ere sailkatu ditugu beste izaera batekoak diren baina gaztetxoek helduekin batera erabiltzen dituzten kontsumo-guneak: merkataritza-zentruak eta ziberrak edo gune informatikoak. Merkataritza-zentruari dagokionez, gaztetxoek aisialdirako gune bezala ematen dieten signifikazioa lotua dago eguneroko espazioa eta errutina haustearekin; hots, zerbait ezberdina egitea beti entretenigarriak suertatzen diren merkataritza-zentruen bitartez: “Si no, estas todo el tiempo en el mismo sitio, en el barrio” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

“Aquí sólo hay tiendas y bares, si quieres pasártelo bien, a Garbera, pues, por hacer algo” (Eztabaida taldea. Kuadrila berekoak. Altza auzoa. Donosti)

Izan ere, ordutegi zabalak dituztelako eta asteburuetan ere sarrera irekia dutelako, merkataritza-zentruak beti daude irekita eta, gaztetxoek begietara, beti dago zerbait ikusteko edota egiteko: dendak, makinak, zinema, bola-tokia, McDonalds, ... Gaztetxoentzat helduentzat diren bezala- oso toki estimulanteak dira; gauza asko daude, nobedosoak, egunerokoak ez direnak. Ez dago aspertzeko aukerarik.

Ziberrak eta gero eta gehiago zabaltzen ari diren gune informatikoak (ziber-kafeak) teknologia berriekin esperimintatzeko aukera eskaintzen diete gaztetxoei (bideojoko berri etengabeak, Internet-eko Web orriak, txat, e-mail, ...). Jakina denez, komunikazioko teknologia berriek sortzen duten erakarpena oso handia da gaztetxoentzat eta gune hauek, gainera, ez soilik bakarka lagun-artean disfrutatzen aukera ere ematen diete. Horrela, zenbait tokitan, gune hauek erreferentziatzeko bilgune bat bihurtzen ari dira nerabeentzat; toki askotan, makina-aretoak diren edo izan diren moduan.

Gure azterketa honetan oso hurbilpen mugatua egin diegu gune berri hauei, baina, aurrera begira, azterlan monografiko zehatzago beharko duten espazioak dira.

1.3.2. Gune Monitorizatuak

Autonomiaren ardatzean, gune konpartituen ondoren, beraiek dira gune heteronomoetatik hurbilen dauden guneak.

Kirol eta kultur taldea, aisialdi taldeak, gaztelekuak eta, aisialdirako egitasmo bereziak (Donostiako Gau-On, Gasteizko Gauekoak eta Bilboko Bilbo Gaua) dira gune monitorizatuen kategoriatipoan bildu ditugun aisialdiko guneak, beti ere, gaztetxoek irudikapenei jarraiki.

Gune monitorizatuak gaztetxoek beraiek adierazitakoaren arabera zertzelatuz, gaztetxoek aisialdirako helduek, propio sortutako azpiegiturak eta jarduerak lez karakterizatzen dituzte. Hartara, gaztetxoek aisialdian egitekoak diren jarduerak helduen ikuspegitik antolatuak dira. Gainera, jarduera eta aisialdirako aukera horiek egoitzetan

kokatuta egoten dira, eta, gehienetan, begirale baten ardura izaten dira bertan egitekoak zaintzea eta suspertzea. Hartara, egituratutako edo programatutako ekintzak eskaintzen zaizkio bertan gaztetxoari. Bestalde, neurri handi batean, heziketa ez formalarekin lotutako egitasmoak izaten dira, zenbait trebetasun eta gaitasun optimizatzeko helburua izaten duten heinean. Bide horretatik, gune monitorizatueta aisialdia planifikatutako jardueren gauzapenean oinarritzen da, hau da, denbora eta espazio horretan bertan bildutakoak, planifikazio baten barnean, aurrez zehaztutako ekintza bat aurrera eramateko elkartzen dira. Esaterako, kirol talde baten entrenamenduan, edo aisialdi talde baten bileran, elkartzen direnen jardura aurrez egindako ekintza-programa baten barnean du zentzua, ikasturterako egitasmo batean edota temporaldi batean hain zuzen ere. Salbuespena, aspektu horietan, aisialdiko talde hezitzaileak lirateke; izan ere, jardura edo ekintzen inguruan baino, gaztetxoekin batera definitutako proiektu hezitzaile baten inguruan egituratzen baitute euren lana.

Gune monitorizatueta aisialdiko jarduerak gaztetxoek aukeratuak izaten dira gустuko dituzten neurrian, baina beraientzako gogokoak izateaz gain, konpromisoa ere eskatzen dieten jardunak lez irudikatzen dituzte. Kirol taldeko, musika eskolako edo aisialdi taldeko jarduerak egiten dituzten gaztetxoek, esate baterako, gogokoak dituzte, baina bertara joateak esfortzua eta jarraikortasuna eskatzen duela nabarmentzen dute.

1.3.2. Gune monitorizatuak (1)

Gune monitorizatuak

Kirol eta Kultur taldeak / Gaztelekuak

Aisialdi taldeak / Aisialdirako egitasmo bereziak

- Gaztetxoek aisialdirako helduek, beraien ikuspegitik, propio sortutako eta antolatutako azpiegiturak eta jarduerak.
- Egoitzetan kokatutako aisialdi egituratua, eta begiraleen ardurapean.
- Heziketa ez formalarekin lotutako egitasmoak, planifikatutako jardueren gauzapenean oinarritua.
- Gustukoa gaztetxoentzat baina konpromisoa eskatzen duena.

“lo haces porque quieres,...pero...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

“el deporte te come media semana” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

Gune monitorizatuetakoa aisialdia araututako eta zaindutako aisialdia lez bizi dute gaztetxoek; programazioa baten hariari jarraitzen diote bertako jarduerak eta zenbait begirale, entrenatzaile edo irakasle dira jarduera horiek bideratu eta zaintzeko erantzunkizuna dutenak. Horrela, aisialdi jarduera horietan badira bete beharreko hainbat jokamolde eta arau. Beraz, gune monitorizatuetakoa aisialdi

1.3.2. Gune monitorizatuak (2). Kirol eta Kultur taldeak, Aisialdi taldeak, Gaztelekuak, Aisialdirako egitasmo bereziak

Helduen ikuspegitik gaztetxoentzako antolatutako aisialdia

- Helduek planifikatutako eta egituratutakoa
- Helduen denbora antolaketak (lan-ordutegiak) baldintzatuta
- Araututako eta zaindutako aisialdia (programazioa, begiraleak); arauak eta disziplina maila ezberdinetan

Gune monitorizatuak

- “Pasas la tarde”, “... vas a un club de por ahí, y ya te pondrán cualquier cosa...”.
- “... beti dago exigentzia puntu bat...”.
- “ikusten da doazela teledirijiturik...”.
- “... beraiek ikusi behar dute ahalegindu zarela beraiekin egoteko”, “... egoteko, presenteak izateko”

Begiraleen ardura

- Gaztetxoek begietara helduen ordezkari batek bideratua
- Topaleku eta bilgune bihurtutako gune hornituak (jolasa, Tb, musika...)
- Begiralearen hurbitasuna eskertzen dute (entzulea, konfidentea, laguna)

jardueretan disziplina eskaerak ere izaten du bere lekua, maila ezberdinetan bada ere.

“Buscan estar a su rollo, eso es lo que buscan,...y encuentran todo lo contrario, ...actividades dirigidas, marcadas, y todo el mundo piensa por ellos” (Elkarrizketa. Europa Gizarte Etxeko monitorea. Gasteiz).

Begiraleen ardurapean dauden guneak izan ohi dira aisialdiko gune monitorizatuak. Gaztetxoek begietara, aisialdi jarduera horiek zaintzapean bideratzen dira. Begiraleak gune monitorizatuak erdigunean daude eta bertan sortzen den harreman-sareko aktore funtsezkoak dira, jardueraren gauzapenerako zein gaztetxoenganako harremanerako. Horrela, gaztetxoek begiralea zein eta nolakoa den oso konfiantza hartzen dute gune horretara hurbiltzerakoan edota jardueraren baten parte hartzerakoan. Gaztetxoek begiraleek beraienganako erakusten duten hurbiltasuna aintzakotzat hartu eta eskertzen dute. Sarritan, begiraleari entzulearen, konfidentearen eta lagunaren papera esleitzen diote gaztetxoek:

“...beraiek ikusi behar dute abalegindu zarela beraiekin egoteko...egoteko, presenteak izateko” (Elkarrizketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz)

Orain artekoak gain, esan beharra dago, gune monitorizatuak lez izendatzen ditugun aisialdi espazioak jarduera zehatz bat egiteko bertaratzeko guneak izateaz aparte, gaztetxoentzako topaleku eta bilgune bihurtutako guneak ere badirela. Alde bateatik, eremu horiek aisialdirako baliabideekin ondo hornituta egon ohi direnez (jolasak, telebista, musika,...), gaztetxoek gustukoa izaten dute beraien denbora librean bertan ematea lagunekin batera.

“...vienes y no estás...no estás aburrido”///“pasas la tarde...” (Eztabaida taldea. Europa Gizarte Etxeko erabiltzaileak. Gasteiz).

Bestalde, gune horiek, itxita daudenean ere, gaztetxoak elkarrekin topatzeko eta biltzeko puntu bezala funtzionatzen du; gaztelekuetako atariak, adibidez, kuadrilako lagunak elkartzeko erreferentzia lekua izaten dira sarritan.

Gune monitorizatueta gaztetxoak gerturatzen badira bertako jarduera ezberdinak beraietzako gustukoak direlako da. Horrela, gaztetxoek zaletasunekin bat datozelako aukeratzen dituzte (dantza, pintura, antzerkia, musika, kirola, bertsolaritza,...) gune monitorizatueta zaletasun horiek lantzeko eskaintzen zaizkien egitasmoak. Horretaz gain, eguneroko denbora bertan emateko bilgune gogokoak izatea da egitasmo horietara urreratzeko beste arrazoi bat; zehatzago esateko, bilgune horiek esperientzia eta harreman berrietarako bidea ematen dutelako dituzte laketa, beste gaztetxo eta heldu batzuk ezagutzeko modua izaten baitute bertan. Gainera, gune horietan, gustuko denbora-pasaz aparte, zenbaitetan dibertsioak ere izaten ei du lekua.

1.3.2. Gune monitorizatuak (3). Kirol eta Kultur taldeak, Aisialdi taldeak, Gaztelekuak, Aisialdirako egitasmo bereziak

Gustukoa eta konpromisoduna

- Eguneroko denbora bertan emateko bilguneak; esperientzia eta harreman berrietarako bidea (beste gaztetxoekin zein helduekin)
- Zaletasunak lantzeko egitasmoak
- Ekintza berezietan dibertitzeko aukera

Gune monitorizatuak

- "(Gizarte Etxea) etortzen dira jolastera edo 'para rellenar', extraeskolarra izango balitz bezala"
- "... participar en un grupo de tiempo libre supone un compromiso importante"
- "(bertsolaritza ikastaroak)... egiten dituzu lagunak, eta ikasi, maisuengandik, eta asko, baina ez bakarrik bertsolaritzari buruz..."

Planifikatutako jardueren gauzapenean oinarritua

- Bideratutako jarduera alternatiboak, aukerakoak
- Helburu hezitzaileak dituzten jarduerak; zehaztutako eta mugatutako egitekoak
- Gaztetxoa partehartzaile edo jasotzaile paperean gehienetan, ez sortzailearenean

"...egiten dituzu lagunak, eta ikasi, maisuengandik, eta asko, baina ez bakarrik bertsolaritzari buruz..." (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredua. Gernika)

Aurreratu bezala, gune monitorizatuak aisialdiko jarduerak gaztetxoentzako bideratutako jarduerak dira, jarduera horiek edota beraietako zein egin gaztetxoentzako aukera da. Nerabeek jarduerak egin ala ez aukeratzeko modua badute ere, gune monitorizatuak, aurrez, programazio eta planifikazio baten harira, zehaztuta eta mugatuta daude bertan egitekoak zer-nolako jarduerak izango diren. Bertan aisialdian egiteko jarduera horiek era ezberdinetako helburu hezitzaileak dituzte bete asmotan. Bestalde, neurri batean aurrez mugatutakoak izatearen ondorioz, gaztetxoa partehartzailea edo jasotzailea izaten da batipat;

1.3.2. Gune monitorizatuak (4)

“Lagunak egiten dituzu...”; Jendea ezagutzeko...”
 “Ariketa fisikoa egiteko..., ikasketak ahazteko...”
 “... el deporte te come media semana”
 “... lo haces porque quieres, ... pero...”

“... cuando eres pequeño... en sitios así haces lo que quieren ellos... ahora buscas lo que quieres hacer y lo haces... no tienes que ir a...”
 “... aberasgarri... rutinatik irten”.
 “... para ellos eres un modelo, ... vas, vienes, entras, sales...”
 “el monitor@ no es viej@... hace un poco lo que quiere...”.

Kirol eta kultur elkarteak

- Gustuko lagunartekak eta jarduerak, konpromisoa eta ahalegin iraunkorra eskatzen dutenak
- Aisialdia egituratzen dute, astebitarte zein asteburukoa
- Harreman berriak sortzeko bidea
- Formaziorako eta garapenerako positiboa

Aisialdi taldeak

- Gaztetxoek haurtzaroaren oroigarri zaintza eta dependentziaren oroigarri
- Lagunarteko harreman aberasgarria
- Begiraleak gaztetxoentzako eredu

Gune monitorizatuak

- Azpiegitura eta funtzionamendu malgua eta irekia duten guneak, denbora pasarako ondo hornituak
- Ekintza interesgarriak eta konpromiso gutxikoak
- Biltzeko lekua, lagunekin gelditzeko
- Begiraleekin askatasunez hitz egiteko modua; hurbiltasuna

- Taberna eta diskoteken osagarri, ez alternatiba
- Tarteka ekintza bereziak frogatzeko; taldekoekin bertaratzeko, noizbehinka
- Beste gaztetxoekin aurkitzeko tokia, jendea ezagutzeko

Gaztelekua

“Hay una sala y un cuidador”,
 “Está bien(...) tiene fútbolín, ping-pong...”
 “Bihurtzen da topagune”
 “Pasar la tarde”
 “... un monitor... un confidente...”
 “... heldu bat... al que pueden acceder”
 “... etortzen dira beraientzako bakarrik den leku bat delako”

Egitasmo bereziak

“... quieres que sea un espacio de encuentro, para estar con otros jóvenes, para conocer gente...”.
 “a esta edad la mayoría vienen en grupo”
 “... una opción dentro de mi circuito de diversión, puedo ir al Aldabe”
 “... los bares no se pasarán de moda...”
 “un sábado a la noche no es para ir allí, sobre todo si vas pedo...”.

paper hori betetzea egokitzen zaio gehiagotan jardueraren sortzailea izatearena baino.

“...vas a un club de por abí, y ya te pondrán cualquier cosa...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

Ondoren, gune monitorizatuen kategoriaren barnean bildu ditugun aisialdiko gune ezberdinetan pausatuko dugu begirada. Beraz, kirol eta kultur elkarteak, aisialdi taldeak, gaztelekuak eta aisialdirako egitasmo bereziak gaztetxoek aisialdirako zer eskaintzen dieten laburbilduko dugu.

Kirol eta Kultur Elkarteak

Gaztetxoek gustuko lagunarteak eta jarduerak aurkitzen dituzte bertan. Ereku horietan gustukoa duten ekintza bat egin ahal izateaz gain, lagunak ezagutu edo egiteko bidea izatea pizgarri garrantzitsua da gaztetxoentzat, jende berri asko ezagutzeko irrikitan egoten baitira gehienak, eta horretarako aukera izaten dute kirol eta kultur elkarreetan.

“...lagunak egiten dituzu...” “...jendea ezagutzeko...” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredu. Gernika)

Kirolaren edota kulturaren adierazpen ezberdinei lotutako aisialdi jarduerak, harreman berriak sortzeko ezezik, beraien formaziorako eta garapenerako ere positiboak direla adierazten dute gaztetxoek.

Elkarte horietara beraien gogoak biltzen baditu ere, beraietan jarduteak konpromisoa, esfortzua eta ahalegin iraunkorra ere eskatzen duela antzematen dute. Esandakoaz gain, kirol eta kultur elkarreetako jarduera horiek astebitarrean duten denbora librearen egituratzen dute, eta asteburuetakoa ere bai sarritan (kirol partiduak edo emanaldiak direla eta).

“...lo haces porque quieres,... pero...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

“...entrenamenduetan asko sufritzen duzu...” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredu. Gernika)

Aipagarria da, gaztetxoek zein gurasoen aipamenak hona ekarriz, beraien aisialdian kirol jardueretan parte hartzen duten gaztetxo askok kirol jarduera horren inguruan osatzen dutela kuadrila. Horrexek berak duen garrantziaz eta ondorioez gain, azpimarratzekoa da gaztetxo horientzat kirolak daukan garrantzia beraien aisialdia egituratzeko garaian, zein beraien bizikerari eta identitateari forma ematerakoan.

Presente edukitzekoa da gainera, aisialdia eta haren erabilera aztertzerakoan, aisialdi jardueren artean kirolak berebiziko erreferentzia bihurtu dela, ez baitago aisialdiaz hitz egiterik kirol jardueren inguruko dinamika zertan den azaldu gabe.

Azkenik, ezin ahaztu, nerabe askok, hainbat urtetan kirola egiten aritu ondoren, kirola egiteari uzten diotela nerabezaroan. Kirol jarduerak gaztetxoek garapenean izan dezakeen betekizun erabakiorra kontuan hartuz, kirolaren mundutik urrun-tzea nerabezaroan hain arrunta izatea azpimarratzekoa eta bereziki hausnartzekoa dela iruditzen zaigu.

Aisialdi Taldeak

Aisialdi taldeek, egun beraietan parte hartzen ez duten gaztetxoei haurtzaroa oroitazten die, ume zireneko garaia eta beste nonork zaindu behar zieteneko garaia. Atzera utzitako garaiarekin batera, albo batera utzitako aisialdirako aukera bezala irudikatzen dute, Norberak zer egin nahi zuen ez zekienean beste norbaitek esandakoa egitea aukeratzen zen garaiarekin lotzen dituzte aisialdi taldeetako jarduna. Baina, egun, beraien egin nahiak beraiek bideratzeko gai direla aldarrikatuz, aisialdiko denbora aisialdi taldeetan ematea ez dute gustuko aukera lez ikusten.

“...cuando eres pequeño...en sitios así haces lo que quieren ellos...ahora buscas lo que quieres hacer y lo haces...no tienes que ir a...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

Talde hauetan parte hartzen dutenek, aldiz, aisialdi taldeetako esperientzia eta girotik lagunarteko harreman aberasgarria azpimarratzen dute. Gaztetxoek dituzten kezkek elkarrekin hitz egin eta hausnartzeko aukera eskaintzen die aisialdi taldeetako jardunak. Gainera, eguneroko errutinatik irteteko era ere eskaintzen die aisialdi mota honek. Esatekoa da, aisialdi taldeek antolatzen dituzten jardueren artean nerabe gehien biltzen dituztenak udalekuak izaten direla; urte osoko jarduerak baino arrakasta nabarmen handiagoa izaten dute udalekuek.

Bestalde, aisialdi taldeetako begiraleak oso aintzakotzat hartzen dituzte gaztetxoek; beraietzako erreferente eta eredu oso garrantzitsua dira. Begiraleengan gauzatuta ikusten dituzte beraien egin- eta izan-asmoetariko asko (heldutasun gaztea, gurasoekiko independentzia, ekintzak antolatzeko gaitasuna, bidaiak egitea, joan-etorrian ibili kontuak inori eman behar izan gabe...).

Egungo nerabe gehienentzako aisialdi taldeek duten erakargarritasun eskasa ulertzeko, alde batetik, nerabeek biziari berri bat abiatzeko duten gogoaren eskutik, haurtzaroan bizi izandakoak atzera uzteko duten gogoaz jabetu beharko genuke. Hartara, aisialdi taldeetako jarduna aurreko biziarekin lotzen dutenez, beraien egungo aisialdian ez diete lekurik ematen. Baina, bestalde ere -ikertalde honek

Gipuzkoako aisialdi antolatuz egindako azterlanean³ oinarrituz-, esan genezake, oro har, eta baita aisialdi taldeetatik egiten den eskaintzari bereziki erreparatuta, 12 urte bitartekoentzat aisialdi eskaintza oparoa dagoen bezala, 12-16 urtekoentzat aisialdirako alternatibak eta erreferentziak falta direla. Gainera, nerabeentzako aisialdi eskaintza erakargarria lortzeko dauden arrazoien artean gaztetxoek gurariekin asmatu ez izana ere badago; euren autonomia bilatzen ari diren gaztetxo hauek ez baitute euren aisialdia gidatu eta babestuko dieten begiraleak eskatzen, euren gustuak eta interesak bideratzeko, beraien partaidetzarekin eta beraien interesekin enpatizatzeke gai izango diren dinamizatzailleak edo erreztatzailleak baizik.

Gaztelekuak

Funtzionamendua eta begiraleekiko harremanen arabera Gaztelekuak gaztetxoentzat azpiegitura eta funtzionamendu malgua eta irekia izan dezaketen gunek dira ala beraien aisialdiko ibilbidetik kanpo dagoen azpiegitura. Gaztelekuak nolabaiteko erreferentzialtasuna lortzen badu Gaztetxoek bertan eman dezakete denbora libre, gaztelekuko gunek eta baliabideak erabiliz zeregin ezberdinetarako. Gazteleketan antolatzen diren tailerrak eta ikastaroak ugariak eta interesgarriak izaten dira gaztetxoek zaletasunen ikuspegitik; gainera, urte osoko jarduerak ez direnez izaten, ez eta aparteko prestaketa eskatzen dutenak ere, konpromiso gutxiak izaten dira. Gaztelekuan antolatzen diren tailerrak eta ikastaroetan parte hartu ahal izateaz batera, gaztelekuak jolasekin ondo hornituta egon ohi direnez, aisialdia bertan emateko aukera ona izan litezke.

Aipatzekoa deritzogu gaztelekuen artean ez dagoela eredu finko bat; gaztelekuak era askotarikoak izan litezke funtzionamenduari, egiturari zein antolaketari dagokionean. Eta gazteleketaz hitz egin diguten gaztetxoek zein begiraleek, argitu digute gazteleketik gaztelekura alde handia egon litekeela, eta azken finean, gaztelekuek arrakasta eta onarpen maila ezberdina izan dezaketela gaztetxoek artean. Honen harira, badira bi aldagai gaztelekuen onarpenean edo arrakastan zeresana dutenak; bata, bertara biltzen diren erabiltzaileen adinari lotutakoa, bestea, jardueren antolaketa ereduarekin eta kontrolarekin lotutakoa. Gaztelekuen erabiltzaileen adinari dagokionean, kontuan edukitzekoa da gaztetxoak beraien parekoekin bilatzen dituztela harremanak, eta pareko adinekoekin batera egotea nahi izaten dutela; helduagoak, baina baita gaztetxoago edo umeagoak baldin badaude aisialdi gune batean, gaztelekuan esaterako, ez dute gogoko izaten bertaratzea. Bestalde, jardueren antolaketari eta kontrolari dagokionean, gaztelekuan antolatutako jarduerak, gaztetxoek zaletasunekin bat egiten dutenak izan arren (grafitiak, masajeak, tren-tzak,...), alde aurretik programatutakoak izateagatik ez dira nerabe gehienentzako

³ Hainbat egile (2000) Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia

erakargarriak izaten; aldiz, gai edo zaletasun beren inguruko jarduerak, gaztetxoek beraiek bultzatuta sortutakoak edo antolatutakoak badira arrakastatsuak izaten ohi dira.

Esandakoaz gain, gazteleku guztien funtzionamendua ez da beti malgua izaten, eta arauak harremanen prozesuaren ondorio gisa ezarri beharrean, aldez aurretik ezarritako arautegi itxi gisa agertzen dira; horrela izateak berak, gaztetxoak erakarri baino aldendu egiten ditu, are gehiago, familian edota ikastetxean zailtasunak eta arrisku portaerak dituzten gaztetxoak.

Gaztelekua onartzen dutenean, eskaintzen dituen zerbitzuetaz aparte, lagunekin gelditzeko bilkura lekua ere izaten da jeneralean; bertako sarreran jartzen dute hitzordua laguntalde ezberdinek eta, zenbait kasutan, gaztetxoak erruz biltzen dira bertara.

Aisialdi taldeen kasuan aipatu dugun eran, begiralea ez da edonor gaztetxoentzat; gaztelekuan dagoen begiraleak ere pertsona bereziak izan litezke gaztetxoentzat. Begiraleekin askatasunez hitz egiteko modua edukitzea asko estimatzen dute gaztetxoek; pertsona heldu bat izatea, eta aldi berean, beraienganako hurbila izatea bilatzen dut, besteak beste, gertatutakoak eta kezkek kontatzeko.

Egitasmo bereziak

Azken urteetan, EAeko hiriburuetan, eta asteburueterako bereziki, sortutako aisialdi egitasmo bereziak hartu ditugu kontuan (*Gasteizen Gauekoak, Donostian Gau On eta Bilbon Bilbo Gaua*). Hiri handietako asteburuko aisialdiari begira, era ezberdineko tailerrak, kontzertuak zein kirol saioak izaten dira egitasmo horien edukia. Aztertu ditugun aisialdirako egitasmo bereziak hiri handiei dagozkienak dira; zenbait herri (Getxo) tankerako egitasmoak garatzen hasiak badira ere, ez daukagu esaterik herri horietan eragin eta ondorio berdinak dituztenentz.

Gaztetxoek taberna eta diskoteketako aisialdiaren osagarri lez irudikatzen dituzte aisialdirako ekitaldi horiek; beraiantzako ez da taberna eta diskoteketako aisialdiaren ordezko edo alternatiba iraunkor bat, tarteka bertaratzeko eta frogatzeko jarduerak baizik. Tabernetako eta diskoteketako giroa, gustuko duten giroa, ordezkatzeko modurik ez diete ematen. Asteburueterako aisialdi zirkuitoaren barnean sar litekeen aukera bat bezala irudikatzen dute.

“...los bares no se pasarán de moda...” (Elkarrizketa. Gizarte Etxeko erabiltzaileak. Gasteiz)

“un sábado a la noche no es para ir allí, sobre todo si vas pedo...” (Eztabaida taldea. Ikastola, D eredu. Gasteis)

“...no vienen todos lo fines de semana..., y no es lo que pretendemos tampoco,...que lo vean como una opción dentro de su circuito de diversión, que piensen 'puedo ir al Aldabe',...” (Elkarrizketa. Gauekoak programako begiralea. Gasteiz)

“...jendea etortzen da gauza puntualetara,...alternatiba bezala ikusten dute: 'aterako gara larunbat honetan, ez dakit zer kurtsilo edo tailer dago, joango gara, egingo dugu eta bagoaz’”. (Elkarrizketa. Aldabe Gizarte Etxeko -Gauekoak programako monitorea. Gasteiz)

Gaztetxoak, noizbehinka, egitasmo berezi horietara doazenean, lagun-taldekoekin bertaratu ohi dira.

“a esta edad la mayoría vienen en grupo” (Elkarrizketa. Gauekoak programako begiralea. Gasteiz)

Ez da sarritan egiten dutena, tarteka baino ez, egitasmo berezi horietako zenbait ekintza frogatzeko asmotan. Adin-jira bereko beste gaztetxoekin aurkitzeko tokia izatea ere gustuko dute. Horrela, jendea ezagutzeko parada eman dezaketen neurrian egiten zaie erakargarri; halere, aisialdirako egitasmo horietara, batipat, pertsona helduagoak ere joaten direnez, arrazoi horregatik gaztetxoek atzera egitea ere arrunta da.

“...quieren que sea un espacio de encuentro, para estar con otros jóvenes, para conocer gente...” (Elkarrizketa. Gauekoak programako zuzendaria. Gasteiz)

1.3.3. Gune Birziklatuak

Autonomiaren ardatzean, berezko guneen ondoren, autonomiaren muturretik hurbilen dauden guneak dira gune birziklatuak deitu ditugunak. Horrela izendatu ditugu gaztetxoek haien aisialdian erabiltzen dituzten kaleko ondorengo eremuak: plaza, parkeak, aterpeak, aparteko zokoak, atariak eta etxepeak.

Aipatutako kaleko guneak, gaztetxoek mobiliario edo ingurune urbanotik aisialdirako hautatu eta beraienganatutako leku publikoak dira. Edozein herritarrek erabil ditzakeen lekuak dira gaztetxoek beraien denbora librean hartutako gune horiek. Besterik ezean, leku horietan gaztetxoek beraiek gustuko dutena egiteko modua dute, hau da, erabilpen pribatua ematen diete publikoak diren gune horiei. Izan ere, gaztetxoen berezko erabilera eta jarduerak garatzeko apartatzen dituzte eta apartatzen dira bertara; besteak beste, lagun-taldearen bilkura eta egonaldietarako aukurako espazioak dira. Zokondoak izaten dira gehienetan gune horiek; erdi-izkutuak eta gaztetxoak bertan babestuak sentiarazteko modukoak, batipat, beraiantzako heldu ezagunak direnen begiradatik aparte egotea baita zoko horiek betetzen duten ezaugarrietako bat. Horietako zenbait gune, fisikoki ere babestuak izaten

1.3.3. Gune birziklatuak (1)

Gune birziklatuak

Kalea, plaza, parkea, aterpeak, aparteko zokoak, atariak, etxepeak

- Gaztetxoen mobiliario/ingurune urbanotik aisialdirako hautatu eta beraienganatutako leku publikoak; gaztetxoek erabilpen pribatua ahalbidetzen duten leku publikoak
- Gaztetxoek berezko erabilera eta jarduerak garatzeko aproposak; taldearen bilkura eta egonaldiarentako aukerakoak
- Helduengandik apartatuta egitekoak; helduen ohiko aisialdiaren denbora eta espazioetatik at

- “...han jesarrita eta litroak hartu...” “... aparte batean pipak jaten...”
- “... estar y reirte de algo...”
- “daude zona batzuk porroak erretzera joaten direnak...” “...hondartzan... mundu guztiak dauka leku bat hondartzan... jartzen dira hor... zein kuadrila jartzen delako, ... besteak ez dira jartzen...”; “...a la academia, vas un poco antes, te quedas en la puerta, un rato antes y un rato después”.

dira, hau da, aterpea eta haize-izkutuak, neguko eguraldi txarrei aurre egiteko modukoak.

Plaza, parke eta aparteko zokoetan lagunekin egonean egoteko modua izaten dute, barriketan eta era ezberdinetako produktuak jan-edanaz (gozokiak, freskagarriak, alkohola, tabakoa, hatxisa,...); kontsumo hori ziurtatzeko bidea ematen duten denda eta tabernak ere inguruan egotea bilatzen dute. Gaztetxoek aipatutako erabileraaren arrastoak bertan uzten dituzte sarritan, eta auzokoen haserrea pizten duten lata, zigarro-mutxikin eta bestelako zorroak, mugarriak bailiran, gaztetxoek aukeratutako gunea zedarrizten dute.

“...han jesarrita eta litroak hartu...” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredua. Gernika)

“...aparte batean pipak jaten...” (Eztabaida taldea. Aisialdi Taldea, Urizko udal-lekutan. Donosita)

“...besteak ez dira jartzen...” “...koadrila bakoitzak badu bere eremua”
(Elkarrizketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz)

Esan bezala, gaztetxoak bertan bilduta egoteko eta denbora pasarako hartzen dituzte leku publiko horiek. Orduak ematen dituzte beraietan, egunez zein gauez, astebitarrean zein asteburuan (ordutegia, bertako jarduna eta kide kopurua ezberdina bada ere), batipat, jite estatikoan, lagunekin egonean. Astebarruan asteburuetako egunetan baino lagunarte txikiagoa osatzen da, bertaratzen direnak ere ordu gutxiago ematen dituzte, eta bertako jarduna ere ez da izaten asteburuetan bezain bizia edo mugitua.

“...en el parque estas allí con tus amigos, y estas, allí, bien” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

1.3.3. Gune birziklatuak (2). Kalea, plaza, parkea, aterpeak, aparteko zokoak, atariak, etxepeak

Gaztetxoen berezko erabilera eta jarduerak garatzeko proposak

- Zokondoak; erdi izkutuak eta babestuak (heldu ezagunen begiradatik)
- Taldean egonaz kontsumitzeko aukerakoak (goxokiak, edan, erre...); hornidura ziurtatuta inguruan
- Gaztetxoen erabileraren arrastodunak (latak, poltsak...)

Gune birziklatuak

- “...han jesarrita eta litroak hartu...”
- “... aparte batean pipak jaten...; - “ estar y reirte de algo...”
- “daude zona batzuk porroak erretzera joaten direnak...”
- “... hondartzan... mundu guztiak dauka leku bat hondartzan... jartzen dira hor... zein kuadrila jartzen delako, ...besteak ez dira jartzen...”
- “... a la academia, vas un poco antes, te quedas en la puerta, un rato antes y un rato después...”

Biltzeko eta egonean egoteko aukera ematen dute

- Bilduta, egunez nahiz gauez, jite estatikoan, denbora pasatzeko guneak
- Aterpe eta eserlekudunak (petrilak, eskailera, bankuak, etxepeak...)
- Astebarruan zein asteburuan, baina ordutegi eta erabilera ezberdinekin

Aipatu erabilera ezberdinetarako egokiak izaten dira gune birziklatuak. Alde bate-tik, eserlekudunak izaten dira ia gehienetan (petrilak, eskailerak, bankuak) eta aterpedunak askotan (etxepeak eta atariak). Gaztetxoek leku publikoen artetik beraien erabilera propiorako birziklatutako guneak, leku irekiak, nasaiak eta malguak izaten dira, baina bereziki, toki erosoak, hau da, helduen joan-etorri gutxiko tokiak eta egonean orduak emateko modukoak.

“...basta las tantas allí sentados, y hablando...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz)

“...edozein parketan ez...” (Eztabaida taldea. Ikastola, D eredu. Gasteiz)

Gaztetxoan aisialdirako gune birziklatuak, helduen ohiko aisialdiaren denbora eta espazioetatik at egoten dira. Beraien helduen mundutik aldentuta dauden guneak

1.3.3. Gune birziklatuak (3). Kalea, plaza, parkea, aterpeak, aparteko zokoak, atariak, etxepeak

Gaztetxoan erabilpen pribatua ahalbidetzen duten leku publikoak

- Gune irekiak, nasaiak eta malguak; egoteko toki erosoak (helduen joan-etorri gutxi)
- Talde handietan, eta beste talde batzuen inguruan (bakoitzak bere eremua zedarritua)
- Ordutegi araurik/mugarik gabeak

Gune birziklatuak

- “(en los parques) no molestan a nadie, están a su rollo y tan agusto...”.
- “... en el parque estás allí con tus amigos y estás, allí, bien”.
- “... hasta las tantas allí sentados... y hablando”
- “... plaza, o igual en algún colegio, los colegios públicos que están abiertos... o en los bancos o en lo que sea...”.
- “... edozein parketan ez...”

Helduen ohiko aisialdiaren denbora eta espazioetatik at

- Beraien helduen munduarekiko aldentuak eta periferikoak, helduekin aldiberean konpartitzen ez direnak; inguruko helduak anonimoak
- Funtzionamendu eta kudeaketarako helduen araurik ez
- Helduen kontrola eta presiotik urruntzeko lekuak

aukeratzen dituzte gaztetxoek; beste era batera esanda, gune horietara inguratzen diren helduak anonimoak izaten dira gaztetxoentzako. Hartara, ezagunak dituzten helduekiko leku periferikoak izaten dira gune birziklatuak, urruti egon beharrik ez duten arren. Edozelan ere, helduekin aldiberean konpartitzen ez diren leku publikoak izaten dira; plaza edo eserleku berean helduak bilduta egon litezke baina ez ordu berean, eta helduak biltzen diren orduetan ez dira bertaratzen gaztetxoak. Ezin bestela izan, helduen kontrolatik eta presiotik urruntzeko lekuak bezala bizi baitituzte.

Esandakoaren bidetik, egonaldietarako, eta bestelako aukera gogokoagorik ezean, aukeratzen dituzten lekuek, funtzionamendu eta kudeaketa aldetik, ez dute helduen araurik izaten; leku horiek erabiltzeko ordutegi nahiz bestelako mugarik ez dute izaten, behintzat, ez dute bete beharreko arautegi formalik edukitzen.

Aipagarria da, "litroak" hartuz kalean biltzen diren gazte koadrilen inguruan harrotutako arazoak nabarmendu egin duela kalea edota beste toki birziklatuen protagonismoa. Arazoa bistaratu baino lehenago ere gertatzen zen fenomeno baten ere, sortutako iskanbilerik aisialdi mota hori daukaten gaztetxoak estigmatizatzeke balio izan du. Gaztetxo horiek begiz jota sentitzeak, lonjen -edo bestelako toki pribatu- bilaketa areagotu dezake, bertan alkohola edo bestelako drogak kontsumitzeke toki lasaia aurkitzen baitute gaztetxoek.

1.3.4. Berezko Guneak

Gaztetxoek aisialdiaren inguruan osatzen duten definizioa ulertzeko *berezko guneak* bezala izendatu dugun eremua zertan gauzatzen den ulertzea ezinbestekoa litzateke. Izan ere nerabeen ikuskeran gune hura aisialdiaren gauzapenean izugarritzko pisua hartzen duen gunea da. Jatorriz, izakeraz eta pentsakeraz oso ezberdinak izan arren, elkarrizketatuak izan diren gaztetxo ia guztiek bat etorri dira aisialdia definitzeko garaian erabili beharreko elementuak zeintzuk diren zehazterakoan. Osagai edo elementu definitzaile horiek *berezko guneetan* bildu izan ditugu, bertan elkartzen diren harreman, jarduera eta espazio motek autonomiaren *ardatzarekiko* izaera bereko lotura mantentzen dutela ikusita. Hori dela eta, *gune* horretan aisialdirako toki ezberdinak bereiztea posiblea izan arren, guztietan komunak diren zenbait elementu nabarmentzea posiblea dela konturatu gara. Ikuspuntu horretatik, *berezko guneak* aipatzean taberna zonaldeak, diskotekak, lonjak (zenbait tokitan txokoak eta txabolak deitu izan dituztenak) eta gaztetxeak kontuan hartzen ari garela zehaztu beharko genuke. Hori bai, espazio horiek era eta izaera ezberdina eduki arren, gaztetxoen aisialdiaren inguruko bizipenetan eta irudimenetan dituzten parekotasunei lehentasuna eman diegunez, kategoria berdinen elementu bilakatu direla azpimarratu nahi dugu.

Esandakoa kontuan harturik, eta gainontzeko guneen azterketan erabilitako eskemari jarraipena emanez, txostenaren atal honetan taberna zonaldeek, diskotekek,

1.3.4. Berezko guneak (1)

Berezko guneak

Taberna zonaldeak, Diskotekak, Lonja/Txokoa/Txabola, Gaztetxeak

- Gaztetxoan aisialdi intentsiborako aukeratutako edota sortutako eremuak
- Helduen mundutik aparte bereganatutako espazioak eta denborak.
- Gaztetxoan neurrira egindako mundua.
- Berezko jarduerak eta adierazpenak bultzatzen duten guneak;
- Gaztetxoan esperientza kolektiboa garatzeko aukera eskeintzen dutenak
- Gazte kultura ezberdinen adierazpenerako guneak
- Askatasunezko, ebasiozko eta gozamenezko sentsazioari lotutako eremuak; erabakimena eta protagonismoa sentitzekoak

lonjek eta gaztetxeek *berezko guneak* definitzeko garaian eskaintzen dituzten elementu bereizgarriak nabarmenduko ditugu lehendabizi eta aipatutako toki bakoitzean ezaugarri horiek nola gauzatzen diren azalduko dugu ondoren.

Gaztetxoek proposaturiko aisialdiaren definiziora hurbiltzeko garaian *berezko guneak* kategorian parte hartzen duten espazio ezberdinek (taberna zonaldeak, diskotekak, lonjak eta gaztetxeak) ezin hobeto isladatzen dituzte definizio horri atxikitzen dizkieten ezaugarriak. Ezaugarri horiek aisialdia bete-betean bizitzeko eta gozatzeko aukerarekin parekatzen dituzte nerabeek eta, era batean edo bestean, leku horietan biltzen diren elementuak lirateke. Ikuspuntu horretatik, *berezko guneak* bezala izendatu dugun kategoria horren baitan agertzen diren aisialdirako tokiek datozen ezaugarriekin bat egiten dutela antzeman dugu:

Hasteko, *berezko gune* hauek gaztetxoan aisialdi *intentsiborako* beraiek aukeratutako edota sortutako eremuak direla esan daiteke eta intentsitate horretan indarra edo azentua jartzen dute. Beste tokietan edo jarduera esparruetan gertatzen ez den bezala, kategoria honen azpian bildutako espazioetan nerabeek berezkoa duten aisialdiaren definizioa gauzatzeko aukera aurkitzen dute bete-betean, bizipenak, zein zirrarak intentsitate maila horrekin parekatuz.

Era berean, *berezko guneak* irudikatzeko garaian bertan espazioari eta denborari lotutako parametroak⁴ ezinbestekoak dira gaztetxoek kategoria hori osatzen duten toki ezberdin horiekiko duten lotura ulertzeko. Esate baterako, -eta aurrerago azalduko dugun moduan-, *gune* hauek gauekin eta lagunartekotasunarekin (pribatutasunarekin alegia) duten harremana funtsezkoa da nerabeen aisialdian duten garrantzia azaldu ahal izateko. Ikuspuntu horretatik, bai denborak, bai espazioak hartzen dituzten ezaugarriak neska-mutilek beraien neurrira diseinatutako mundua osatzeko erabiltzen dituztela esan daiteke, helduen dinamika eta aginduengandik aparte beraien araututako gizartea eratuz.

Aipatutakoaz gain, *berezko guneak* definitzen dituen beste ezaugarri garrantzitsu bat, bertan gaztetxoek berezko jarduerak, ekintzak eta adierazpenak garatzeko aukera izatea litzateke. Hori da gutxienez beraien esaldietatik ondorioztatu ahal izan dena. Izan ere, aipatutako gunea (eta kategoria horren barruan biltzen diren tokiak) nerabeek beharrezkotzat jotzen duten esperientzia kolektiboa (lagunartekotasuna, taldekotasuna, multzoaren babesa...) garatzeko toki aproposena kontsideratzen dute.

Aurreko ideiarenean ildotik, *berezko guneek* gaztetxoek aisialdiaren irudikapenean hartzen duten pisua ulertu ahal izateko, bertan gazte kultura eta pentsakera ezberdinak egituratzeko eta adierazteko sortzen eta garatzen diren aukerak azpimarratu beharrekoak direla uste dugu. Izan ere, ezberdintasun horiek neska-mutileen identitate eraketa prozesuan parte hartzen duten ezinbesteko ardatz bilakatzen dira. Ikuspuntu horretatik, nagusiekiko autonomia bilatzeaz gain, nerabeek beraien arteko bereizketa prozesuari gogor ekiten diote, helduon antzera, gaztetxoek ere horretan oinarritzen baitituzte bere identitatearen agerraldiak.

Azkenik eta orain arte esandakoa laburbiltzeko asmoz, *berezko guneak* biltzen dituen zenbait ezaugarri nabarmendu nahiko genituzke. Ikuspuntu horretatik, aipatutako tokiak eta bertan aisialdiari lotuta agertzen diren bizipenak deskribatzerakoan gaztetxoek adierazten duten sentipena askatasunari, ihesari eta gozamenari loturik agertzen direla azpimarratu daiteke. Halaber, kasu guztietan harremanen, espazioen eta jardueren gainean beraien erabakitze ahalmenari garrantzi berezia ematen diote.

Orain arte azaldutakoak *berezko guneei* loturiko alderdi orokorrak izango lirateke. Datozen orrialdetan aldiz, horien inguruko nabardurak azalduko ditugu lau atal zehatzetan antolatuta. Atal hauek *berezko guneen* definizioari dagozkion ezaugarri eta elementu nagusiak biltzen dituzte:

⁴ Feixak eta Pallarésék modu ezin hobean jasotzen dute ideia hori ondorengo parrafoan: *El fin de semana es copado por los y las jóvenes como centro y expresión de su posesión de tiempo libre definitorio de su condición de jóvenes y como tiempo/espacio donde representarla*. Feixa, Carles; Pallarés, Joan (2000): "Espacios e itinerarios para el ocio juvenil..."; *op.cit.*, 34 orri.

1.3.4. Berezko guneak (2). Taberna zonaldeak, diskoteka, lonja, gaztetxeak

Gaztetxoak
bakarrik
biltzeko guneak

- Helduen mundutik aparte. Gaztetxoaren arteko pribatutasuna da nagusi.
- Gaztetxoaren esperientzia kolektiborako gunea eskeintzen dute.
- Ordutegi eta funtzionamendua gaztetxoaren nahietara egokiturik (asteburuak, gauak, ea.)

Berezko guneak

- “Se está produciendo esa historia de juntarse en sitios cerrados”
- “Juntarse en los sitios (...) que no entre ningún adulto, que no les vean”.
- “La gente está convirtiendo lo de ir a potear en discotecas, pastillas...”
- “Izenak eta etiketak lekuen arabera jartzen dira”.

Gazte kultura
ezberdinen
adierazpenerako
guneak

- Gaztetxoaren artean ezberdintzeko bidea ematen dute: musika, janzkera...
- Gaztetxoak elkar ikusteko eta besteei agertzeko –exhibitu– aukera ematen dute.
- Gazte talde edo multzo batek bereganatzeko edota pribatizatzeke aukera eskaintzen dute.

1) *Berezko guneak* gaztetxoak bakarrik biltzeko gunea eskaintzen dute. Ikuspuntu horretatik, *berezko guneak* helduen mundutik aparte kokatzen direla esan daiteke, gaztetxoaren arteko pribatitatearen bultzatzaile bihurtuz. Ezaugarri hori ordutegiaren eta funtzionamenduaren antolaketan antzeman daiteke, *gune* hauen erabilpen nagusia gauetan eta asteburuetan garatzen baita. Nerabeek berezko espazioa eta denbora bilatzeko arrazoi nagusienetariko bat lagunartekotasuna eta parekoen arteko harremana bultzatu nahia litzateke, izan ere esperientzia kolektibo horren bidez beraien identitatearen eraketa eta lanketa prozesuari bide egoki bat emateko aukera ikusten baitute.

“ *Se está produciendo esa historia de juntarse en sitios cerrados*”. (Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa. Deustu).

“ *Juntarse en los sitios (...) que no entre ningún adulto, que no les vean*”. (Elkarrizketa. Aisialdi taldeetako arduradun eta begiraleak. Gazteiz).

2) *Berezko guneek* gazte kultura ezberdinen adierazpenerako tokia eskaintzen dute. Ideia horren azpian, *berezko guneen* izenpean agertzen diren lekuak gazte izateari lotutako hainbat adierazpenei ekiten diotela nabarmendu nahi izan dugu. Hori dela eta, musika, kontsumo joerak, janzkera edo estetikaren inguruko moda eta jarrerak garatzearekin batera, taberna zonaldeak, diskotekak, lonjak edota gaztetxeak, nerabeen artean ezberdintzeko bidea eskaintzen dutela esan daiteke. Alde batetik, hainbat esparruk (taberna zonaldeak, diskotekak edo gaztetxeak, esate baterako) gaztetxoak elkar ikusteko eta besteen aurrean agertzeko -erakusteko- parada ematen dutelako; bestetik, gazte koadrilak bere esparru pribatua ezartzeko eta antolatzeo aukera ematen dutelako (besteak beste, lonjak, txabola eta txo-koak). Guzti hau kontuan hartuz, gaztetxoek beraien arteko ezberdintasunak espazioan adieraztea normalizat jotzen da, nerabeek beraien horrela adierazita:

1.3.4. Berezko guneak (3). Taberna zonaldeak, diskoteka, lonja, gaztetxeak

Berezko jarduerak eta adierazpenak bultzatzen duten guneak

- Mugikortasuna (gunean bertan edota batetik bestera) eta jite aktiboa bultzatzen duten guneak.
- Gazte izatea bereizten dituzten jarduerak garatzeko guneak: musika entzun, dantza egin, lagunekin elkartu, edan, erre...
- Gaztetxoek konbibentzia eta festa giroa; asaldura eta dibertsioa eskeintzen duten guneak.

Berezko guneak

- “Se organizan ellos solos” “Buscan estar a su rollo”
- Divertirse: “salir de fiesta”, “reirme”, “pasarmelo bien”, “estar con la gente”. “Dibertitzea da, ba, asteburuan egiten dena”.
- “Asteburua etortzen da ta... ¡el desfogue!”
- Buscan evadirse o desconectar, y eso está muy vinculado a salir por la noche, consumir drogas a veces...”

Gaztetxoek auto-antolaketa eta kudeaketa bultzatzen duten guneak

- Gazteen “normalidadea” garatzeko eremu pribatua eskeintzen duten guneak.
- Gaztetxoek neurritara (edo beharretara) egokitutako arauen eta kudeaketaren menpe dauden guneak.
- Taldean esperimentatzeko eta deskubrimendurako guneak.

“Izenak eta etiketak lekuen arabera jartzen dira”. (Eztabaida taldea Gazte-
txoak. Aisialdi Talde bateko partaideak. Donostia).

“Zuk badakizu zure estiloko jendea non dagoen” (Eztabaida taldea. Insti-
tutu publikoa, D eredia. Gernika).

“Normalean gelditu barik be badakizu lagunak non egongo diren be.”
(Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredia. Gernika).

- 3) *Berezko guneak*, berezko jarduerak eta adierazpenak bultzaten dituzten guneak dira. Hori dela eta, aisialdiko *gune* hauetan garatzen diren jardueri erreparatzen badiegu, orokorrean gaztetxoek berez transmititzen duten mugikortasunarekin eta jite aktiboarekin lotura dutela antzeman daiteke. Ideia horren ildotik, *berezko guneak* biltzen dituzten espazioetan gazte izatearekin zerikusia duten ekin-
tzek erdigunea betetzen dute: musika entzun, dantza egin, lagunekin elkartu,
edan, erre, etabar. Beraz, gaztetxo izatearekin parekatzen diren ezinegonak eta
urduritasunak aipatutako jardueren bitartez bideratuko lirateke nagusiki, talde-
kako ospakizunak, festa giroa eta asaldura horretarako irtenbide aproposena iza-
naz.

“Asteburua etortzen da ta... ¡el desfogue!” (Elkarrizketa. Gaztelekuko begira-
lea. Zarautz).

“Salir de fiesta, reirme, pasarmelo bien”. (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua,
A eredia. Leioa).

“Dibertitzea da, ba, asteburuetan egiten dena”. (Elkarrizketa. Gaztelekuko
begiralea. Zarautz).

- 4) *Berezko guneak* gaztetxoek auto-antolaketa eta kudeaketa bultzatzen duten
guneak lirateke. Nerabeek beraien aisialdirako funtsezkoak diren *gune* hauek
berezkotzat hartzeko arrazoi nagusienetarikoa bat, beraien arteko antolaketarako
eta jardueren kudeaketarako eskaintzen duten aukeran omen datza. Ikuspuntu
horretatik kategoriatik honetan elkartzen diren aisialdiko *gune* ezberdinak gazte-
txoek arteko pribatutasuna bultzatzeaz gain, gazteen artean nagusitzen diren
harreman edota jarduera motak *normalitate* batean garatzeko aukera eskaini-
tzen diete. Toki zehatzen izaera edo jabetza (publikoak, pribatuak,...) alde bate-
ra utzita, eremu hauetan gehienetan gaztetxoek neurria edo beharretara egoki-
tutako arauak eta kudeaketa mota bideratzen direla esan daiteke, bertan nera-
beek beraien ezarritako joerak eta ohiturak pisua hartuz. Horren ildotik, *berez-
ko guneak* taldean erabakitzeko, antolatzeko eta esperimendatzeko eremua
eskaintzen duela esan daiteke.

“Se organizan ellos solos.” (Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa.
Deustu).

“Buscan estar a su rollo”. (Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa. Deustu).

Esandakoak esanda, *berezko gune* hauen inguruan gaztetxoek garatzen dituzten jokamoldeak, dituzten kezken seinalea izateaz gain, hainbat gizarte balioen inguruan agertzen duten jarreraren ezaugarritzat eta isladatzat ere hartu behar direla

1.3.4. Berezko guneak (4)

“Un lugar de encuentro”.
 “Allí están todos los jóvenes”.
 “Gazte zarenean, asteburuetan tabernetatik irten(...) Gazte guztiek egiten dute hori”.

“Es el tema de la fiesta, la estética, los DJs”.
 “Bailar, estar de fiesta”.
 “Tienes tiempo libre, no sabes que hacer y pagas 800 pelas, te estás toda la tarde, estás con los amigos y encima bailas”.

Taberna zonaldeak

- Gaztetxoak gaztetxoekin elkartzeko gune aproposa.
- Giro ezberdinak, tabernak eta diskotekak topatzeko tokiak.
- Gustoko jarduerak garatzeko aukera: musika entzun, dantza egin, edan...

Diskoteka

- Gaztetxoak multzoka biltzeko toki aproposak.
- “Jaia” giroari lotatutako jarduerak garatzeko tokiak.
- Gorputz adierazpenak eta estetika nahiz berezko askatasunaren ikurrak garatzeko toki desiragarriak.

Berezko guneak

- Gaztetxoen auto-antolaketarako guneak.
- Talde barruko harremanak garatzeko tokia.
- Alkohola eta beste drogen kontsumorako gune lasaia.

Lonja/Txokoa/Txabola

“Tener un sitio donde estar tranquilo y seguro”.
 “Un lugar de reunión”.
 “Independenzia daukagu”
 “Intimidatzen”
 “Egin dezakegu nahi duguna”

- Auto-antoloketa eta auto-kudeaketa garatzeko ereduak.
- Egun gutxi topatu arren, sinbolikoki mantentzen den erreferentzia da.
- Multzoa eta jendetza experimentatzeko tokiak.

Gaztetxea

“Jende pila bat biltzeko tokia”.
 “Lagunekin egoteko”.
 “Gauzak antolatzeko”.

uste dugu. Azken finean beraien aisialdia nabarmentzen eta definitzen dutenean pertsona orok bizitzaren arlo baten inguruan duen ikuspuntua adierazten ari dira, arlo hori banaka edota taldeko identitateari; gizarte osoari edota gertuko komunitateari zeharo lotuta baitago. Ikuspuntu horretatik, egun aisialdi mailan agertzen diren aldaketak gizarte osoaren ikuspuntutik interpretatu eta irakurri beharko lirartekeela uste dugu. Hau da gazte eta helduen munduan; esparru kolektiboan eta norbanakoen mailan gertatzen ari denaren ildotik.

“La gente está convirtiendo lo de ir a potear en discotecas, pastillas...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoak, A ereduak; kuadrila berekoak. Gasteiz.).

“Buscan evadirse o desconectar, y eso está muy vinculado a salir por la noche, consumir drogas a veces...” (Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa. Deustu).

Orain arte aisialdiko *berezko guneei* buruz era orokor batean hitzegin badugu ere, atal honi amaiera emateko kategoria honen azpian sailkatu ditugun aisialdiko *gune* zehatzen inguruan aipamen batzuk egingo ditugu. Ñabardura horiek, kategoria honetan ematen diren berezitasunak isladatzeko baliogarriak izateaz gain, orain arte era abstraktu batean aipatu diren hainbat ezaugarri errealitatean zertan gauzatzeko aukera emango dutelakoan gaude.

Hasieran aipatu den bezala, *berezko guneak* bezala izendatu dugun kategoria honen atzean gaztetxoentzako beraien aisialdian esanahi handia duten tokiak biltzen dira. Horien artean gehienetan azpimarratu izan direnak taberna zonaldeak, diskotekak, lonjak eta gaztetxeak lirarteke. Datozen lerroetan horietako bakoitzari buruzko hausnarketa txiki bat eskainiko diogu neska-mutilek horien inguruan osatutako deskribapenetan oinarriturik.

Taberna zonaldeak

Hirietan edo herri txikietan gaztetxoak elkartzeko *gune* aproposena(k) taberna ezberdinak biltzen dituen zonaldea(k) dirudi(te). Neska-mutilek beraiek esaten duten moduan, asteburuetan tabernaz taberna ibiltzea da bere adineko jendeari dagokiona, gazte guztiek egiten dutena, alegia:

“Gazte zarenean, asteburuetan tabernatik irten (...). Gazte guztiek egiten dute hori.” (Elkarrizketa. Gauekoak programako begiralea. Gasteiz).

Ondorioz, taberna giroa da neurri handi batean gazte mota ezberdinak biltzen duen eremua, beraien elkargune bilakatuz:

“ (tabernak) ... un lugar de encuentro ”. (Elkarrizketa. Gauekoak programako begiralea. Gasteiz)

“*Alli están todos los jóvenes*”. (Elkarrizketa. Gauekoak programako begiralea. Gasteiz).

Azken aipuak taberna zonaldeetan gaztetxoek bilatu eta aurkitzen duten osagai garrantzitsu bat adierazten du: jendetza. Gaztetxoen nahiak eta balioak jorrazterakoan gehiago sakonduko badugu ere, aipatzekoa da gaztetxo gehienek guraria da gazteak pilatzen diren inguruetara biltzea; gazte jende andana non, gazte taldeak bertara.

Dena den, aski ezaguna denez toki gehienetan (tamaina handiko edo ertaineko inguruetan bereziki) taberna zonalde bat baino gehiago topa daiteke, bakoitza giro berezi bati lotua. Giro ezberdinen arteko bereizketa horrek zonalde bakoitzari berezitasun batzuk ezartzen dizkio, eta ondorioz, bertan ibiltzen diren gaztetxo taldeei. Nerabeei beraien herria edota hiria zonalde ezberdinen arabera banatua dagoela entzutea ohikoa izaten da; horren ondorioz bakoitzak musika, gustoa, jende mota edota estetika arauen arabera bere tokia aukeratzeko duela aitortzen dute.

“...*vas a pasartelo bien y... pues la gente antes todo el mundo iba a Portu, ahora al Casco Viejo... y la gente que tiene otros gustos diferentes busca otras cosas...*”. (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa).

Taberna zonalde gehienek antzeko jarduerak garatzeko bidea eskaintzen dizkiete gaztetxoei: musika entzun, dantza egin, edan, ea. Hortik aurrera eta giro ezberdin horien arabera, ohiturak edota berezitasunak aldatzen joango dira, bereizketa prozesu horretan elementu bateratzaileak, nahiz baztertzailak parte hartuz. Edozein kasutan argi dago gaztetxoek taberna giro ezberdinetan aurkitzen dituztela beraien gustoko ingurunea eta lagunak. Zonalde batean ez baldin bada bestean, askotan aukeran dituzten ibilbide ezberdin moduan⁵ irudikatzen dituzte aipatu zonaldeak.

Diskotekak

Moda ezberdinen gaineratik, diskotekak gaztetxoen aisialdirako toki garrantzitsua izaten jarraitzen dute. Esate baterako, ikerketan parte hartu duten nerabe guztiak diskotekazaleak ez baldin baziren ere, espazio horiek egungo gazte askoren aisialdirako bilgune direla aitortu dute. Ikuspuntu horretatik, diskoteketara joatea denboran (asteburuetan bakarrik bertaratzen dira diskoteketara) eta espazioan jarduera mugatua izan arren, pisu nabarmena duela esan daiteke.

⁵ Ibilbidearen ideiarene zentraltasuna Pallarés eta Feixasen artikuluetatik jaso egin dugu, izan ere egile hauek behin baino gehiagotan gazteen aisialdia espazio eta ibilbiden ezberdinen arabera irudikatzen eta azaltzen dute. Horra hemen horren inguruko aipamen esanguratsu bat: *Los y las jóvenes van a los sitios donde pueden encontrar más jóvenes, y gregariamente a lo largo de sus recorridos nocturnos se van moviendo siguiendo itinerarios diversos pero grupales. Ibidem, 37 orr.*

Garrantzi horren zergatia aldagai ezberdinei lotua dago. Hasteko, diskotekek gazte asko biltzeko tokia (fisikoa) eskaintzen dute. Hori dela eta, nerabeek bere adineko neska eta mutil asko topatzeko aukera aurkitzen dute bertan, eta, aipatu berri dugun bezala, gustokoa eta beharrezkotzat jotzen duten taldearen berotasuna edo multzo handiak sortzen duen eszitazioa inon baino gertuago sentitzeko parada dute. Gainera giro horrek ligatzeko eta lagun berriak egiteko bide aproposa ematen die. Gaztaroan harreman berriak egiteko grina hain nabaria izanik erraz uler daiteke batzuentzat toki hauek duten erakargarritasuna.

Halere, azaldututakoari jarraiki ezin esan daiteke gaztetxo guztiak asteburu gehienetan diskoteketara inguratzen direnik. Ikerketa honek aztertu duen adin taldean (14-16 urteko gazteak), diskoteketara joateko zaletasuna, edota baimena, oso zabalduzik ez dagoela azpimarratu behar da. Batzuek ez dute gogoko, beste batzuk ez dute oraindik gurasoen baimenik lortu, eta gehienek asteburuero joateko ohitura edo baliabiderik (dirurik) ez dute. Halere, noizbehinkako erabiltzaile asko topatu ditugu eta horiek diskoteketara joateko *jai*a ospatzearen aitzakia erabiltzen dute sarritan. Hori dela eta, elkarrizketatu ditugun gaztetxoen artean, askok zerbait ospatu nahi dutenean edo giro berezian murgildu nahi izaten dutenean diskotekan ikusten dute aukera ezinhobea.

“Bailar, estar de fiesta”. (Eztabaida taldea. Gazte-leku elkarteko lokalean; kuadrila berekoak. Bilbo.)

Erabiltzaile amorratuak izan edo ez, diskoteketara joateak *liturgia* berezi batean parte hartzea dakarrela argi dute gaztetxoek. Bertan egiten dena, hitzegiten dena, ikusten dena ingurune zehatz bati lotua dagokiola dirudi. Arrazoi horregatik diskotekazaleen gaztetxoen artean izengoiti asko dituzte: *puntxeroak, txunteroak, makineroak, bakaladeroak...* Horiek estetika zehatz bati lotuak agertzen dira eta neurri handi batean, diskotekek egun gaztetxoentzako duten esanahia eta erakargarritasuna isladatzen dute:

“... ahora está (...) toda esa gente que anda de la “Non”, de discotecas de ese tipo, que tiene..., además del rollo de salir de fiesta, de ir de discoteca y tal, es por la propia imagen, el tema de los peinados eso así como la crestilla, el flequillo ese... son unas botas, las camisetas estas (...) como un nuevo estilo de vestir, y de tema de fiesta...” (Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa. Deustu).

“Es el tema de la fiesta, la estética, los dj’s” (Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa. Deustu).

Ondorioz, gehienetan gazte mota bati lotuta baldin badude ere, diskotekek zentzu zabalago bat badutela azpimarratu behar da. Azken batean neska-mutil askok bere gustokoak diren jardunetan aritzeko aukera ikusten dute bertan: dantza egin, gorputza askatu, ligatu edo hitzegin. Ikuspuntu horretatik, egun funtsezkoak diren gor-

putz adierazpenak, estetika eta gazteen berezko ikurrak agertarazteko toki desiragarriak bilakatu dira diskotekak.

“Tienes tiempo libre, no sabes que hacer y pagas 800 pelas, te estás toda la tarde, estás con los amigos y encima bailas”. (Eztabaida taldea. Aisialdi Taldea, Urizko udalekutan. Donostia).

Lonja (txokoa eta txabola)

Berezko guneak bezala izendatu ditugunen artean lonjak erabilpen pribatua ahalbideratzeko asmoz gaztetxoek sortutako tokiak dira. Beraien ekimenari eta ahaleginari esker sortutako lekuak dira. Gehienetan etxe azpiko lokalak bihurtzen dira lonja, gazte talde batek jabeari alokatu eta txukundu ondoren. Txoko bezala izendatzen denak ezaugarri berdinak ditu. Txabolak herri, nahiz hiri kanpoko soroetan egindako erakin xumeak dira, bere erabilpena uda partera mugatuz delarik.

Txikiagoak edo handiagoak izan, edozein kasutan ondo hornituta dauden lokalak dira, izan ere, gaztetxoek diotenez, etxean bezain eroso daude bertan (“...es como un hogar” Leioa-Askartza-). Handin eta hemendik lortutako, sofa, telebista, bideoa, *Play Station*, musika aparailua, gustoko apaindurak eta nola ez, hotz gailua izaten dira lonjaren azpiegitura osatzen duten elementuak. Diotenez, tokia lagun talde kideen artean txukundu eta garbitu egin dute, eta, orokorrean mantenimendurako txandak daudela esaten dute. Horrekin batera, lonja-kide guztien arteko akordioari esker araudia zehazten dela aitortzen dute nerabeek, eta horren bitartez lonjaren erabilpenarako ordutegia, gonbidatu posibleen “zerrenda” eta erabilerarako bestelako jarraibideak finkatzen dituzte.

Edozein kasutan, gaztetxoek ikuspuntutik antolaketa arau edo eredu hauek ezartzea bezain inportantea da horiek ezartzeko aukera edo boterea izatea, azken finean horretan datza espazio horri atxiki ohi zaion auto-antolaketa baliokidea, edo, beste hitzetan adierazita, bertan sentitzen duten independentziaren zioa.

“... pones unos colchones, llevas una tele, una videoconsola...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa).

“... es un lugar de reunión, es un lugar que igual no sabes que hacer un día, sabes que vas allí y hay gente.” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa).

“Posterrak daude, pintadak be bai, bakoitzak bere boligrafoa...” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredu. Gernika).

“... zuk egin dezakezu, libre... txabolean ondo pasatze duzu” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredu. Gernika).

“Egin dezakegu nabi duguna”. (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredu. Gernika).

“Independentzia daukagu”. (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredu. Gernika).

Gazte askoren eskuetan ez egon arren lonja, txokoa edo txabola izateko aukera, batzuek horrelako toki baten bila dabilta jada edo, gutxienez halako bilgunea eskuratzea dute amets. Hori ezean, elkartzeko eta egoteko ohiko tokia kalea omen dute gehienek. Bestela, helduago direnak, tabernetan topatzen dute lagunekin lasai egoteko lekua. Ikuspuntu horretatik, lonja edo txoko izateak bi abantaila nagusi izango lituzke gazteen arabera. Alde batetik, berotasuna eta babesza zihuratzen die; bestetik tabernak eskaini ohi duen elkartzeko eta kontsumitzeko tokia bezain lasaia jartzen die eskura. Aipatutakoaz gain, lonjak bezalako berezko tokiek intimitatea eta talde barruko harremanak eta dinamikak garatzeko aproposak izango lirarteke, bertan taldeko kideen arteko gertutasuna eta komunikazioa bultzatzen dela baitiote.

“Lonja izatearen arrazoia” Tener un sitio donde estar tranquilo y seguro. (Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa. Deustu).

“Un lugar de reunión” (Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa. Deustu).

“Intimidad” (Eztabaida taldea. Gazte-leku elkarteko lokalean; kuadrila berekoak. Bilbo.).

“... ya tienes un sitio para estar.” (Eztabaida taldea. Gazte-leku elkarteko lokalean; kuadrila berekoak. Bilbo.).

Azkenik, gaztetxoek aitortzen dutenaren arabera, lonja edo txokoa izateak beste abantail garrantzitsua izango luke: alkohola eta beste drogen kontsumorako toki lasai bat izatearena. Halere, hori lehentasunezkoa ez dela diote nerabeek, kontsumoa berez egun zehatz batzuetara -ospakizun egunak gehienbat- mugatua bailegoko haien esanetan. Dena den, lonja edo tankerako espazio pribatu hori izatea, gero eta zabalduago dagoen fenomeno den heinean, esparru hauei buruz zehaztasunez hitzegitea zaila suertatzen da. Azken batean, lonja motak jabe motak bezain ugariak direla esan daiteke, eta beste horrenbeste, bertan ematen diren jarduerak eta ekintza motei dagokienez. Batzuen kasuetan lagunak biltzeko gunea da. Hau da, musika entzuten edota hitzegiten denbora pasatzeko tokia. Beste batzuen kasuan ospakizunak eta kuadrilen arteko jaiak antolatzeke toki aproposa bilakatu da. Azkenik, eta oraingoz gutxiengo baten kasuan, etxean nahiz inguruan bizi dituzten arazoetatik alde egiteko bidea aurkitzen dute lonjan, bertan aterpea topatzen baitute.

“... el tema de las lonjas permite el consumo que igual antes era más difícil porque no tenías un sitio donde poder consumir, bueno el caso del alcohol siempre te puedes... el tema del botellón y tal..., pero en otros casos como el speed, el tener un sitio donde poder estar tranquilo y seguro yo creo que ha favorecido que se tenga..., el consumo de este tipo de sustancias...” (Elkarrizketa. Modulo psiko-sozialeko psikologoa. Deustu).

Gaztetxea

Gaur egun garai batean baino gaztetxe gutxiago topatu arren, oraindik sinbolikoki bada ere, funtzionatzen duen erreferentzia dela esan daiteke. Hori dela eta, nerabeekin izandako zenbait elkarrizketetan gaztetxearen eredia aipatu izan da, batipat gaztetxoek beraiek auto-antolaketarako eta auto-kudeaketarako garatutako esperientzia edo saikera gisa. Hori dela eta, gaztetxeak kontzertuak eta bere gustuko jarduerak (tailerrak, emanaldiak, jardunaldiak, etabar) beraiek antolatzeke eta garatzeko bidea ematen duela diote, horrek gaztetxoei beraie protagonista sentiaraziz.

“(Zertarako gaztetxea?) *Gauzak antolatzeke*”. (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredia. Gernika).

Tartean elementu nahasiak egon arren (zenbait kasutan gaztetxoei kutsu politiko nabarmena leporatzen zaie), gehienetan gaztetxoeren aisialdiarako berezko *gune* bezala konsideratzen dituzte, toki horiek jendea elkartzeke eta ezagutzeko eskaintzen duten aukera elementu positibo eta garrantzitsua izanik. Alde horretatik, gaztetxeak gainontzeko berezko guneei dagozkien hainbat ezaugarri komun dituztela esan daiteke. Agian nabarmenena, multzoa eta jendetza artean aurkitzen eta esperimintatze horrek gaztetxoei aisialdia bizitzeko garaian ematen dien babesa eta erosotasuna izan daiteke.

“*Jende pila bat biltzeko tokia*” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredia. Gernika).

“(Zertarako gaztetxea?) *Lagunekin egoteko*” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredia. Gernika).


Hainbatetan azaldu dugun moduan NOREKIN? NON? Eta ZERTAN? bezalako oinarriko galderetatik hasita gaztetxoeren aisialdi guneen definiziotara iritsi ginen, HARREMANEN, ESPAZIOEN eta JARDUEREN lanildoan azterketari ekin ondoren. Prozesu honen erdigunean gaztetxoak beraiek, berezko izaera eta desioak, eta aisialdiaren inguruan dituzten bizipenak kokatu ditugu. Hori dela eta, beraien hitzetan eta esperientzietan hain garrantzitsua den autonomiaren bilaketa analisirako ardatz bilakatu dugu. Ikusi dugunez, horren arabera sailkatu ditugu *guneak heteronomiatik autonomiaruntz* doan continuum batean, guneetariko bakoitza ere continuum bezala irudikatuz hein handi batean.

Orain arte esandakoa laburbilduz, *heteronomiaruntz* jotzen duten guneek espazio ordenatuak, aratuak edota disziplinatunak izan ohi dira gaztetxoek ikuspuntutik, bertan gidaritza eta agintea nagusiki helduena izaten delarik. Horrek helduen araberako funtzionamendua eta antolaketa ezartzea dakar gehienetan, eta ondorioz, gaztetxoengan *kontrolaren* sentzazioa sortaraztea. *Autonomiatik* gertu kokatzen diren *guneak*, arautugabeko espaziotzat eta malguagotzat hartzen dituzte. Gehienetan helduen begiradatik kanpo kokatuta daude eta nerabeek beraiek arautu eta kudeatzen dituzte. Ikuspuntu horretatik, eta gaztetxoek bizipenei kasu egiten badiegu *guneen* azterketatik ateratako ondorio nagusienetariko bat hauxe litzateke: neska-mutilen aisialdia *autonomiaren muturrarekiko* gero eta gertuago egon, orduan eta harreman estuagoa gozamenaren sentzazioarekin eta gogobetetzen dien aisialdiaren bizipenarekin.

2. Aisialdiaren bizipena eta gazte izatea

2.1. Gaztetxoak eta aisialdia: elementu definitzaileak

Autonomiaren ardatzaren arabera ezberdin ditugun lau kategorietan -gune konpartituak, monitorizatuak, biziklatuak eta berezkoak- aztertu ditugu 14-16 urteko gaztetxoek nolako irudikapena egiten duten aisialdirako eskura dituzten guneetat. Ikerketa honen hasierako planteamendutik azpimarratu dugun bezala, denbora libre garrantzi handiko denbora da gaztetxoentzat; izan ere, denbora librean euren identitate pertsonala eta grupala eraikitze eta garatzeko aukera dute modu libreago batez.



Horrela, aisialdiko bizipenak oso lotuak ikusten ditugu gazte identitatea eraikitzeke prozesuarekin: aisialdiko bizipenak funtsezkoak dira gazte identitatea eraikitzeke, eta gazte identitatea eraikitzeke funtsezkoak dira aisialdiko bizipenak. Gaztetxoentzat bi esfera horien –aisialdia eta gazte izatea– erdigunean dagoen erreferentzia askatasuna eta helduekiko autonomiaren beharra da. Horrela, eurentzako, aisia da denbora libre askatasunez bizitzea; aisialdia da eguneroko errutinarekin, modu des-regularizatuan eta auto-antolatuan, haustea.

Horrexegatik, *berezko guneak* bezala definitu ditugun aisialdiko guneetan (taberna zonaldeak, diskotekak, lonjak eta gaztetxeak) aurkitzen ditugu euren aisialdiaren definizioa gogobetetzen duten elementuak: beraiek aisialdi intentsiborako aukeratutako edota sortutako eremuak; helduen mundutik aparte bereganatutako espazioak eta denborak; euren esperientzia kolektiboa garatzeko aukera eskaintzen dutenak (berezko jarduerak eta adierazpenak); askatasunezko, ebasiozko eta gozameneko sentsazioari lotutako eremuak; erabakimena eta protagonismoa sentitzekeak.

Horrela, aztertu ditugun aisialdiko gainerako aukerak eta eskaintzak mugak dituzte gaztetxoen beharrak eta betenahiak asetzeko. Azken batean, nerabeek oso argi dute aisialdi idealak hiru zutabe edo elementu definitzaileak dituela: erabaki autonomoa –libreki hautatzea zer egin, nola egin eta noiz arte egin–; jarduera bera helburu izatea eta ez bitarteko beste zerbaiterako –ilusioa sortarazten duten jarduera eta ekimenen bitartez subjektibitatearen adierazpen libre bilatzea–; eta, azkenik, zeregin horretan lagunartean gozatzea eta dibertitzea.

Baina gaztetxoak, helduen tutoretzapean daudelako eta baliabideen aldetik mugarituak daudelako, zailtasunak topatzen dituzte euren aisialdia nahi duten moduan bizitzeko. Bestaldetik, aisialdiko jarduera asko sortzaileak eta norberaren identitatea garatzeko baliagarriak izan beharrean, inertziak hartutakoak eta errepikakorrak dira (masifikatuak eta masifikatzaileak); horrexegatik, aisialdiaren errealitatea oso urruti dago idealetik, argi eta itzal asko dituen errealitatea da, aukerarik onenak eta txarrenak biltzen ditu. Aurrerago ikusiko dugun bezala, esku-hartze sozialak eta instituzionalak asko lagundu dezake nerabeen aisialdiaren hobekuntzan eta optimizazioan, beti ere nerabeentzat funtsezkoak diren aisialdiaren elementu definitzaileak desitxuratzen ez baditu (arestian aipaturikoak) eta gaztetxoen bizipenak, beharrak eta betenahiak kontuan hartzen baditu. Ikus ditzagun, beraz, esku-hartzearen arlora pasa aurretik, euren aisialdiaren azterketaren bitartez nolako balioak, gurariak eta beharrak antzeman ditugun gaur egun gaztetxoengan.


2.2. *Aisialdiko bizipenak eta balioak*

Gaztetxoen bizipenak eta portaerak ulertuko baditugu, adin-tarte horretako balio, gurari eta espektatibetan arakatu beharra daukagu; bestela esanda, haien erreferen-

tzien markoa zein den irudikatu beharra daukagu. Gaztetxoen bizitzan jokoan dauden klabeak eta gidak agerian jarri ezean, gaztetxoek ekintzak eta beraientzako dituzten esanahiak era osatuan ez ulertzeaz gain, beraiei zuzendutako jarduerak ere hankamotz gelditzeko arriskua dute.

Ondoren, gaztetxoek aisialdia ulertzeko klabeak edo koordenadak marrazten saiatuko gara, ostantzean, gaztetxoek egiten dutenaren atzean dauden desioen, balioen eta nahikarien enkuadrea osatu ezean, gaztetxoek bizipenetaz ezer gutxi ulertuko baitugu.

Gaztetxoek bizipenen puzzlea ulertzeko, elkarri lotutako lau klabe edo pieza esanguratsu azpimarratuko genituzke, segidan banan-banan aurkeztuko ditugunak.



A. Ziurtasun eza eta etengabeko insatisfakzioa

Gaztetxoek beraien kaxa mugitu eta aritu nahia oso berezko ezaugarria dute; inori kontuak eman behar izan gabe bizitzeko amorrutan daude. Sentimendu hori nabarmentzen bazaie ere, beraien inguruko gizartean helduekiko dependentzia etengabe luzatzen dela ikusten dute. Pertsona autonomo lez, inguruko gizartean integratuta bizitzera iritsi bitarteko bidea luzea eta oso malkartsua dela somatzen dute. Pertzepzio horrek askotan frustazioa sortarazten du beraiengan. Gainera, azalean sentitzen dute ere inguruko helduen gizarteko kontsumismoaren eta formazioaren presio sendoa.

Etorkizunean, bizitzan nor izateko hontatik eta hartatik edukitzea azpimarratzen duen gizarteko ulerkerak barneratua dute; formazio zabala eta etengabekoa izan ezean ondasun materialak, zein sinbolikoak edo ez materialak, eskuratu ezina, eta hortaz, bazterrean gelditzeko arriskuak “arrakastaren eredia” zein exijentea eta gogorra den gogorarazten die, frustrazioa oinarritzeko beste harlauza bat jarriaz. Etorkizunean izan nahi dutenaz ez daukate segurantzarik, eta nahi luketena lortzera iritsiko ote direnaz ere ez. Ziurtasun ezaren bizipen horrek inguratzen dienarekiko insatisfakzioa elikatzen du.

“...es una edad que tienen muy poquita seguridad” (Elkarrizketa. Europa Gizarte Etxeko monitorea. Gasteiz)

B. Helduekin norgehiagoka

Autonomiaren bilaketari estuki lotuta dagoen faktorea da helduekiko ezartzen duten norgehiagokazko dinamika eta jarrera. Adin-tarte horretako gaztetxo gehienengan antzeman daitezke helduengandik aldentzeko saiakerak. Helduengandik aldentzeko joera alderdi ezberdinetik ikus liteke. Alde batetik, helduekiko harremanak baino denbora eta intentsitate gehiagorekin bizi dituzte beraien parekoekin dituzten harremanak, aisialdian bereziki. Garrantzi eta pisu nabarmena dute gaztetxoentzat beraien parekoekin dituzten talde harremanak, eta helduengandik urrunduta, beraien identitatea osatzeko etengabe bilatzen dituzte talde harreman horiek. Bestalde, aisialdirako berezko espazioak bilatzeko edota sortzeko ahalegina ere nabarmena da; helduengandik aparte, autonomia eta askatasun sentsazioz aisialdian lagunekin egoteko espazioak lortzeko sendo saiatzen dira gaztetxoak. Azkenik, aisialdiko jardueri erreparatuta, bistakoa da ere, helduek zehaztutako eta bideratutako aisialdirako jardueri, jarduera bera gustukoa izan arren, muzin egiteko joera erakusten dutela gaztetxoek, hain zuzen ere, helduen eskutik datorkiena delako, helduek kontrolatutako jarduerak direlako.

Beraien autonomiaren bilaketan, beraien parekoekin taldean esperimentatu nahia oso hedatua dago gaztetxoengan; ziurtasun eza ere medio dela, portaerak zein

balioa frogatu eta esperimentatzen dituzte era kolektiboan, inoiz gutxitan, taldearen babesetik kanpo.

Etorkizunean izango denaren ziurtasun ezak, eta helduen bide eta dinamiketatik aldentzeko joerak unean unekoari -presentismoa- ematen dio indarra. Aisialdiaren arloan, gaztetxoentzako gauak duen indarra izan liteke helduekiko harremana ulertzeko eraren beste adierazle bat⁶. Aisialdi eremu berezia den heinean, gauaz luzezabal hitz egin beharko genukeen arren bere dimentsio ezberdinetaz ohartarazteko, gaztetxoaren gaueko aisialdiak helduekiko norgehiagoka dinamikarekin duen harremana baino ez dugu bistarazi nahi. Helduek etxera itzultzeko ezarritako ordutegia aldatzeko ahalegin tematia egiten dute gaztetxo gehienek⁷. Izan ere, etxera bueltatzeko ordua asko sinbolizatzen du; batetik, norberaren autonomia eta askatasun pertsonala noraino iristen den (zenbat eta beranduago libreago); bestetik, oso berandu iristeak, sozialki, parranda eta dibertimendu handiaren adierazle gisa hartzen da.

Beraientzako, beraien lagunekin egoteko, denbora da irabazi asmo dutena. Helduak lo daudenean mundua beraien gobernatzeko dutela sentitzen dute, beraien direla helduak; baina horretarako helduek ezarritako orduren araua hautsi edo negoziatu beharrean dira, norgehiagokari eutsi beharrean.

C. Besteen beharra; dependentzia afektiboa

Aurreratu dugun bezala, lagun-taldeak berebiziko garrantzia dauka adin-tarte honetako gaztetxoentzat; nerabeak gutxitan daude beraien bakarrik gustura, beraien parekoekin hartuemanak edukitzea behar dute. Aisialdiari dagokionez, taldeak biltzen ditu aisialdiaren dimentsio ezberdinak: harremanena, espazioarena nahiz jar-

⁶ Gaua dela eta, Feixak eta Pallarések egiten duten analisia berrezkuratu beharrekoa iruditzen zaigu berriz. Horrela mintzaten dute egile hauek gauak gazteen unibertsoan duen garrantziaz: *Se han acomodado en la noche (gazteak) ya que probablemente es el único tiempo posible que les cede la sociedad, por eso luchan por apropiarse de ella encarnizadamente, a pesar del riesgo de no participar en otros tiempos más decisivos (...). Intentan hacer suyo lo poco que poseen, aunque pueda significar el juego del pez que se muerde la cola, un eterno retorno a la no inclusión, una dependencia excesiva de los adultos. Ibidem, p. 32 orria.* ⁷ Horrela irudikatzen dute Feixak eta Pallarés ordutegia dela eta gazte eta helduen arteko ematen den "borroka": *La noche, relacionada con la hora aceptable u objetiva de regreso, en determinadas edades (el final de la adolescencia y primera juventud) marca el nivel de autonomía respecto a los adultos más próximos (familia) y el lugar que se ocupa entre los y las jóvenes; tiene un sentido concreto de transición a la adultez y simboliza un cambio importante en sus vidas. Ibidem, 33 orria.*

⁷ Horrela irudikatzen dute Feixak eta Pallarés ordutegia dela eta gazte eta helduen arteko ematen den "borroka": *La noche, relacionada con la hora aceptable u objetiva de regreso, en determinadas edades (el final de la adolescencia y primera juventud) marca el nivel de autonomía respecto a los adultos más próximos (familia) y el lugar que se ocupa entre los y las jóvenes; tiene un sentido concreto de transición a la adultez y simboliza un cambio importante en sus vidas. Ibidem, 33 orria.*

duerarena. Taldean bilduta, lagunekin hartu-emanen egotea da beraien aisialdian pisu espezifiko gehien daukana; lagunekin dituzten harremanak funtsezkoak dira gaztetxoentzat. Bestalde, taldea bera aisialdirako espazio bihurtzen da, aisialdirako lekua taldea da, taldeak aukeratu eta osatzen duen lekua. Azkenik, aisialdi jardueretaz hitz egiten dutenean gaztetxoek, ia zuzenean, taldeen egonaldietaz hitz egiten dute, taldeak bilduta egiten dituen saioetat, egitekoari edo mamiari baino gehiago, taldean egotea azpimarratuz.

“...disfrutar a tope... con tus amigos, aunque te aburras, sólo disfrutas estando con los amigos” (Eztabaida taldea. Europa Gizarte Etxeko gaztetxo erabiltzaileekin. Gasteiz)

Gaztetxoak taldean egotea du gustuko, bere parekoekin bilduta, denen artean osatzen dutenaren kide sentituz; kidesuna edo bestela esanda, pertenezia sentimenduaren beharra dute gaztetxoek. Nor sentitzeko zutabe garrantzitsua da oso taldeak ematen diena. Horrela, harreman beroak eta hurbilak bilatzen dituzte, eta talde txikiak edo mikrogizarteak eratzeko joera dute (nolabaiteko tribuak).

“...denbora galdu? ba denbora galdu behar da; guk (helduek) ikusten duguna denbora galtzea dela, igual beraientzako ez da denbora galtzea, ia bakarrik egotea” (Elkarrizketa. Irakaslea. Getxo)

Lagunarteko harremanak idealizatzeko joera ere antzeman liteke gaztetxoengan; egoneroako lagunarteko harremanek sasitik eta arantzatik ere badutelako beraien esanetan. Laguntaldeko kideen arteko ez da beti armoniotsua izaten, liskerrak oso arruntak izaten baitira eta asko sufritzen dute euren arteko ezadostasunak edo burugogorkeriak direla eta.

“...dena bizitzen dute ‘muy intenso’, dira ‘muy tremendistas’” (Elkarrizketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz)

D. Balio latenteak; unibertso sinboliko definiturik eza

Aztertutako gaztetxoaren adin-tartekoaren ezaugarrietako bat da unibertso sinboliko definiturik ez edukitzea. Oro har, esperimentatzeko eta frogatzeko aroa da beraiena, balioak bereziki ere bai. Inguruko gizarte-sareek hainbat balio barreiatu dizkie, eta transmititutako horien artean zeintzuk beraientzako hartu eta zeintzuk transgreditu ez dute definituta. Erreferentziatzen hartzen dituzten taldeengan edo norbanakoengan, hau da, gaztetxoek aintzat hartzen dituztenengan antzematen dituzten balioak barneratuak izateko bidea errazago egingo dute, baina gaztetxoek beraiak, oro har, oraindik ez daukate ideien eta balioen sistema estrukturatu eta definitu bat. Argi dago ere, horrek ez duela esan nahi gaztetxoak anomian eta balio-hutsunean murgilduta daudenik; balioak izan badituzte baina finkatu gabekoak, beraiena balioak definitzen joateko aroa baita.

Gaztetxoek portaerak eta jokamoldeak gidatzen dituzten balio bezala agertutakoek artean azpimarratuta jaso direnak ondorengoak dira: laguntasuna, dirua eta kontsumoa, segurtasuna-pragmatismoa eta etorkizunarekiko eszeptizismoari lotutako presentismoa. Ugariak eta hainbatetan agertutakoak dira aipatutako balioen inguruko adierazpenak, ondoren horietako zenbait agertzen ditugu:

Dirua eta kontsumoaren inguruan:

“...el dinero es lo principal, es el núcleo” (Eztabaida taldea. Ikastola, D eredu. Gasteiz)

“De cara al futuro, ¿qué es lo que más os preocupa de cara al futuro?”

- *...hacer algo...-, ...-...el trabajo que voy a tener...-, -...no encontrar trabajo...-, ...-ser algo en la vida-, -...tener un buen trabajo-...*

- *¿y lo que os gustaría conseguir algún día?*

- *!dinero!, !mucho dinero!...*

- *...trabajar en una oficina de lunes a viernes y viernes libre por la tarde y fines de semana y móvil y coche a cargo de la empresa y vacaciones pagadas... (Eztabaida taldea. Gazte-leku elkarteko lokalean; kuadrila berekoak. Bilbo.)*

Segurtasuna eta pragmatismoaren inguruan:

“en lo fundamental no discutimos porque tenemos las de perder”. (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa)

Etorkizunarekiko eszeptizismoaren gainean:

“...ahora se les exige antes que nunca una definición personal... o sea ‘¿qué quieres estudiar a los quince años?’...qué quieren hacer con su vida. No están preparados para pensar qué quieren ser...ingenieros agrónomos...y esa decisión la tienen que ir tomando desde muy jóvenes...” (Elkarrizketa. Aisialdi talde hezitzaileetako koordinatzailea eta begiralea. Gasteiz)

“...son muy escépticos,...es un poco eso de ‘si la vida es una mierda’...¿qué nos espera?” (Elkarrizketa. Aisialdi talde hezitzaileetako koordinatzailea eta begiralea. Gasteiz)

Nabarmena da balio horiek gehienak ez direla gaztetxoek soilik eta eksklusiboki; gure inguruan gaztetxo ez direnen artean ere ondo hedatuta baitaude.

2.3. Aisialdia eta gazte identitatearen eraketa

Hona arte esandakoaren bidetik, gaztetxoaren autonomiaren bilaketa eta aisialdiko bizipenak elkarri lotuta doaz, eta beraietako bakoitza ulertuko bada, bestea zertan den presente eduki beharra dago. Hau da, gaztetxoaren aisialdiko bizipenak ulertzeko, gaztetxoek beraien bizitza inori kontuak eman gabe beraiak gidatzeko duten gogo ezin da begi bistatik galdu. Bestalde, gaztetxoaren autonomia bilaketa beraien identitatea eraikitzeke ahaleginaren eskutik doa, eta ahalegin horretan lehentasunezko eremua aisialdiarena dute.

“Apartados de los centros de poder (gazteak) donde se toman las decisiones, se mueven en esos otros tiempos y espacios (gaua eta asteburua) que aunque no confieren la condición de ciudadanía otorgan un mínimo de protagonismo lejos del mundo ‘ordenado’ y de la presencia de los adultos. Lo cual ha pasado a formar parte de sus señas de identidad y ha llegado a ser un elemento fundamental de su personalidad social: diferenciarse de los adultos y de su mundo, y a la vez entre ellos”⁸.

Gaztetxoaren aisialdiaren ikerketari heltzeko taxututako hiru lanildoetan (aisialdiko harramanak, espazioak eta jarduerak) jaso dugu aurrez esandakoaren konstatazioa.


Esandakoa, gaztetxoaren bizipenak eta balioak harremanetan jarri aurretik gogoan edukitzekoa delako aipatu dugu tarte honetan. Izan ere, aisialdiko harremanetan, jardueretan zein espazioetan, guztietan proiektatzen diren gidak eta gurariak argitu nahi genituzke hemen.

Gaztetxoaren unibertso nomikoak behinbetiko definizio eta estrukturaziorik oraindik ez duela aipatu badugu ere, gaztetxoentzako beraientzako zerk duen balioa eta garrantzia, eta bizitzaren momentu honetan zer izan eta lortu nahi duten bai adierazi digutela. Hartara, beraiak adierazitako nahiak eta gurariak dira: lagunartekotasuna, experimentazioa eta emozioa. Besteen artean, gaztetxoaren aisialdiko bizipenen berri ematerakoan nabarmen agertutakoak dira hiru gurari eta gida horiek. Aisialdiko harremanetan, jardueretan zein espazioetan transbertsalak direla esan liteke, eta beraiak direla, autonomiaren bilaketarekin uztartuta, gaztetxoaren aisialdiko ekin-tzen gidak eta oinarritzko zutabeak.

Lagunartean egotea, lagunekin orduak ematea eta lagun berriak ezagutzea desio eta gogo errotua da gaztetxoaren artean; hain da sendoa gurari hori, berak bakarrik gaztetxoaren ia aisialdi osoaren berri ematen duela.

⁸ Ibidem, 33. orria.

2.3. Aisialdia eta gazte identitatearen eraketa



“...Si no se sienten importantes dentro de sus amigos, de su cuadrilla, pues no se sienten importantes en ningún ámbito de su vida” (Elkarrizketa. Europa Gizarte Etxeko begiralea. Gasteiz).

Halere, beste zutabeak edo gidak kontuan hartu ezean, ezingo genituzke ulertu gaztetxoek aisialdian dituzten bizipenak. Lagunartekotasunarekin batera, experimentazioa eta emozioa oinarritzko elementuak dira gaztetxoentzako, aisialdiko bizipenetaz ari garela aparteko lekua eskatzen dutenak. Honetatik eta hartatik probatu nahi dute, gai materialak ere, baina bizipenezkoak bereziki; experimentatzeko grina nahi bat da neurri batean, eta beharra ere beste batean. Experimentatzea jolas gustagarria da, baina baita ziurtasun faltak eragindako behar bat ere. Experimentazioa eta frogatzearen dinamika, batipat, taldean gauzatzen den dinamika da, beraien parekoekin, laguntaldearekin bat eginda.

“...familiarengan aurkitzen ez dutena, edo aurkitu nahi ez dutena, lagunengan aurkitzen dute” (Elkarrizketa. Irakaslea. Getxo)

“...pues a esa edad lo que buscan es estar con sus amigos, fuera de las directrices de los padres, de los profes, de la autoridad, por así decirlo”. (Elkarrizketa. Europa Gizarte Etxeko begiralea. Gasteiz).

Lagunartean egon eta aritzeaz gain, eta esperientzia berriak ezagutu eta dastatzeko gogo eta joeraz gain, emozioa ere bilatzen dute aztertutako adin-tarteko gaztetxoek. Nolabaiteko abenturen egarri daude, eta ekintza kilikagarriak dira desio dituztenak.

“...bebar dute zirrara bizia” (Elkarrizketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz)

Horrexegatik, egunerokotasunetik ateratzen den hura, ia berez, egiten zaie gustagarria; ez bakarrik egunerokoa ez dena, arrunta ez denak ere bereziki erakartzen die. Horrek ez du esan nahi beraien aisialdian errepikapenik eta betiketutako dinamika ez dagoekin. Halere, zerbait bilatzen badute gaztetxoek, eta modu tematian gainera, festa giroa da; algarak, barreak eta kilikak erdigunean dauden bizipenak dira beraiantzako ipar.

Aipatutako aisialdirako hiru gurariak (lagunartekotasuna, experimentazioa eta emozioa), esan bezala, aisialdiko harremanen, jardueren eta espazioen dimentsioak gurutzatzen dituzte, hau da, dimentsio bakoitzean dira lortu-asmoak gaztetxoentzat. Izan ere, aisialdiko bizipenetan hiru elementu horiek duten presentziaren eta pisu espezifikoaren arabera, bizipen ahantz ezinak bezala edo gertaera arruntak bezala baloratuko dituzte.

Aisialdiko bizipenen eremuan, nahiz autonomiaren bilaketaren bidean, beraiantzat funtsezkoak diren lagunartekotasuna, experimentazioa eta emozioa, hirurak bizitzeta da gaztetxoek guraria. Gaztetxoei parametro horiekin jardutea ahalbidetzen dien esparrua kontsumoarena da; kontsumoaren arloa da aisialdiko bizipenen hiru zutabeak aktibatze eta garatzeko aukerak ematen dituenak.

“...kontsumoa oso inportantea da beraiantzat, transmititu den zerbait da; zenbat eta gehiago eduki, orduan eta hobeagoa zara” (Elkarrizketa. Irakaslea. Getxo)

“...diru asko manejatzen dute...txutxeriak, tabakoa, arropa -markakoak, mobila...” (Elkarrizketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz)

Ez bakarrik kontsumoaren arloa, aisialdirako *berezko guneak* eta festa giroa ere gaztetxoek gurariak betetzeko eremu aproposak direla antzematen dute. Ez da antzemate hori gaztetxoek barne munduak sortua, haien inguruko gizartearen balio dominanteen eraginpean sortutakoa baizik. Helduen munduak helarazten dizkien nahigabeko mezuen arabera aisialdian gozatzeko, eta baita nor izateko ere, era askotako kontsumoa eta festa giroa ezinbestekoak direnez, gaztetxoentzat ere,

aisialdirako beraien territorio propioa diren berezko guneekin batera, kontsumoa eta festa giroa, gazte identitateak eraikitzeke, gazte bezala nor izateko funtsezko bideak dira. Hain justu, beraien identitatea eraikitzeke aukera ematen dietelako, helduengandik eta baita beste gaztetxoengandik bereizteko aukerarekin batera, horregatik egiten zaizkie gaztetxo gehienei hain erakargarriak eta desiragarriak berezko guneen, festa giroen –gauarena, bereziki– eta kontsumoaren arloaren ezaugarriak. Eremu horietan lagunartekotasunaren, experimentazioaren eta emozioaren indarra sentitzeko aukerarekin, gaztetxoak bereizte prozesu batean eta, aldi berean, identitatea eraikitzeke jardunbidean murgiltzen dira.

2.4. Aisialdia eta bereizketa prozesuak

Gaztetxoen aisialdia ulertzeko garaian beharrezkotzat jo ditugun giltzarrien artean *bereizketa* prozesu bezala izendatu duguna azpimarratu beharko litzateke. Gizarte balioen azterketari heltzearekin eta gazte identitatearen eraketa jardunbidearen azalpenarekin gertatzen den bezala, *bereizketa prozesuaz* arduratzeak gaztetxoek eta bere aisialdia ingurune zabalago batean eta baldintza orokorragoen menpe kokatzea esan nahi du. Ikuspegi hori, txosten honetan azpimarratu nahi izan dugun moduan, ezinbesteko abiapuntutzat jo dugu. Izan ere, aisialdia jarduera solteak bezala kontsideratu baino, gaztetxoen esperientzia osoetatik oso gertu dauden bizi-penekin, nahiekin eta kezkekin lotzen baitugu. Ondorioz, aisialdiak hainbat gizarte baliorekin eta gazte identitate eta adierazpenekin zerikusia duen neurrian zentzu zabala eta konplexua hartzen du, gazte izateari, baina baita ere gizarte osoari hurbiltzeko aldagai interesgarri bilakatuz. Uste horren ildotik, nerabe eta aisialdiaren arteko lotura ulertzeko, lotura honetan gauzatzen den ezinbesteko elementu batean erreparatu behar izan dugu: *bereizketa prozesua* deitu duguna, alegia.

Gaztetxoen aisialdiaren analisiarekin jarraituz, bereizketa prozesu honek errealitatean alde bikoitza duela esango genuke. Batetik helduengandik apartatzeari dagozkion bereizketa egongo litzateke. Bestetik, gaztetxoek beraien artean bultzatzen duten banaketa edo zatiketa legoke. Aldi berean, funtsezkotzat hartu ditugun bi prozesu hauen oinarrian gizarte bera edo egiturazko zenbait aldagai kokatzen direla azpimarratu beharko litzateke. Azken batean argi dago, generoa, maila sozio-ekonomikoa, ingurunea edota identifikazio etnolinguistikoa bezalako aldagaiek gainontzeko gizarte dinamikak baldintzatzen dituztela.

Jatorrizko gizarte bereizketa hauek aisialdian duten eraginaz aurrerago mintzatuko gara. Oraingoz, *bereizketa prozesu* horretan antzeman ditugun bi mailetan sakonduko dugu: lehenengoz, nerabeek aisialdia dela eta, helduengandik bilatzen duten etenduran; bigarrenez, aisialdiaren inguruko joerak eta jarrerak direla eta, gaztetxoen artean garatzen diren haustura elementuetan eta dinamiketan. Bai batean, bai bestean, behinbetiko ondorioz ateratzeko dauden zailtasunak azpimarratu behar



dira, nerabeek beraien identitatearen eraketa prozesuan murgilduta dauden heinean, askotan jokaera kontraesankorrak baino ez dituzte adierazten; iritzi, jokaera eta ikuspuntu aldakorrak eta malguak nagusituz.

2.4.1. Helduekiko eta gazteekiko tentsioak: autonomia eta mimetismoa

Esandakoaren harira, gaztetxoek helduengandik bilatzen duten bereizketa hori tentsio puntu batean oinarritzen dela esango genuke. Hori dela eta, neska-mutilak helduen instituzioekiko edo erakundeekiko duten lotura ezabatzen saiatzen badira ere, horien beharra eta horiekiko garatzen duten mimetismoa agerian uzten dute maiz. Azken finean, helduen *estatusa* lortu nahi duten neurrian, helduek garatzen dituzten zenbait jokabide bereganatzea beharrezkoa egiten zaie. Bide horretatik, halaberharrez, gizarte integrazioari edota egokitze prozesuari aurre egiten diote; askotan jokaera horiei loturiko bizipenak eta usteak bestelakoak baldin badira ere. Gauzak horrela, helduen kontrolpean dauden instituzioei uko egitea, (familia eta

eskola esate baterako) ohiko joeratzat har genezake. Halere, horrekin batera, gura-soekiko, hezkuntza sistemarekiko edo kuntsumismoarena moduko gizarte balioekiko lotura edo dependentzia erraz antzeman daiteke egungo gaztetxoaren artean. Hori dela eta, behin baino gehiagotan topatu ditugu mahai gainean -printzipioz-ulergaitzak diren diskurtsoak eta argudioak: gurasoengandik urrundu nahia baina familiaren babesa eta sostenguaren beharra eta dependentzia; formazioak egungo gizartean duen prestigioa eta balioaren aitortpena, eta eskolaren aurkako kritikak; kontsumismoaren inguruko salaketak eta gaztetxoek egun kontsumorako zenbait produktuekiko duten lotura estua (telefono mugikorra, erropa eta markak...).

Helduekiko edo zenbait erakundekiko sortzen diren tira-bira horietan nagusitzen den “ezkutuko” joera mimetismoarena baldin bada (“helduarena” egin nahia); gaztetxoek beraien artean garatzen dituzten jokabideek dibertsitatea eta aniztasuna azpimarratzera eramango gintuzke. Ikuspuntu horretatik, hartara nerabeek bere (“heldu”) identitatea garatzen duten bitartean, gazte izateko era eta estiloa propioa definitzen eta zehazten saiatzen dira. Azken batean “nagusia” izateko bidea, *gazte izaten* egiten dutelakoan daude. Hori horrela izanik, *gazte izate hori* adierazteko aukeratzen duten moduari eta bideari berebiziko garrantzia ematen diote, bertan garatzen baitute hezte/hazi prozesu hori. Gaur egun, gizartean integratzeko beste biderik lortu ez dutenez (bide profesionala, edo goi mailako kontsumo bidea, esate baterako) gazte izateari -bereziki- lotutako elementuek indarra hartzen dute bereizketa prozesu horri ekiterakoan. Horien artean egun baliabide ohizkoenak musika, estetika, kontsumo joerak eta -maila apalago batean izanda ere- hizkuntza lirake⁹. Horiek direla eta, nerabeak erraz mintzatzen dira inguruan aurkitzen dituzten gazte talde ezberdinetaz, horretarako janzkeran edota itxuran bereziki erreparatzen dutelarik.

Halere, ezberdintasun horietan sakontzen dugunean gaztetxoaren artean aurki daitezkeen aniztasuna nabarmena dela azpimarratu beharko genuke; bereizketa hauen inguruan egin daitezkeen ñabardurak, eta horiek nerabeen egunerokotasunean duten islada dirudiena baino askoz konplexuagoak dira eta. Horretaz gain, konplexutasun honen azterketari ekiterakoan gaztetxoaren arteko berezko dibertsifikazio hau egiturazko gizarte aldagaiekin nahasten dela kontuan hartu beharko litzateke, edozein tipologizazio ariketa oso zaila bihurtuz.

Zailtasunak zailtasun, datozen orrialdetan gazte kultura eta gazte izateko era ezberdinak definitzen dituzten zenbait aldagai azalduko ditugu. Hausnarketa honek azterketa sakona baino aipatutako dibersifikazio horrenganako hurbilpena izan

⁹ Ikerketa honek EAEan indarrean dauden bi hizkuntzek *gazte izate* horren adierazpenetan duten garrantzia ez du bereziki aztertu. Halere, adituek behin baino gehiagotan lotu izan dute adina -eta berezko ezaugarriak- euskara eta erdararen erabilpenarekin. Zentzu horretan, hipotesi gehienek gazte izaerak erdera hitzegitearekin lotuta dagoela diote -ume izaten utzi nahi horri lotuta alegia-; adin horretan euskararen duen balio sinbolikoa edo erreferentzialtasuna bestelakoa izanda ere -gazteen arteko bereizketa prozesuari heltzeko garaian hizkuntzak indarra duen aldagai inportantea izaten jarraitzen baitu-.

nahi du, interesgarritzat jo ditugun zenbait aldagairengan gain arreta jarriko dugularik. Hauen artean hiru nabarmendu nahi izan ditugu: generoa, ingurunea eta, azkenik, *gazte kultura* (edo gazte adierazpenak) moduan izendatu duguna, bertan estetika, musika, pentsakera, topaguneak eta ibilbideak elementu *bereizgarri* moduan ulertu ditugu.

Dibersifikazio eta gaztetxoen arteko bereizketa prozesu honi ekin aurretik zatiketa honen oinarrian kokatua dagoen elementu komuna nabarmendu behar dela uste dugu. Izan ere, gazte batetik bestera janzteko, pentsatzeko edota izateko eratan ezberdintasun handiak topatu baditugu ere, aisialdiak nerabeen lagunartekotasuna bultzatzeko garaian hartzen duen pisua eztabaidaezina dirudi. Ondorioz, aisialdiaren inguruko nahi, desio, esperientzia eta bizipenen artean *gazte izate* horri dagozkion elementu ugari aurki daitezke, baina gehienak helburu berberetara zuzenduak agertuko lirateke: *ondo pasatzera!*

Beraz, gazte izatea eta aisialdiaz gozatzea ia sinonimotzat jo ditzakegu. Ideia hori datozen hitzek ezin hobeto isladatzen dute:

“Si no te lo pasas bien es como marginarte”. (Eztabaida taldea. Aisialdi talde bateko partaideak. Altza-Donostia).

Dena den, gazte izatea babesten duen ideia horren azpian, interpretazio eta bizipen oso ezberdinak aurkitu ditugu. Hori dela eta, dibertsitate hori aztertzeke garaian hiru elementutan sakontzea erabaki genuen, ikerketaren proiektuan ere horrela aurreikusi genuen eta. Aipatu dugunez, elementu horiek generoa, ingurunea eta gazte kultura dira. Elementu bakoitzari eskaini diogun hurbilpena xumea izan arren, zenbait ondorio interesgarri ateratzeko lagungarria izango delakoan gaude.

2.4.2. Gaztetxoen arteko bereizketak. Gazte izateko erak: generoa, ingurunea eta gazte kulturak

Generoa eta aisialdia

Gazte izateko eran eta, aisialdiaz gozatzeko modu ezberdin horietan generoaren aldagaiak zeresan handia duela erakutsi du ikerketa honek. Hori ekarpen berria ez bada ere, azken aldian egindako hainbat ikerketek errepikatzen duten ondorioa konfirmatuko luke: gizarteak emakumeentzako eta gizonezkoentzako eredu ezberdinak ezartzen ditu, eta hortaz jabetuta gaztetxoek errealitate horren irakurketa eta aplikazioa egiten dute. Hori horrela dela onartzen bada, generoari dagozkion ezberdintasunak aztertu beharko lirateke alde batetik, eta gaztetxoen bizipenetan ezberdintasun horiek nola gauzatzen diren, bestetik.

2.4.2. Gaztetxoaren arteko bereizketak: gaztea izateko erak: generoa ingurunea eta gazte kulturak (1)

GAZTE IZATEA = AISIALDIAZ GOZATZEA

“SI NO TE LO ESTAS PASANDO BIEN ES COMO MARGINARTE”

HARREMANAK:

- Afektu eta sentimenduetan oinarriturik.
- Talde txikiagoetan antolatuta.

ESPAZIOA:

- Mugen barneraketa.
- Leku itxietan biltzeko joera.

JARDUERAK:

- Autonomo/Bakarkakoak.
- Isladatzailak: Inguruko onespeneraren bilaketa.

Generoa eta Aisialdia

“Los tíos si no nos ponemos ciegos, nos vamos a poner a hacer el idiota (...) Y las chicas pues se van a un disco-bar y se ponen a bailar y se lo pasan bien”.

“Askotan neskak gitxiago kontrolatzen dira”.

“Ellas juegan al juego de la verdad y nosotros (...) a ver quien dice la gilipollez más guarra”.

“Ahora ves más a más chicas más borrachas, más fumadoras y más de todo”.

HARREMANAK:

- Laguntasunean oinarriturik
- Taldearen babes.

ESPAZIOA:

- Mobilidadea.
- Okupazioa.

JARDUERAK:

- Taldekakoak.
- Agerikoak: identitatearen adierazle

AISIALDIA: AURREIKUSPEN ETA PRESIOARI ERANTZUTEKO GRINA

Gizarte aurreikuspen
eta kontrol
zorrotzagoa



Emakumeentzako
gizarte eredia

Gizonezkoentzako
gizarte eredia



Gizarte aurreikuspen
eta kontrol
malguagoak

AISIALDIA: BEREZKOTASUNA ETA DESIOAK ADIERAZTEKO BIDEA

Bestalde, ezberdintasun edo bereizketa horiek diskriminazioak bilakatzeko arriskuak sor ditzakete. Hausnarketa honek, arrisku horiek non eta nola sor daitezken ohartarazteko balio beharko luke. Izan ere, prozesu horretan parte hartzen duten elementu eta dinamikak ezagutu gero, diskriminazio egoera horiek ekiditeko baliabideak jarri ahal izango lirateke.

Analisi ariketa zaila dela esan behar da, aldez aurretik, gaztetxoek ezberdintasunak badirela aitortzen badute ere, ez baitute diskriminazio egoerarik igartzen. Egoera honen aurrean beraz, gaztetxoek aipatzen dituzten ezberdintasun horien baitan diskriminazio bihurtzeko aukerak nola sortzen eta non dauden antzematea eta azalartzea beharrezkoa dirudi.

Ondorioz, eta analisia erraztu asmoz, harremanei, espazioei eta jardueri dagozkien sexuen arteko berezitasunak aztertu ditugu. Azalpen sakona osatu ezin izan badugu ere, gutxienez azterketan zehar generoaren inguruan jasotako zenbait inpresio mahaigaineratzea eta horien irakurketa xumea eskaintzea interesgarri ikusi dugu.

Hasteko eta ikuspuntu orokor horretatik baldin bada ere, neska eta mutilek aisialdiako harremanen inguruan ikuspuntu, jokaera eta bizipen oso ezberdinak dituztela azpimarratzen ausartuko ginateke. Nesken kasuan, adibidez, hauek lagunekin sortzen duten tratua afektu eta sentimenduetan oinarritzeko joera dutela esan daiteke. Hori dela eta, biziki eta intentsitate handiarekin bizi izaten dute lagunetik harremana, horren inguruan sortzen diren momentu onak eta txarrak zorientasuna eta poza edo etsipena eta tristurarako zioa izanik. Laguntasuna bizitzeko modu honi lotuta edo, nesken artean talde txikiagotan antolatzea izaten omen da ohikoena. Ikuspuntu horretatik, koadrilan ibiltzea (neska edota mutilez osatutako koadrilatan) gustatzen zaiela aitortu arren, adin horretako nesken arteko joera bikoteak edo hirukoteak osatzea litzateke. Nesken artean lagun minaren figura da gehien bilatzen den eredu. Harreman horren babesean mugitzen dira neskak askotan, taldez talde, lagun berriak bilatzen eta jende berriengana hurbilduz.

Mutilak aldiz, laguntasunean dute harremanen oinarria. Kontzeptu hori zentzu zabal eta ireki batean ulertzen dute. Kasu honetan, gaztetxoek beraiek diotenaren arabera, lagunei buruz hitz egiteko garaian, haien presentzia, elkartasuna eta laguntasuna dira elementu garrantzitsuenak eta gorai patuenak. Lagun taldeak berak harremanetarako esparrua osatzen du eta hor aurkitzen dituzte mutilek beharrezkotzat jotzen dituzten babesa eta erreferenteak. Honen ondorioz, gehienetan, laguntasuna bera definitzeko eta garatzeko orduan banakako pertsonak baino taldeak hartzen du indarra. Hori dela eta, -eta neskeekin konparatuz- mutilen arteko harremanak eta tratua askoz arinagoa dela esan daiteke. Arintasun horrek bidertzen du ziurrenik mutil koadrilaren biziiraupen luzea, izan ere afektu eta sentimenduzko karga gutxiago izanik gaizki-uletzeetatik sor daitezkeen arazoak eta desadostasunak ez dituzte hain modu intentsuan bizitzen. Horrek mutilen arteko liskarrak biguntzeaz gain, horien konponbidea erraztu egiten du, salbuespenak salbuespen noski.

“... veo que las cuadrillas de chicas como que varían mucho más. Por la relación catastrofista de ..., o sea, esos vínculos de..., quiero decir que una cuadrilla de chicos se mantiene más, durante más tiempo, pero las de las tías igual varían más, porque se bunden más fácilmente, por chorradas...” (Elkarrizketa. Aisialdi talde hezitzaileetako koordinatzailea eta begiralea. Gasteiz).

“... eso es diferente de vosotras, que cogéis a una, la ficháis, y decis: esta es mi mejor amiga, sólo voy a hablar con ella”. (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoan, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

“... las chicas entre ellas son unas cotillas. Se ponen verdes a la espalda pero vamos...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

“Ellas juegan al juego de la verdad y nosotros a ver quien dice la gili pollez más guarra.” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

“... si una amiga mía tiene un problema lo cuenta y nosotras le ayudamos. Vosotros pasáis olímpicamente”. (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

Harremanen kasuan gertatzen den bezala, espazioaren inguruko bizipenak aztertze-ko garaian neska eta mutil gaztetxoek arteko ezberdintasunak nabarmen agertzen direla esan daiteke. Neskak leku bilduagoetan biltzeko joera dute. Hori dela eta, askotan liburutegiak, kultur etxeak, kafetegiak edo zabalera handiko merkataritza gunek beraien topagune bihurtzen dituzte. Beraz, eseritzeko, lasai egoteko eta hitzegiteko tokiak dituzte bereziki gustuko neskek. Mutilek aldiz, toki irekiak eta zabalak nahiago dituzte eta kalean, parkeetan eta plazetan biltzea eta egotea gustatzen zaiela diote. Gainera halako tokiek aparteko txokoak, bankuak eta aterpea eskaintzen dituzte: horiek bereganatuz gero aproposak izaten dira laguntaldearen egoitza bihurtzeko.

“... las chicas si tienden a juntarse más en sitios cerrados y... Yo creo que eso no ha cambiado (...) en lo cotidiano si que siguen repitiendo cosas de ocupar otros espacios, de hacer actividades... Como de mantener o preservar el típico rol de las mujeres.” (Elkarrizketa. Aisialdi talde hezitzaileetako koordinatzailea eta begiralea. Gasteiz).

Aisialdia eta espazioaren inguruan neska eta mutilen artean sortzen diren ezberdintasunetan sakontzeko asmoz, batzuk eta besteek beraien gertuko ingurunean mugitzeko duten aukerei buruzko hautemateak aipatzea interesgarritzat jo dugu. Kasu honetan ere, gaztetxoentzat hain garrantzitsua den aldagaiak hitzegiterakoan neskek eta mutilek dituzten bizipenak parekoak ez direla antzematen da. Nesken aisialdian erreparatuz gero, hauek dauzkaten mugak agerian geratzen dira. Adibide bat jartzearren, neska askok, asteburuetan ateratzeko eta nahi duten lekuetara joateko mutilek baino oztopo gehiago topatzen dituztela -batez ere gurasoen aldetik- diote. Guraso askok etxetik jantzita nola ateratzen diren kontrolatzen omen dute. Horretaz gain, norekin eta nora joan behar duten neskei soilik egiten zaizkien ohiko galderak omen dira. Mutilek aldiz askeago aukeratzen dute nora eta nola joan. Hori dela eta gehienek mutilei jartzen dizkieten oztopoak (ordutegia, batez ere) neskek jasaten dituztenak bezain zorrotzak ez direla aitortzen dute.

Aipatutakoaren ildotik, neskek muga horiek barneratu dituztela esan daiteke, espazioarekiko (non egon, non eta zein orduetan egon, non eta norekin egon, etabar.)

tentsio gehiago azalduz. Mutilek aldiz, era erosoago batean kokatzen dira beraien ingurunean ahalik eta toki gehiagotara iristeko grina adieraziz¹⁰.

Azkenik, jardueren azterketak ere neska eta mutilen artean dagoen aldean erreparatzeko aukera eman digu, batzuk eta besteek horren inguruan dituzten esperientziak eta nahiak ezberdinak omen baitira. Kasu honetan nerabeen aisialdi jarduerak aztertzerakoan nesken agendan bakarkako jarduerak (edo talde txikietan egiten direnak) toki zabala hartzen dutela esan daiteke. Ondorioz, eta beraiek esanda, arrunta izaten omen da beste lagun batekin gelditzea elkarrekin zerbait hartzeko, ikasteko, erosketak egitera joateko, etabar. Mutilen kasuan aldiz, jarduera mota horiek ezohikoak lirateke, normaleena lagun taldearekin elkartzeta eta denon artean zerbait egitea izaten baita: kirolean aritu, egonean egon, tabernetara joan...

“Neskek sentimendu “rollo” ari buelta gehiago ematen diete, eta behar handiagoa dute gauza horretaz hitzegiteko... Mutilak “en cambio” ez dute hitzegiten barremanetaz eta... kirola egitea, edo gauzak egitea... Ta mutilen artean hitzegiteko gauza batzutaz, “pues”...” (Elkarrizketa. Gaztelekuko begiralea. Zarautz).

“Los tios si no nos ponemos ciegos, nos ponemos a hacer el idiota para echar unas risas. Y las chicas pues se van a un disco-bar y se ponen a bailar y se lo pasan bien.” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoak, A ereduak; kuadrila berekoak. Gasteiz).

“Los que yo conozco (mutilak)... se ponen a jugar al fútbol, o a la maquinita... Sus conversaciones son de fútbol, coches...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoak, A ereduak; kuadrila berekoak. Gasteiz).

Neska eta mutilek beraien aisialdia norekin betetzen duten kontuan hartzea garrantzitsua baldin bada ere, jarduera horiek burutzeko garaian zein helburu edo aurreikuspen duten erreferentzia lez aztertzea komenigarria dela pentsatzen dugu. Gai horri heltzeko, gizarreak sexuen arabera definitzen dituen eredu ezberdinak azaltzera jo beharko genuke berriro, ezberdintasun hori gaztetxoek diskurtso eta irudikapenetan nabarmen agertzen baita.

Elkarrizketatu ditugun gaztetxoek emakumeentzako eta gizonezkoentzako bi eredu daudela argi ikusten dute. Horren ondorioz, neskak eta mutilak ezberdinak direla diote. Ezberdintasun horiek aldiz, ez dituzte kokatzen diskriminazioen oinarrian, izan ere sexuen arteko diskriminaziorik ez dute ikusten, edo, ikustekotan hel-

10 Mobilidadearen garrantziari lotuta azpimarratu beharko litzateke mutilen eta moto edo kotxeen artean sorturiko lotura estua. Horren ildotik interesgarria iruditu zaigu M^a Angeles Duran egindako hausmarketa -Feixa eta Pallarésen artikulutik hartuta- honera ekartzea: *La moto y el coche son apropiaciones individuales, móviles del espacio público. En cierto modo son cuartos de estar rodantes, pequeñas demarcaciones privadas e incluso íntimas con las que sus dueños dan rienda a necesidades de expresión tanto o más que a necesidades de transporte. Su atractivo para los jóvenes va más allá de sus meros componentes funcionales. Ibidem, 37 orria.*

duen munduan kokatzen dute (lan munduan esate baterako). Dena den, beraien azalpen eta kontakizunen arabera egun aisialdian ematen ari diren ezberdintasunen inguruko zenbait ondorio azpimarratzeko aukera dagoela uste dugu. Horien artean aisialdi jardueren bizipenetan aurkitu ditugunak nabarmenduko genituzke, kontsultatu ditugun adituek horretaz ere jardun izan dutelako.

Antzematen denez, oraingoz, neskek presio sozial handiagoa jasaten dute, eta hainbat faktore dela medio, (gizarte) espektatiba eta kontrol altuagoak bete behar dituztenaren inpresioa dute. Baita norma diren portaeretatik ez urruntzeko presio sozial gehiago ere. Etxeko arduetatik hasi, ikasketekin jarraitu eta estetikari lotutako eskakizunetan bukatuz; neskek perfekzioruntz jotzeko obligazioa barneratzeko joera gehiago dute. Hori dela eta, beraien jardueren helburua inguruko onespeneraren bilaketan oinarritua dago askotan: ikasle onak izan, arduratsuak, adoretuak, politikak, lirainak, atseginak,...

“... en eso creo yo que se presiona más a las chicas... O sea, esto de las expectativas creo que con las chicas es más duro ¿no? Y más en este momento, que las chicas además de estudiar una carrera, tener un buen trabajo, tal, pues también al final tienen que seguir siendo la mujer tradicional, y encima estar guapas y delgadas y... Yo yo creo que eso también... Yo ahí también marcaría una diferencia ¿eh?”. (Elkarrizketa. Aisialdi talde hezitzailetako koordinatzailea eta begiralea. Gasteiz).

Eredu horren funtzionamenduaren islada bi elementutan ikusi izan dugu. Batetik, neskek beraien aisialdian -eta batez ere asteburuko aisialdian- kontrol sentsazio horri erantzuteko adierazten duten grinan, aisialdiko denbora hori era konpultsiboago batean bizi dutela dirudi, hain zuzen ere, aurreikuspen eta kontrol zorrotzagoak sortarazten dien tentsioa bideratzeko edo liberatzeko. Bestetik, neskenganako presio horren seinalea litzateke nesken jokaeren inguruan egiten den balorazioa, izan ere egun neskek gehiago edaten eta erretzen dutela azpimarratzen da behin eta berriro. Hori ikusita, orokorrean esan liteke nesken jokaerak zorrotzago epaitzen direla eta gizarteak neskengan ezartzen dituen aurreikuspenak oraindik ere eta erreferente tradizionalen eragina isladatzen dutelakoan gaude.

Mutilen esperientzia eta bizipenen kontakizunetatik jaso dugun inpresioa, berriz, bestelakoa izan da. Gizarte eredu hegemonikoa gizezkoentzako sortutako eredu den neurrian, mutilak, orokorrean, erosoago sentitzen dira sozialki “agindutako” aurreikuspenak betetzeko edo transgreditzeko garaian, izan ere, askotan beraiei tradizionalki egokitutako arauak eta paperak betetzea baino ez dute egin behar. Transgrezioa edo normatik urruntzea mutilekiko espektatiben baitan dago, ez ordea neskekiko espektatibetan. Horren adierazlea alkohola edo tabakoaren inguruan sortzen diren eztabaidetan antzeman daiteke, bata eta bestearen kontsumoa era ezberdinean ulertzen baita neska eta mutilen kasuan.

“Abora ves a más chicas más borrachas, más fumadas y más de todo.” (Elkarrizketa. Aisialdi talde hezitzaileetako koordinatzailea eta begiralea. Gasteiz).

“Las tias bebemos mucho más (...) vamos a ponernos ciegas, y los tías van a tomar copas.” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoan, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz.).

Orokorrean aisialdia (gizarteko gainontzeko esparruetan gertatzen den bezala) gizonezkoen eremua izan da historikoki, eta ondorioz, gaur egun neska eta mutilak horren inguruan dituzten bizipenak horren islada lirerateke. Nesken kasuan aisialdia dela eta, beraiegan ezarri ohi diren gizarte kontrolak sortutako tentsioa jasaten ari direla esan badaiteke, mutilen kasuan denbora eta espazio hori askatasun gehiagoz bizitzeko aukera dutela argi geratuko litzateke, aisialdia -tradizioz- gizonezkoek beraien desio eta beharretara definitutako esparrua izan baita.

Esandakoak esanda, beste gizarte esparruetan ematen ari diren aldaketak (hezkuntza sisteman, etxeko giroan, lan munduan, etabar.) aisialdian ere isladatzen ari direla ezin da ukatu, orain arte indarrean egon diren zenbait eredu eta arau apurtuta edo apurtzeko bidean baitaude. Aldaketa horiek gaztetxoan bizitzan eta pentsakeran duten eragina aztertzea interesgarria litzateke. Horren azterketak izan beharko luke zalantzarik gabe datozen ikerketen helburu nagusienetarikoa bat¹¹.

“Las tias somos más libres ahora que antes. Antes se dedicaban a cocinar y así...” (Eztabaida taldea. Ikastola, D eredu. Gasteiz).

“Yo creo que es como todo, viene de atrás porque antes parece que..., esto es de tíos y esto es de tías, los tíos juegan al fútbol y las tías no, los tíos hacen esto y las tías no... Yo creo que eso viene de atrás, se transmite de generaciones..., los tíos juegan al fútbol y las tías a la...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe pribatua, A eredu. Leioa).

Ingurunea eta aisialdia

Gaztetxoek aisialdiaren inguruan dituzten esperientzietan eta bizipenetan gertuko ingurunearen baldintzek zenbateko eragina duten ikusteko asmoz, herrien eta hirien arteko bereizketan sakontzea aurreikusi genuen ikerketa honen proiektuan. Hori dela eta, nerabeekin egin beharreko eztabaida taldeak osatzeko garaian eta adituekin egindako elkarrizketen gidoia definitzerako orduan horri erreparatzeari

¹¹ Ildo horretik jotzeko ahaleginak egiten ditu jada, iaz Emakundek argitaratutako ondorengo txostenak: Emakunde (arg.) (2001): *Portaera maskulino eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian*. Emakunde: Vitoria-Gasteiz.

2.4.2. Gaztetxoen arteko bereizketak: gaztea izateko erak: generoa ingurunea eta gazte kulturak (2)

GAZTE IZATEA = AISIALDIAZ GOZATZEA
 “SI NO TE LO ESTAS PASANDO BIEN ES COMO MARGINARTE”



Ingurunea eta Aisialdia

HERRIA

HIRIA

- Harreman estuagoa.
- Lagunen arteko gertutasuna.
- Harremanen aniztasuna.
- Gazte “mota ezberdinen” arteko elkarbizitza estuagoa.
- Antolatze gaitasun handiagoa.
- Lasaitasun gehiago.
- Astakasun margen handiagoa.
- Kultur hiritarren “moden” agintaritzapean.
- Ingurunearekiko lotura gehiago.

- Harreman aldakorragoak.
- Harreman malguagoak.
- Jende asko ezagutzeko aukera.
- Gazte “mota berdinen” arteko elkarbizitza.
- Autogestiorako zailtasun gehiago.
- *Estresaren* sindromea.
- Gurasoen kontrolaren presio handiagoa.
- “Moden” hartzaile eta bultzatzaile.
- Ingurunearen ezagupen eta kontrol murriztagoa.

garrantzi berezia eman genion. Saiakera horretatik sortu dena ikusita, ariketa hori hainbat ondorio eta ñabardura interesgarrietara iristeko baliogarria izan dela esan daiteke. Beraz, hiri eta herri giroen arteko bereizketak egun kritika asko jaso baldin baditzake ere, guk hausnarketarako hainbat puntu mahaigaineratu nahi izan ditugu, horiek gaztetxoen bizimoduaz eta pentsakeraz hitzegiterakoan bere tokia izan dezaten.

Herrietako eta hirietako duten bizimoduaren artean gero eta diferentzia txikiagoak dauden heinean, zailagoa gertatzen da aisialdiaren bizipenetan ezberdintasunak topatzea. Ikuspuntu horretatik, aisialdia garatzeko beharrezkoak diren baliabideetan baino, aisialdiaren inguruan parte hartzen duten gainontzeko elementuetan

agertzen da aldea. Esate baterako: aisialdiaren inguruan garatzen diren harremanetan, aisialdia bera ulertzeko eta bizitzeko eran, aisialdia eta inguruarekiko loturan, eta, batez ere, aisialdiaren eta gazte izatearen artean sortzen den harreman horretan. Inpresio orokor hauek ulergarri bihurtzeko asmoz, ondorengo puntuetan laburtu izan ditugu:

Hasteko, herriko eta hiriko giroaren arteko ezberdintasunak gaztetxoek aisialdian duten eragina aztertzeke garaian, nerabeek garatzen dituzten harreman motei dagozkiela azpimarratu nahiko genuke. Hori dela eta, eta beraien hitzei erreparatzen badiegu, herrietan gaztetxoek arteko harremanak hirietan baino askoz estuagoak direla dirudi. Horren ondorioz, nerabeek lagunak arteko harreman gertuago bizi izaten dutela diote. Ingurune hiritarretan aldiz, harremanak aldakorragoak izanik, lotura malguagoak garatzen direla diote, eta horregatik epe motzean lagunak aldatzea normalizat jotzen dute. Somatu daitekeenez, harremanak garatzeko modu edo ulerkerak ezberdin horiek lagun arteko dinamika oso ezberdinak jorrazera darmatzate. Ezberdintasun horiek koadrilen osaketa eta koadrila osatzearen esanahia berari dagozkion dinamikak baldintzatzen dituzte.

Aurreko ideien ildotik, herri inguruetan sortzen diren lagun taldeetan hirietan sortzen direnetan baino aniztasun handiagoa topatzea arrunta dirudi, herrietan gazte kopuru txikiagoa izanik elkarrekin ibiltzera behartuta sentitzen baitira. Hirietan aldiz, lagun taldeak txikiagoak eta homogeenagoak izan ohi dira, gazte mota berdinen arteko harremanak bilatzea joera nagusi izanik. Ikuspuntu horretatik, herri giroko inguruetan adin ezberdinen arteko hartuemanak estuak izan ohi diren bezala, hirietan gutxiagotan gertatzen den fenomenoak litzateke. Ingurune hauetan, aldiz, gaztetxoek jende gehiago eta ugariago ezagutzeko aukera dutela badiote ere, azkenean aukera hori harreman finkoetan isladatzeko aukera gutxiago dutela dirudi.

Harremani buruz aipatutakoaz gain, gaztetxoek inguruneari dagozkion beste ezauzgarri batzuk kontuan hartu beharrekoak dirudite. Hauen artean, herri giroko gaztetxoek bizi duten lasaitasun eta askatasun sententzia azpimarratuko genuke, horrek beraien aisialdia antolatzeke garaian eragin handia omen duelako. Ikerketan parte hartu duten herri giroko nerabeek beraien ingurunea txikiagoa izateak gurasoengan sortzen duen konfidantza azpimarratu izan dute, horrek ondorioz nerabeengan kontrol gutxiago ezartzea baitakar. Hiri inguruetan aldiz, stresaren sindromeak eta kalearen inguruko beldurrek gazteenganako kontrol zorrotzagoa omen dakarte. Hori dela eta, hiri handiko gazte askok herri txikietan igarotako udako oporraldiak dituzte bereziki gogoko, bertan ohiko bizitokian ez duten askatasuna eta lasaitasuna izaten baitute.

Herri eta hiri ingurugiroen arteko alde horretan antzematen den beste ezberdintasun aipagarria gaztetxoek bere ingurunearekiko agertzen duten loturan datza.

Herrietako gaztetxoek kasuan, inguruan duten errealitatea eta horrek eskaintzen dizkien baliabideak gertutik ezagutzen dituztela esan daitekeen lez, ingurune zabalago batean bizi direnak ezagupen eta kontrol maila horretara heltzeko zailtasun gehiago dituztela antzematen da, horrek beraien aisialdiaren autoantolaketa eta autogestioan hainbat ondorio sortuz. Horren adibidea herrietan gaztetxoek gauzak antolatzeke azaltzen duten jarreran eta gaitasunean antzeman daiteke, orokorrean, beraien arteko koordinazio maila askoz altuagoa dela erakusten baitute.

“Bilbon baino hobeto gaude... “es que” Bilbon ezin zara... ban ezin duzu txabola egin (barreak)...” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredua. Gernika).

“... hirian jendea arinago joaten da etxera...” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredua. Gernika).

Bukatzeke, egun gazte izateari oso lotuta dagoen *moden* fenomeno ikertu nahi izan dugu, horrek herri eta hiri ingurunean bizitzearekin dauzkan berezitasunak eta ñabardurak azpimarratzeko. Kasu honetan, neska-mutilek beraien burua kultura hiritarren *moden* agintaritzapean ikusten dutela diote, nerabeen artean ospe eta onarpena lortzen duten joerak hiri handietan garatzen direnak dira eta. Horren ondorioz, herrietako gaztetxo gehienek hirietan bizi diren kideak nolabaiteko erreferente erakargarri bihurtzen dituzte. Hiri giroko gaztetxoak azkenengo *moden* hartzaile, jarratzaile eta bultzaileak dira; *modernoak* eta *aurreratuak* dira. Herrietako nerabeak, berriz, ez dira gaztetxoek artean aitzindari, ez aurreratuenak edo berrituenak gaztetxoek artean ematen diren ohitura eta jokabideei dagokienez.

“Donostian aukera gehiago dago denbora pasatzeko” (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredua. Tolosa.).

“Guk pentsatzen dugu bangoak “pijos, niños de papa” direla, eta ez dira bolan, eta eurek pentsatzen dute geu mendikoak garela”. (Eztabaida taldea. Institutu publikoa, D eredua. Tolosa.).

Ingurunea eta gaztetxoek aisialdiaren arteko harremanen inguruan egindako hausnarketari bukaera emateko, puntu honen hasieran azpimarratu dugun idea berreskuratzea egokia ikusten dugu: gazte guztien asmo eta nahien artean asialdiaz gozatzeko baldin bada lehentasunezko pentsamendua, desio horren atzean ezkututzen diren ñabardurak eta aldeak ikertu beharrekoak direla erakutsi du ikerketa honek. Ikuspuntu horretatik nerabeen inguruan nagusitzen den irudi homogenea kolokan jarri beharra dago, errealitatean aurki dezakegun konplexutasuna ezkututzen baitu.

Gazte kulturak eta aisialdia ¹²

Nerabeak eta aisialdiaren arteko loturari dagozkion bereizketa prozesuetan sakonduz, generoa eta inguruneaz gain, gazte kultura ezberdinen garapenak sortzen dituen fenomenoak ere kontuan hartu nahi izan ditugu ikerketa honetan. Kasu honetan neska eta mutilen arteko banaketak, edota herri eta hiri inguruneen arteko bereizketak alde batera utzi eta, gaztetxoek beraiek beste nerabeetaz hitzegiterakoan erabiltzen dituzten zenbait elementu aztertuko ditugu ondoren.

Hauetako elementu asko gazte *tribuei* buruz hitzegiteko erabili izan dira sarritan. Guk aurretik egindako sailkapenak eta tipologiak alde batera uztea erabaki dugu, eta, gaztetxoek osatutako mapa begiratzeari eman diogu lehentasuna.


Gauzak horrela, elkarrizketatuak izan diren gaztetxoei behin baino gehiagotan galde-tu izan diegu egun gure gizartean aurki ditzakegun gazte mota ezberdinei buruz. Ondorengo parrafoetan ikus daitekeen moduan galdera horri erantzuteko asmoz nerabeek hiru aldagai aipatu dituzte bereziki: estetika eta musika; pentsakera eta jokaera, eta, azkenik, topaguneak eta ibilbideak. Hori dela eta, gaztetxoek unibertsoan, zer jantzi, zein musika entzun, zer zaletasun izan eta non ibiltzeak berebiziko esanahia dutela ondorioztatu daiteke. Hori horrela izanda ere, ezin da ahaztu bereizketa fenomeno horiek beste egiturazko aldagaien menpe geratzen direla: aipatutako generoa eta ingurunearenaz gain, maila sozio-ekonomikoa eta identifikazio etnolinguistikoarena genituzke garrantzitsuenak. Gizarte aldagai horiek bertan daudela jakin arren, horien analisi maila ezkutu batean uztea erabaki dugu. Horrela jokatu dugu gaztetxoek antzematen eta irudikatzen dutenari lehentasuna eman diogulako. Gauzak horrela, nerabeen arteko ikuspegi, bizipen eta, orokorrean, kultur ezberdinak aztertzeko garaian beraiek ezarritako elementuak aztertzeari ekin diogu.

“(borrokak) pues que apoyan a Euskal Herritarrok y les gusta un tipo de música determinada (...) los típicos melenas, con el pelo rizado... con un porro en la mano...” (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz).

“(pijoak) los que llevan todos ´ quick silver ´ y que están todo el rato con la vespa”. (Eztabaida taldea. Ikastetxe erlijiosoa, A eredu; kuadrila berekoak. Gasteiz.).

¹² Carles Feixak proposatzen duen definizioaren hildotik, gazte kulturaren esanahia horrelaxe ulertu daiteke: *En un sentido amplio, las culturas juveniles se refieren a la manera en que las experiencias sociales de los jóvenes son expresadas colectivamente mediante la construcción de estilos de vida distintos, localizados fundamentalmente en el tiempo libre, o en espacios intersticiales de la vida institucional. En un sentido más restringido, definen la aparición de “microsociedades juveniles”, con grados significativos de autonomía respecto de las “instituciones adultas” (...). Su expresión más visible son un conjunto de estilos juveniles “espectaculares”, aunque sus efectos se dejan sentir en amplias capas de la juventud.* Estilo horiei lotuta, antropologo honek erropa eta, orokorrean, estetikaren garrantzia azpimarratzen du. Ikus: Feixa, Carles: *De jóvenes, bandas y tribus*. Arial: Barcelona; 84 orria.

2.4.2. Gaztetxoen arteko bereizketak: gaztea izateko erak: generoa, ingurunea eta gazte kulturak (3)



“(pijoak) markakoak... markak... eta estilo berdina, kanpanak eta horrela...” (Eztabaida taldea. Aisialdi Taldea, Urizko udalekutan. Donostia).

Estetika eta Musika

Musika eta estetikaren inguruko joera eta modak dira, zalantzarik gabe, egungo gaztetxoak beraien artean sailkatzeko eta izendatzeko erabiltzen dituzten aldagai garrantzitsuenak. Gazte kultura ezberdinen ikurra bilakatu dira, beraz, bi elementu hauek, eta, ondorioz, nerabeek nola eta zer janzten duten, zein arropa markak era-

biltzen dituzten, zein oinetako motak, zein praka mota, zein kolore eta motibo janzten dituzten edo zein orrazkera agertzen duten, izaera eta izanaren adierazletzat hartzen dira. “Publikoki” agertzeko era horri musikaren inguruko gustuak gehitzen zaizkio gehienetan. Bi elementu horiek –estetika eta musika– pentsakera eta bizimodu bati lotuak agertzen dira, beste pentsakera eta bizimodu batzuekiko bereizketa nabarmenduz. Bereizketa horiek gaztetxoan aisialdian eragin nabarmena dute, horietako ikuspegi eta bizimodu bakoitzak aisialdia definitzeko eta garatzeko bere proposamena lekarke eta.

Pentsakera eta jokaera

Musika eta estetika aldagaiei loturik, nerabeek agertzen duten pentsakerak eta jokaerak garrantzi handia dute bere adinekoen arteko sailkapenak ezartzeko garaian. Hori esaten dugunean nerabe bakoitzak duen bizitza-estiloa eta zaletasunak, eta eduki dezaken kultur, politika edota hizkuntzarekiko konpromisoa kontuan hartzen direla azpimarratu nahi dugu. Horren ondorioz, gazte batek kirolarekiko duen zaletasuna, familiarekiko adierazten duen lotura edo hizkuntzarekiko agertzen duen identifikazioa, bere identitatea definitzeko garaian adierazle garrantzitsuak izango dira; bai, berak horrela erabaki duelako, bai, besteek horrela ikusten dutelako.

Hortik abiatuta, elementu horiek nerabeen aisialdiaren egituraketan eta bizipentetan parte hartzen dutela azpimarratu behar da behin eta berriro, askotan horien inguruan planifikatzen eta osatzen baitituzte beraien denbora librean eginbeharrekoak.

Topaguneak eta ibilbideak

Aurreko bi aldagaiei estuki lotuta, gaztetxoek beraien aisialdirako dituzten topaguneak eta ibilbideak gazte talde ezberdinen arteko bereizketak adierazteko eta nabarmentzeko erabili ohi dira. Ikuspuntu horretatik, gazte kultura bakoitzak edo, era apalagoan esanda, gazte mota bakoitzak, izaten omen ditu bere poteo eta mar-txa zonaldeak, joateko eta egoteko bere tokiak, bere gustoko tokiak azken batean. Gauzak horrela, asteburua iristen denean gaztetxoak espazio fisiko zehatzen inguruan sakabanatzen dira, bakoitzak bere lehentasun edota gustuen arabera jokatzuz: diskotekak kultura zehatz baten ikurra bilakatu omen dira; *herriko tabernak* beste batzuentzako bilgune aproposa osatzen dute; gure hiriburuetakoko alde zaharrak ere gazte askorentzako topagune dira; eta pijo moduan izendatutako hiriburuko zenbait zonalde gaztetxoek bereganatutako elkargune bilakatzen dira.

Bereizketa hauek askoz konplexuagoak gertatzen dira errealitatean, gazte gehienek toki finkoak izan ordez ibilbideak dituztelako. Hau da, asteburuan zehar aukera ezberdinak frogatzea erabakitzen dute askotan eta leku berriak ezagutzera jo. Hori

dela eta, ohiko tokietan egoteaz gain, ibilbide horretatik kanpo egon daitezkeen lekuak bisitatzen dituzte. Ondorioz, diskotekazale ez diren askok tarteka diskoteke-tara joaten direla aitortzen dute, edo hiriko zonalde batetik bestera ibiltzen diren gazte asko topatu ditugu, giro baten *kideak* izan arren, beste giro batzuk frogatzea atsegina egiten zaielako.

Argi dagoenez, zaila da gaztetxoek inguruko sailkapen itxiak diseinatzea. Gaztaroa trantsizio fase bezala konsideratzen den momentutik eraldaketa eta transformazioa berezko elementua dutela ulertu behar dugu. Ondorioz, gazte izatea identitate zehatz eta irmo baten fruitua baino, continuum baten islada dela interpretatu behar dugu. Ezegonkortasun eta malgutasun horretan txertatzen dira hain zuzen ere, nerabeen aisialdiaren inguruko bizipen eta esperientzi gehienak. Hori dela eta, ez gaztetxoak, ez denbora librearen inguruan agertzen duten jarrerak, ezin ditugu kategori estatiko gisa ulertu. Aldiz, gizarteak sortzen dituen dinamika eta egoera berrieta-
ra moldatzeko gaztetxoek egiten dituzten ahalegin bezala ulertu behar ditugu. Konplexutasun horretan kontuan hartu beharreko bi gertakari biltzen direla uste dugu: batetik, gaztetxoek artean ezartzen diren bereizketak gizarte mailan dauden tentsio askoren fruitua direla kontutan hartu beharko genuke. Bestetik, gaztetxoek aisialdiaren inguruan garatzen dituzten eredu ezberdinek gazte izatearen esperientzia horretatik sortutako beharrak asetzen dituztela ezin dugu ahaztu. Bereizketa eta batuketa prozesu kontrajarri horietatik sortzen da hain zuzen ere, ikerketa honen gaztetxoek azpimarratu duten ideia: gazte izatea aisialdiaz gozatzea da, beraz ondo pasatzen ez baduzu zure burua alboratzen ari zara!

3. *Gogoetak eta proposamenak esku-harte soziala eta instituzionala gaztetxoan aisialdian*

3.1. *Gazteei buruzko irudikapen soziala*

Gazteen inguruan eta, bereziki, gazteen aisialdiaren inguruan gizartearen hedatuena dagoen irudikapen soziala oso fragmentatua eta osatugabea da. Ikerketa honen hasieran aipatu genuen moduan, komunikabideek eta gazteei buruzko azterketa sozialek gazteen errealitateaz egiten duten irakurketa, neurri batean behintzat, errealitate horren parte bat gehiago bihurtu dira; hau da, azterketa edo irakurketa horiek bere ondorioak dituzte maila ezberdinetan: gaztetxoan irudi sozialean, euren jarretan, gazteen arloan lan egiten duten agenteen estrategietan (hezitzaileak, aisialdiko taldeak, arduradun politiko eta instituzionalak,...).

Horrela, gazteei buruzko komunikabideetako erreportaiak eta, zenbait kasutan, gazteei buruzko ikerketek ere, gazteen inguruko irudi estereotipatuak eta deskontestualizatuak sortzen dituztela pentsatzen dugu. Bide horretatik, proiektatzen duten irudi eta diskurtso sozialak gazteen bizipenen konprentzio integralagoa eta konplexuagoa zailtzen du. Izan ere, arestian aipatu bezala, gazteetaz hitz egitea gizarteaz hitz egitea da; hau da, gazteen munduak biltzen ditu bere baitan gizarteak bere osotasunean biltzen dituen dibertsitate, konplexutasun eta argi/ilun berberak.

Azken batean, gaztea izatea, beste edozeren gainetik, zerbait kulturala eta soziala da; gazteen errealitatea eta bizi baldintzak, beraz, oso lotuak egongo dira momentu historiko eta testuinguru kultural bakoitzean indarrean dauden instituzio sozialekin: familia, hezkuntza, lana, aisialdia, kontsumoa, komunikabideak, administrazioa eta gazteentzako politikak,... Ezin aztertu, hortaz, gazteen kulturak eta jokamoldeak modu isolatuan eta homogeneoan, gainerako instituzio eta egitura sozialetan dauden joerak eta integrazioarako zailtasunak kontuan hartu barik. Izan ere, geure hasierako planteamenduan aurkeztu dugun bezala, gazteak trantsiziozko baldintzapen sozial batean daude, trantsizioa helduaren integrazio sozialerantz. Burutu gabe dago bizitzan aurrera egin ahala gizartearen instituzio produktiboetan eta erreproduktiboetan (lan-merkatua, etxebizitza, kontsumoa, amatasuna/aitatasuna,...) egiten dugun integrazioa; eta, integrazio horren ibilbidea, zailtasun edo erraztasun gehiago izango ditu instituzio horien permeabilitatearen arabera -instituzio horien sARBIDEEN MALGUTASUNAREN ARABERA-, eta geure bestelako baldintzapen sozialen arabera (generoa, maila sozio-ekonomikoa, kapital kulturala, harreman-sareak,...). Gaz-

teak, beraz, transitorioa den dependentziazko egoeran daude, hau da, egitura eta kultura hegemonikoan integrazio-bidean dauden aktore sozialak dira (modu prekarioran eta gatazkatsuan, edo modu erraz eta armonikoan). Eta integrazio-bide horretan zailtasunak eta asimetriak egon badaude; funtsezkoa dugu, beraz, gazteen jokabideen inguruan sortzen diren gatazkak eta alarma sozialak irudikapen konplexuago baten ikuspegitik aztertzea.

3.1. Gazteei buruzko irudikapen soziala

- Ikuspegi homogenizatzailea.
- Komunikabideen etiketaje sinplifikatzailea: itxurak, espektakularra.
- Irudikapen desbiazionista eta estigmatzailea.
- Alarmismoa: problematikoa, kezkarria. Kontrola areagotzea.

- Dibertsitatearen ikuspegia: gazte-kulturak eta identitateak.
- Helduekiko eta beste gazteekiko bereizteko estrategia ezberdinak.
- Irudikapen gatazkatsua: gazteen integrazioa (zailtasunak, asimetriak)
- Joera kezkarria baldintza sozialen testuinguruan. Aukerak areagotzea



Gazteen aisialdiari buruzko diskurtso estereotipatuak gainditzea. Beraien bizipenen konprentzio integralagoa egitea, gaztetxoei egokitutako esku-hartzea lortzeko.

Izan ere, gazteek, euren baldintzapen sozialak abiapuntu moduan hartuta (maila sozio-ekonomikoa, hiriko edo herriko ingurunea, generoa, identifikazio etnolinguistikoa,...), euren gazte kulturak eta identitateak garatzen dituzte. Azken batean, gazte izateko era ezberdinak (estetikak, musikak, hizkerak, espazioak, aisialdirako jarduerak,...); estrategia ezberdinen bitartez aktiboki sortzen dituzten estilo eta talde-identitate horiek baliagarriak dira eszenatoki publikoan helduekiko eta beste gazte taldeekiko modu bereiztu batez aurkezteko.

Bestaldetik, gazteen aisialdiko jarduerak, askotan, gizartean dominanteak diren balio eta ikuspegi ideologikoetatik aztertzen dira; hau da, helduen gizartean onartuak dauden eta arau dominanteak diren planteamendu eta jokabideetatik. Horren ondorioz, askotan, gazteen aisialdia aztertzen da ezkutuan mantentzen den ikuspuntu moralista eta desbiazionista batetik (jokaera onartuak eta jokaera desbidera-

tuak edo asozialak bereiztuz), testuinguru sozialak sortzen dituen joerak, zailtasunak eta kontraesanak kontuan hartu barik; eta, ondorioz, konprentzio integrala eragozten dituzten estereotipo estigmatzaileak proiektatuz. Azkenik, irudikapen horietatik eratorzen diren proposamenak eta ondorio sozio-politikoak lotuak egoten dira kontrol soziala areagotzearekin (legeak, arauak, kontrol poliziala,...) desbideraturik kontsideratzen diren jokabideak arau dominantera lerrotu daitezzen; nahiz eta, kontrola areagotzeko ahalegin horiek, kontrako efektua izan dezaketzen eta, hartara, kontrola baino deskontrola areagotzea besterik ez lortu.

Gazteen aisialdia argi-ilun asko dituen errealitatea da; ikusi dugun bezala, lagunartekotasuna eta autonomiaren bilaketa erreferente garrantzitsuak dira, baina horiekin batera badaude ere debekatua daukatenarekin esperimentatzea, indarrean dagoen arua transgreditzea eta emoziozko bizipen intentsuak bilatzea. Horrek, zalantzarik gabe, arrisku-portaerak sortzen ditu; gaztetxoek denbora libreka kezka-iturri bihurtu da familietan, batetik, alkohola eta beste drogen kontsumoa saihestezina dirudien errealitatea bihurtu delako eta, bestetik, geure gizartean nagusitutako jokamolde kulturelei jarraiki, gaztetxoek aisialdiko aukera gutxi dituztelako tabernetatik kanpo. Baina dauden joera kezagarriak baldintza sozialen testuinguruan aztertu nahi baditugu, ezin dugu ahaztu aisialdia bizitzeko modua lotuta egoten dela aisialdia ez dena bizitzeko moduarekin (familia, ikasketak, lana, kontsumoa, ilusioak garatzeko baliabideak,...); eta, azken horietan, integrazio-arazoak, frustrazioak eta antsietateak nagusi badira, aisialdian ere horrek nolabaiteko isla negatiboa izango du.

Horrexegatik, gazteen aisialdiari buruzko diskurtso estereotipatuak gaindituz, funtsezkoa kontsideratzen dugu gaztetxoek aisialdia beraien bizipen konprentzio integralago baten baitan kokatzea eta, hortik abiatuz, kontrola areagotzea baino, euren aisialdia hobetzeko eta optimizatzeko behar diren aukerak areagotzea. Ikus ditugun, beraz, lan honetan egin dugun azterketaren arabera zeintzuk izan daitezkeen gaztetxoek aisialdia optimizatzeko kontuan hartu daitezkeen zenbait elementu.

3.2. Gaztetxoek aisialdiaren dinamizazioa eta optimizazioa

Aisialdiaren eskaintzaren ikuspegitik, nerabeak erdibide batean daude; ez dira haurrak baina ez dira gazteak ere. Haurrentzat zein gazteentzat, aisialdirako eskaintza gero eta oparagoa da; baina azterketa honetan izan dugun adin-tartean, aldiz, aisialdirako erreferentzia falta nabarmena dago. Ez dira gurasoen edo begiraleen gidaritza eta babesa behar duten haurrak, ezta ere tabernetan ibiltzeko edota herriz herri mugitzeko askatasuna eta baliabideak dituzten gazteak. Aldi berean, haurtzaroa atzean utzi nahian, aisialdiko bizipenak, neurri batean behintzat, helduekiko autonomia bilatzera eta debekatua daukatenarekin esperimentatzera bideratzen

dituzte; hau guztia, nortasun pertsonala eraikitze-prozesuan dagoenean eta erreferentziako unibertso sinbolikoa (balioak, mugak,...) modu koherentean definiturik eta egituraturik ez dagoenean. Ezin ahaztu ere, ikasketek, lehiakortasunak eta kontsumoak nolabaiteko presioa eragiten dietela integrazio sozialerako bide luze eta korapilatsuan.

Testuinguru horretan, familietan zein hezkuntzaren arloan, etengabe aipatzen dira lehentasun moduan gaztetxoek oreka pertsonala lantzea, balioen hezkuntza indartzea eta sormena zein ekimen pertsonalari bidea ematea. Azken batean, pertsona arduratsuak, orekatuak eta eragileak formatzea; eta, zeregin horretan, hezkuntza ez-formala hezkuntza formala bezain garrantzitsua edo are garrantzitsuagoa kontsideratu beharra.

Hartara, nerabeen edo gaztetxoek aisialdia esku-hartze berezitua behar duen arloa dugu. Izan ere, aisialdirako esku-hartze sozialak (aisialdi talde edo bestelako ekimen sozialen bitartez eskaintzen dena) eta instituzionalak asko lagundu dezake gaztetxoek aisialdiaren dinamizazioan eta optimizazioan, beti ere arestian aipaturiko aisialdiaren elementu definitzaileak desitxuratu ez baditu eta gaztetxoek bizipenak, beharrak eta betenahiak kontuan hartzen baditu.

3.2. Gaztetxoek aisialdia dinamizatzea eta optimizatzea (1)

Aisialdiaren definitzaileak galarazi gabe:

- Libreki hautatua.
- Jarduera bera helburu: subjektibitatearen adierazpena.
- Gozamina.



Gaztetxoek bizipenen klabeak kontuan harturik:

- Autonomiaren beharra.
- Lagunartekotasuna.
- Esperimentazioa.
- Emozioa.

Gazteen aisialdiaren optimizazioa helburu: normatibismo gutxiko (jarduerak, ordutegiak,...) esku-hartze erraztatzailea.

Ikerketa honetan ikusi dugu 14-16 urteko gaztetxoek nolako irudikapena egiten duten aisialdirako eskura dituzten guneetaz; horretarako, aisialdiko guneak, autonomiaren ardatz analitikoaren arabera sailkatu ditugu lau kategorietan -gune konpartituak, monitorizatuak, birziklatuak eta berezkoak-.

Berezko guneak bezala definitu ditugun aisialdiko guneetan (taberna zonaldeak, diskotekak, lonjak eta gaztetxeak) aurkitzen ditugu euren aisialdiaren definizioa gogobetetzen duten elementuak: beraiek aisialdi intentsiborako aukeratutako edota sortutako eremuak; helduen mundutik aparte bereganatutako espazioak eta denborak; euren esperientzia kolektiboa garatzeko aukera eskaintzen dutenak (berezko jarduerak eta adierazpenak); askatasunezko, ebasiozko eta gozameneko sentsazioari lotutako eremuak; erabakimena eta protagonismoa sentitzekoak.

Azken batean, arestian aipatu bezala, gaztetxoek oso argi dute aisialdi idealak hiru zutabe edo elementu definitzaile dituela: erabaki autonomia -libreki hautatzea eta antolatzea zer egin, nola egin eta noiz arte egin-; jarduera bera helburu izatea eta ez bitarteko beste zerbaitearako -ilusioa sortarazten duten jarduera eta ekimenen bitartez subjektibitatearen adierazpen librea bilatzea-; eta, azkenik, zeregin horretan lagunartean gozatzea eta dibertitzea.

Horrela, aztertu ditugun aisialdiko gainerako aukerak eta eskaintzak mugak dituzte gaztetxoek behar eta betenahi horiek gogobetetzeko. Aisialdirako esku-hartze sozialak eta instituzionalak, zentzu horretan, beti izango ditu bere mugak; baina, aldi berean, diseinatu daiteke gaztetxoek bizipenetan klabeak diren elementuak kontuan harturik: autonomia eta auto-antolaketa beharra; lagun-taldearen garrantzia; eta esperimentazioaren zein emozioaren bilaketa.

Hortaz, gaztetxoek aisialdia dinamizatzea, transformatzea eta optimizatzea bilatu nahi duen esku-hartzeak, eraldatzailea izan nahi duen edozein esku-hartze bezala, gaztetxoak bihurtu beharko ditu prozesu transformatzailearen aktore protagonistak. Beraz, programatzea eta eskaintzea baino, euren ekimena bultzatzea eta erraztea bilatu beharko du; horrexegatik, gaztetxoek beharrei egokitutako aisialdiko eskaintza, normatibismo gutxiko eskaintza erraztatzailea izan behar luke. Hau da, alde aurretik egutegi baten arabera programaturik eta zehazturik dauden jarduerak, espazioak eta ordutegiak baino -aisialdiko jarduerak kontsumitzeko aukera eskaintzea baino-, gazteen ekimena eta auto-antolaketa erraztuko duten bilguneak, harremanak eta baliabideak eskaintzea.

Horrela, Gazte-lekuen inguruan garatu den esku-hartze eredua, jarduera programatuen eredua (egutegi baten arabera eskaintzen diren tailerrak, jarduerak, zikloak,...) zailtasun handiagoak ditu gaztetxoengana iristeko; eta hori bereziki nabarmena da familian, ikasketetan edo ingurune sozialean aparteko zailtasunak dituztelako, funtzionamendu arautu batean integratzea zailagoa den gaztetxoek kasuan. Beraz, horiek ere kontuan hartuta, gure azterketatik ondorioztatu dezakegun esku-hartze eredua, oso zehatza ez bada ere, ondorengo orientabide hauek izango lituzke:

3.2. Gaztetroen aisialdia dinamizatzea eta optimizatzea (2)

Jarduera programatuaren eredua (ikastaroak, tailerrak, zikloak,...) gaintitu.

- **ESPAZIOA.** Egoteko leku bat: lokalak eta erreferentziatzko guneak, modu autonomoan antolatuak (haiek signifikatzeko edo bereganatzeko aukerarekin).
- **HARREMANAK.** Adin horretako kezka eta interesekin enpatizatzeke gauza izango diren dinamizatzaileak edo “bidelagunak”.
- **JARDUERAK.** Hitza eta ekimena euren esku: baliabideak eta erraztasunak eskaini euren aisialdiko proiektuak eta ilusioak gauzatzeko.

↳ Dibertsifikazioa.

Esku-hartzearen ebaluazio kualitatiboa:

- Lekuaren erreferentzialtasuna.
- Harremanen hurbiltasuna.
- Galtetroen ekimenez burututako jarduerak.

Galtetroen auto-antolaketari bidea ematea: aisialdiko jarduerak kontsumitzeko askatasuna baino, aisialdia eraikitzeke askatasuna.

- 1) Nerabeek erreferentziatzko lokalen edo bilguneen falta somatzen dute. Eskaintzen zaiena oso formala eta instituzionala bada errefusatu egiten dute. Lokalak edo bilguneak modu autonomoan antolatzeko aukera izan behar dute, haien adierazpide eta nortasun-ikurrekin signifikatzeko aukera; horrela, neurri batean behintzat, bereganatu egingo dituzte, euren egingo dute eta erreferentziatzko espazioa bihurtu daiteke nerabeentzat.
- 2) Bilgune horiek, adin horretako kezka, pentsamolde eta interesekin enpatizatzeke gaitasuna izango duten dinamizatzaileak behar dituzte. Soslaia eta zeregina ez da monitore edo begiralearena, kale hezitzailearena edo “bidelagunarena” baizik; enpatiaren bitartez, galtetroen kezkak bideratzen, euren ekimena bultzatzen eta behar diren baliabideak errazten asmatuko duen pertsona hurbila, alegia. Ekimen sozialean, tokian tokiko aisialdiko talde hezitzaileek urteak daramatzate ahalegin horretan eta, emaitza ezberdinak badaude ere, ekimen instituzionalak kontuan hartu behar luke arlo horretan dagoen esperientzia; eta, seguru asko, lehentasunezkoa kontsideratzea talde horiekin definitu beharreke elkarlana.
- 3) Aisialdiko jardueri dagokienez, funtsezkoa iruditzen zaigu hitza eta ekimena galtetroen esku egotea; horrela, euren ilusioak eta proiektuak animatuz, baliabideak eta erraztasunak eskaini horiek gauzatzeko. Horrela, galtetroenganan iris-

teaz gain, tokian tokiko gaztetzoen arabera jardueren dibertsifikazioa lortu daiteke ere, jarduerak euren estilo, estetika eta erreferentzien arabera definitzen diren neurrian.

Azkenik, esku-hartze eredu honen ebaluazioa ezin da izan soilik kuantitatiboa edo kopuruen arabera (jardueren kopurua, nerabe hartzaileen kopurua, etab...) bai-zik eta bilguneak lortutako erreferentzialtasuna, dinamitzaileek lortutako hurbiltasuna eta gaztetzoen ekimenez burututako jarduerak kontuan hartuko dituen ebaluazio kualitatiboa. Azken batean, pertsonekin lan egiten den neurrian, funtsezkoa da harremanak eta prozesu pertsonalak ebaluatuko dituen ebaluazioa aplikatzea.

Zertzalatu dugun esku-hartze eredu honek kontuan hartu nahi du azterketa honetan gaztetzoei aisialdirako *gune* ezberdinak karakterizatzeko orduan erabili dituzten erreferentziak eta lehentasunak. Adin honetan autonomiaren bilaketa funtsezko premia dela kontuan harturik, beraz, esku-hartze eredurik egokiena gaztetzoen auto-antolaketa erraztearena iruditzen zaigu. Aisialdiko jarduerak kontsumitzeko aukera eskaintzea baino, euren aisialdia eraikitzei aukera eskaintzea; beti ere, auto-antolatzei gauza izango diren pertsona arduratsuak, konpromisodunak eta eragileak formatzeko asmoz.

4. Bibliografia

COORDINACIÓN DEL SIMPOSIO (1996): “Conclusiones del Simposio: Los 14-16 años: Problemática Escolar e Inserción Social”. *Educación Social*, 2.

“Gauaren kolore artifizialak”. *Zabalik*, 125. 2001 (apirilaren 28tik 29ra).

AA.EE (1999): “Ocio y tiempo libre. Espacio de prevención o factor de riesgo”. *Proyecto Hombre*, 32.

AA.EE (1998): “Dossier: Los adolescentes y sus valores en la sociedad española actual”. *Proyecto Hombre*, 25.

AA.EE. (2000): *Haur eta nerabeen aisialdi antolatua Gipuzkoan*. Gipuzkoako Foru Aldundia.

AA.EE. (2001): *gazteei eta kulturari buruzko hausnarketa. Gipuzkoa 2001*. Gaztemira: Gipuzkoako Foru Aldundia.

ALDASORO, MIKELE (2000): “Euskara Ostadar Proiektuan. Erabilera garatzetik, erabilera eroso sentitzera”. *Hik Hasi*, 46.

APERRIBAI, E; PEREZ ANGUERA, S. (2000): “Eskola eta aisia bat eginik”. *Hik Hasi. Udako Topaketak*.

Azurmendi, Joxe (1998): “Hezkuntza, balioen arteko armonia bilatzeko da garrantzitsua”. *Hik Hasi*, 24.

AZURMENDI, JOXE (2000): “Baloreak ala balioak?”. *Euskaldunon Egunkaria* (ekainak, 11).

BARANDIARAN, L.M (1996): “Reflexión criminológica en torno a los estudios sobre la juventud”. *El Mundo* (urtarrilak, 24).

CACHÓN RODRIGUEZ, L. (2001): *Juventud 2000 Las Rozas. Estudio Sociológico*. Editorial complutense.

FEIXA, CARLES (1999): “Introducción. Edades y Culturas”. *Actas Congreso Nacional Antropología*. FAAEE: Santiago de Compostela.

FEIXA, CARLES (1998): *De jóvenes, bandas y tribus*. Ariel: Bartzelona.

- FEIXA, CARLES (2000): "La ciudad recreada. Los espacios lúdicos de los jóvenes". Astragalo. Revista de Arquitectura, 14. UAM:Madrid.
- FEIXA, CARLES; PALLARÉS, JOAN (1999): "Música y drogas. Nuevos patrones de ocio juvenil". Actas Congreso Nacional Antropología. FAAEE: Santiago de Compostela.
- FEIXA, CARLES; PALLARÉS, JOÁN (2000): "Espacios e itinerarios para el ocio juvenil nocturno". *Estudios de Juventud*, 50.
- FUNDACIÓ PERE TARRÉS (1997): *Perspectives per a les colònies i activitats de vacances*. Ed. Pleniluni:Bartzelona.
- FUNES, JAUME (1997): "Nerabetasuna. Jaume Funesen eskutik". Hik Hasi, 19.
- GABINETE DE PROSPECCIÓN SOCIOLOGICA. Eusko Jaurlaritza. Lehendakaritza. *Retratos de Juventud 1998-99*. <http://www.euskadi.net/estudios-sociológicos>.
- GONZALEZ POZUELO, F. (1999): *Juventud universitaria extremeña del 2000*. Extremadurako Unibertsitatea.
- GRUPO 33 (1997): "Boceto para una tipología del adolescente urbano en 1997". *PM. Padres y Maestros*, 225.
- IBAÑEZ, T.: "La `mirada` psicosocial `emergente` y su aplicación al estudio de una categoría social como por ejemplo la juventud". *Estudi General*, 7.
- MANTZOU, POLYNEXI (2000): "Patrones de ocio y espacios lúdicos de hoy". Astragalo. Revista de arquitectura, 14. UAM: Madrid.
- MARTÍ, E.; ONRUBIA, J. (COOR.) (1997): *Psicología del desarrollo: el mundo del adolescente*. ICE Universidad de Barcelona:Bartzelona.
- MAYOR, JOSUNE (2000): "Aisialdia eta euskararen normalizazioa". *Hik Hasi. Udako Topaketak*.
- MENÉNDEZ-PONTE, M. (1997): "¡Socorro, tengo un hijo adolescente!". *PM. Padres y Maestros*, 225.
- MIRALLES, R.: "Mar, de fondo. La aventura de navegar por los 14 años". *Cuadernos de Pedagogía*, 287.
- PETRUS ROTGER, A. (1998): "El deporte escolar hoy. Valores y conflictos". *Aula de Innovación Educativa*, 68.
- PLACER, FELIX (1998): "Baloreen pedagogia. Baloreetan oinarritutako heziketaren pedagogia". *Hik Hasi*, 30.

PUIG ROVIRA, J.M.; TRILLA, J. (1987): *La pedagogia del ocio*. Laertes: Bartzelona.

SANSINENEA, PATXI (1996): "Irakasle-Ikasleen arteko harremanak". *Hik Hasi*, 6.

Trillas, Jaume (1999): "Perspectivas educativas del ocio para el siglo XXI". *Proyecto Hombre*, 32.

URÍAS, F (2000): "Jóvenes españoles del 2.000. Así piensan, así son, así viven". *El Semanal. El País* (urtarrilak, 30).

YOUNIS, J.A. (2000): *Los jóvenes canarios. Cómo se ven y cómo son vistos*. Instituto canario de la Juventud.

Ikerketa honen helburua gaztetxoentzat garrantzi handikoa den bizitzaren arlo bat aztertzea da, aisialdiarena hain zuzen ere. Gazteei beren subjektibitatea garatzeko eta modu librean adierazteko aukera ematen die denbora horrek.

Aisialdiaren esparrua zabala izanik ondoko lehentasunezko lanildoak aztertu dira:

- Gaztetxoen aisialdiko harremanak, euren artekoak zein agente ezberdinekikoak.
- Gaztetxoen aisialdirako espazio berriak.
- Aisialdiaren inguruko gaztetxoen jarduerak, zaletasunak eta kontsumo-joerak.
- Gaztetxoek aisialdiaren inguruan dituzten erreferenteak eta bete nahiak.

Azken finean egungo nerabeentzat aisialdia zer den, nola ulertzen duten eta nola bizi duten jakin nahi izan dute egileek, bai eta aisialdiaren bizipenean zein balio eta itzaropen adierazten dituzten ere.

Sakoneko elkarrizketak, eztabaida taldeak eta behaketak egin dira gai horretan sakontzeko asmoarekin. Ikerketaren lehenengo atalean analisiaren funtsezko ardatzak eta aisialdirako gune ezberdinen ezaugarriak azaltzen dira. Bigarrenean gaztetxoek aisialdiaren inguruan dituzten bizipen eta balioen azterketa egiten da. Hirugarren eta azken atalean berriz, ikerketaren emaitzen harira egindako gogoeta eta proposamenak agertzen dira.